





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

INKLUSIORAKO V. EUSKAL PLANA 2022-2026



AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
1.1. Aurrekariak	4
1.2. Metodologia eta egitura	5
2. BEHARREN DIAGNOSTIKOA ETA LEHENTASUNEZKO ERRONKAK ZEHAZTEA	8
2.1. Inklusio eta bazterketa sozialeko prozesuei dagozkien arazoen eta behar sozialen bilakaera	8
2.1.1. Gizarte-bazterketako egoeren bilakaera	8
2.1.2. Pobreziari eta desberdintasunari lotutako egoeren bilakaera	10
2.1.3. Lan-merkatuari lotutako arazoen bilakaera	15
2.1.4. Etxebizitzari eta bizitegi-bazterketari lotutako arazoen bilakaera	22
2.1.5. Osasunari lotutako arazoen bilakaera	27
2.1.6. Hezkuntzari lotutako arazoen bilakaera	32
2.1.7. Parte-hartze politikoari, isolamendu sozialari eta harreman pertsonalei lotutako arazoen bilakaera	35
2.1.8. Arrisku handiena jasaten duten taldeen egoera: haurrak eta gazteak, emakumeak, migratzaileak eta desgaituak	38
2.1.9. Beste elementu batzuk: aldaketak euskal gizarteko osaera demografikoan, energia-krisia eta inflazioaren igoera	41
2.1.10. Aurreikuspen makroekonomikoak	43
2.2. Bazterketa prebenitzeko eta hari ekiteko euskal politikak 2017-2022 epean	44
2.2.1. Sarrera	44
2.2.2. Diru-sarrerak bermatzeko politikak	45
2.2.3. Enplegu- eta lanbideratze-politikak	49
2.2.4. Gizarte-zerbitzuetako politikak	53
2.2.5. Arlo hauetako politikak: hirigintza, etxebizitza, bizitegi-bazterketaren prebentzioa eta oinarrizko hornigaiaren eskuragarritasuna	57
2.2.6. Osasun-politikak	62
2.2.7. Helduen hezkuntza eta etengabeko prestakuntzako politikak	65
2.2.8. Espetxe- eta justizia-politikak	67
2.2.9. Genero-berdintasuneko politikak	68
2.2.10. Garraioaren eta energia-kontingentziaren inguruko politikak	70
2.2.11. Diru-sarrerak eta inklusioa bermatzeko sistema antolatzekeo politikak	73
3. ESPARRU ESTRATEGIKOA	74
3.1. Kontzeptuzko esparrua eta printzipio gidariak	74
3.2. Inklusiorako V. Euskal Plana prestatzeko erabilitako oinarrizko irizpideak	76
3.3. Beste plan eta estrategia batzuekin bat etortzea	80
3.4. Lehentasunezko erronkak eta espero diren emaitzak	82
3.4.1. Sarrera	82
3.4.2. Lehentasunezko erronkak	82
3.4.3. Espero diren emaitzak	86
3.5. Ardatz eta helburu estrategikoak	88
3.6. Orientabideak eta gomendioak	90
4. BALIABIDE EKONOMIKOAK	99
5. GAUZATZEA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA GOBERNANTZA	100
5.1. Esparru estrategikoaren onspena eta plan operatiboaren garapena	101
5.2. Ebaluazioa, jarraipena eta gobernantza	102
6. BIBLIOGRAFIA	108



1. SARRERA

1.1. AURREKARIAK

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 79. artikulua agintzen duenez, euskal administrazio publikoek era antolatuan eta koordinaturik planifikatu behar dituzte helburuak eta horiek lortzeko beharrezkoak diren tresnak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan lehentasunezko jarduera-ardatz komunak ezartzeko eta babes-maila homogeneoak sustatzeko. Gizarteratzeko Euskal Planaren bitartez gauzatuko da planifikazio hori Euskal Autonomia Erkidegoan, eta planifikazioa egitean euskal administrazio publiko guztiek eta sektorean esku hartzen duten erakunde publikoen eta pribatuen zuzeneko parte-hartzea bermatu behar da.

Lege horren 81. artikulua arabera, Inklusiorako Euskal Planak era koordinatu eta orokorrean jaso behar ditu administrazio eskudunen jarduera orientatu behar duten esku hartzeko eta jarduteko ildoak eta jarraibideak, baztertuta dauden herritarren inklusioa lortzearen. Bost urtez izango da indarrean plana. Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak prestatu behar du planaren proposamena eta Eusko Jaurlaritzari dagokio onartzea, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak nahitaezko txostena egin ondoren. Plana onartu eta gero, Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarri bidali behar dio, komunikazio gisa, eztabaida dezan. Ezaugarri hauek izan behar ditu Inklusiorako Euskal Planak:

- Gizarteratzeko eta laneratzeko beharizanen diagnostikoan eta haien eboluzioaren pronostikoan oinarritu behar du.
- Helburuak, ardatz estrategikoak eta horietako bakoitzeko ekintzak definitu behar ditu, garatzeko eta lortzeko epeak ezarri eta horretarako erakunde edo organo eskudunak zein diren zehaztu.
- Plana bera modu sistematiko eta jarraituan ebaluatzeko mekanismoak ezarri behar ditu.

Planarekin batera, dagokion memoria ekonomikoa egin behar da, eta han zehaztu zer aurreikuspen ekonomiko aldatu behar diren urtero, helburuen ebaluazio sistematikoaren eta planaren aplikazioaren segimenduaren arabera.

Xedapen horiei jarraikiz, gizarte-inklusioko lau plan egin dira Euskadin orain arte:

- Gizarteratzeko Euskal Plana (2003-2005)
- Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana (2007-2009)
- Gizarteratze Aktiborako III Euskal Plana (2012-2016)
- Gizarteratzeko IV. Euskal Plana (2017-2021)

Aurreko planei dagokienez, zenbait hobekuntza ezarri zituen Gizarteratzeko IV. Euskal Planak haren jarraipenean eta ebaluazioan: urteroko jarraipen-planak eta azken ebaluazio bat 2022an. Ebaluazio horren ondorio nagusien arabera, oso handia izan da IV. Planaren betetze-maila, gauzatu egin baitira helburu guztiak¹. Xedeei dagokienez, apur bat txikiagoa izan da betetze-maila: handia izan da % 61,8ren betetze-maila; % 35, berriz, hasitatz jotzen dira, eta % 2,9 bakarrik ez-aktibotzat².

Esku hartzeko eremuei dagokienez, berriz, hauek nabarmendu dira, betearazpen-maila handia dela eta³: Osasuna (jarduketa aktiboak, % 100), Hezkuntza (% 92,9, Gizarte Zerbitzuak (% 91,7) eta Enplegua (% 88,5). Martxan jarri

¹ Hau da, Helburu bakoitzeko xedeen % 60 baino gehiago aktibatu ziren.

² Jarduketei dagokienez, azkenik, datuek diote haietatik % 45,9k garapen-maila handia izan zutela; % 41,2k, gauzatze-maila txikiagoa, eta % 12,5 ez ziren aktibatu.

³ Ezarritakoak eta hasitakoak, biak jotzen dira aktibatutzat, egikaritze-mailaren arabera.

gabeko jarduketei edo informazio nahikorik gabekoei dagokienez, berriz, beste hauek nabarmentzen dira: Etxebizitza (% 31,25), Diru Sarreraren Bermea (% 20) eta Artikulazioa eta Koordinazioa (% 16,7).

Ebaluazio-prozesuaz gain —non Plana betearazteko ardura zuten erakunde publiko guztiek eta alor horretan lan egiten duten Hirugarren Sektorekoek esku hartu baitzuten—, *Inklusiorako V. Euskal Planaren oinarri-agiria* aurkeztu zuen 2021eko azaroan Lan eta Enplegu Sailak, Inklusiorako V. Plana prestatzeko oinarrizko irizpideak ezartzeko, bai lehentasunei, bai Planaren formatuari, egiturari eta eratze-prozedurari dagokienez. Urtarrilean, berriz, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea eta Gizarteratzeko Euskal Kontseilua osatzen duten erakundeek euren iruzkinak eta alegazioak aurkeztu zituzten agiriari.

1.2. METODOLOGIA ETA EGITURA

Ebaluazioaren ondorioak aintzat harturik, bi plano edo mailatako artikulazioa du ezaugarri nagusietako bat plan honek, aurrerago ere azalduko dugunez:

- Alde batetik, Esparru Estrategikoa, zeinaren xedea hau baita: era koordinatuan eta globalean jasotzea administrazio eskudunen jarduera orientatu behar duten esku hartzeko eta jarduteko ildo eta jarraibideak, baztertuta geratzeko arriskupean edo baztertuta dauden herritarren inklusioa lortzeko. Kontua da, beraz, euskal erakunde guztiek kontuan izan behar dituzten erronka, helburu eta orientabide komunak ezartzea, euren politika sektorialak planifikatu eta antola ditzaten (enplegua, gizarte-zerbitzuak, diru-sarreraren bermea, etxebizitza, osasuna, hezkuntza...) gizarte-bazterketako prozesuak eta egoerak prebenitzeko. Planaren erronkak, helburuak, orientabide orokorrak eta espero diren emaitzak zehaztea du egin-kizun nagusia Esparru Estrategiko honek, hurrengo ataletan jasotzen denez. Epea: ertaina-luzea. Zehazki, 2026ra arte izango da indarrean Esparru Estrategikoa.

Agiri honetan daude jasota Esparru Estrategiko horren definizioa eta Planak abiapuntu duen diagnostikoa.

- Bestalde, berariazko zenbait plan operatibotan jasoko dira Planari lotutako erakundeek epe bakoitzean garatu behar dituzten konpromisoak eta trazio-proiektu zehatzak. Hasieran, bi urteko indarraldia izango dute plan horiek. Bi Plan Operatibo espezifiko prestatuko dira —bat, 2023-2024 eperako; bestea, 2025-2026rako—, eta haien bidez zehaztuko dira Esparru Estrategikoan jasotako orientabideak aplikatzeko eta helburuak lortzeko administrazio publikoek egin beharreko jarduketak.

Eusko Jaurlaritzak Esparru Estrategiko hau onetsi ondoren prestatuko da plan horietako lehena, elementu hauek barne hartzen dituena:

- o Planari lotutako erakunde bakoitzak bereganatutako jarduketaren eta konpromisoen zerrenda, ardatzen eta helburuen arabera sailkatuta direla.
- o Inklusiorako Euskal Planarekin lotura duten EAEko administrazio publikoek Planari jarraikiz garatuko dituzten proiektu traktoreen zerrenda. Indarrean den araudiaren arabera, gutxienez administrazio publiko hauei eragiten die Planak: enpleguan, diru-sarreraren bermean, gizarte-zerbitzuetan, etxebizitzan, osasunean, justizian eta hezkuntzan eskumenak dituztenei.
- o Hirugarren Sektoreko erakundeek zuzenean bultzatzen dituzten proiektu traktoreak ere barne har ditzake Plan operatiboak.
- o Proiektu horietako bakoitzaren deskribapen-fitxa, datu hauek jasotzen dituena: zein diren helburuak, adierazleak eta biztanleria onuraduna, zer emaitza espero diren eta zenbateko aurrekontua aurreikusten den.
- o Ekonomia-txostena, proiektu traktore bakoitzari dagokion aurrekontuaren zenbatekoa oinarri hartuta.



Aldaketa nabarmena dakar egitura horrek orain arte egin diren planekiko, eta hau du helburu:

- malgutasun eta dinamismo handiagoa ematea Planari —izan ere, jarduketa guztiek ez dute zertan egon hasieratik finkatuta—, eta
- proiektu eta jarduketa zehatzekin konbinatzea Planaren izaera orientatzailea eta estrategikoa —Legeak agintzen diona—, batez ere proiektu berezi eta eraldatzaileak sustatuz. Nahitaez, Planaren indarraldia baino laburragoa izan behar du proiektu horiek planifikatzeko zikloak. Bost urtez izango da indarrean Plana.

Hona agiriaren egitura:

- Sarrerako lehen atal honen ondoren, beharren diagnostikoa eta Planaren lehentasuneko erronkak jasotzen ditu bigarrenak. Horretarako, inklusio eta bazterketa sozialeko prozesuei lotutako gizarte- arazo eta beharren bilakaeraren gaineko datuak jaso dira lehenik eta behin. Eskuragarri zeuden iturriak aztertuz, EAEko biztanleriaren datuak jaso dira, gai hauei buruzkoak: pobrezia eta gizarte-bazterketa, lan-merkatuako sarbidea, osasuna, etxebizitza eta hezkuntza. Politikako parte-hartzeari, isolamendu sozialari eta harreman pertsonalei buruzko datuak ere jaso dira —batez ere gizartetik baztertuta geratzeko arriskuen dauden herritarren gainekoak—, eta pobrezia zein bazterketari lotutako berariazko arazoak izan ohi dituzten biztanleriako talde batzuen egoera aztertu da (migratzaileak, emakumeak, desgaituak...). Aurreikuspen makroekonomikoak ere jaso dira, Plana egitean eskuragarri zeudenak.

Gizarte-inklusioko eta -bazterketako prozesuei dagozkien eremuetan EAEn garatzen diren politiken azterketa zehatza eta zorrotza ere jasotzen du atal horrek: diru-sarreraren bermea, enplegua, osasuna, etxebizitza, justizia, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak. Sistema horietako bakoitzaren oinarrizko magnitudeak deskribatzea da atal honen xedea, betiere pobrezia eta bazterketaren prebentzioari dagozkien alortakoak, eta zehaztea eremu horietako bakoitzean azken urteotan Euskadin ematen ari diren aurrerapausoak eta orientabideak.

- Hurrengo kapituluak Planaren funtsezko alderdiak jasotzen ditu: kontzeptuak eta printzipio gidariak, hura prestatzeko erabilitako oinarrizko irizpideak, lehentasuneko erronkak eta espero diren emaitzak, ardatz eta helburu estrategikoak eta, azkenik, orientabideak eta gomendioak.
- Hurrengoan, berriz, baliabide ekonomikoen zenbatespena jasoko da, Plana indarrean den bitartean Euskadiko inklusio-politikei lotutako jarduketa nagusietarako erabiliko direnena.
- Planaren kudeaketari eta ebaluazioari lotutako elementuak jaso dira azken atalean, eta Lehen Plan Operatiboa prestatzeko jarraitu beharreko lan-prozesua.

Metodologiari eta partaidetza-prozesuari dagokienez, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak prestatu du agiria, hasierako oinarriak hauek dituela: 2021eko abenduko oinarri-agiria eta hari egindako ekarpenak. Agiri haren ondoren, lehen zirriborro bat egin zuen Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak, eta hauei bidali zien: Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eta Gizarteratzeko Euskal Kontseilua osatzen dituzten erakunde guztiei. Galdetegi bat ere bidali zitzaizen, aldaketa- eta zuzenketa-proposamenak jasotzeko. Honako erakunde hauek bidali zituzten ekarpenak:

- Caritas Euskadi
- CCOO
- Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Saila
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentua
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Industria Sailburuordetza



- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
- EAPN
- EHLABE
- ELKARTU
- EUDEL - Euskadiko Udalen Elkartea
- FEDEAFES
- FEVAS / Plena Inclusión
- GIZATEA
- HIREKIN
- LARES Euskadi
- ONCE
- SARTU

Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak aztertu eta eztabaidatu zituen ekarpenak 2022ko irailean, eta testura bildu egoki iritzitakoak.



2. BEHARREN DIAGNOSTIKOA ETA LEHENTASUNEZKO ERRONKAK ZEHATZEA

2.1. INKLUSIO ETA BAZTERKETA SOZIALEI LOTUTAKO PROZESUETAKO ARAZOEN ETA BEHAR SOZIALEN BILAKAERA

2.1.1. Gizarte-bazterketako egoeren bilakaera

Bi eratara edo bi ikuspegitatik azter daiteke EAEko ingurunean egoerari horiei lotutako gizarte-bazterketako egoeren eta/edo arrisku-faktoreen iraupena:

- Lehenbizikoa Gizarte Bazterketa Baloratzeko Tresna (GBBT) ageri diren diagnostiko-kategoriei dagokie. Gizarte Zerbitzuetan erabiltzen da GBBTa, zeina uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuak arautzen baitu, hots, Gizarte Bazterketa Baloratzeko Tresna onetsi zuenak. Hau da tresna horren egitekoa: gizarte-bazterketako egoerak edo gizarte-bazterketako egoerara heltzeko arriskuak baloratzea, egoera horiei aurre egiteko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu edo prestazioen bat jaso behar den erabakitzeak, hala badagokio
- Bigarrenak, berriz, ikuspegi soziologikoa jasotzen du eta FOESSA⁴, Fundazioaren azterketa-esparrua du oinarri. Espainia osoan ari da lanean fundazio hori gizarte-bazterketako egoerak zenbatetsi eta karakterizatzeko, gai horretan aditu diren zenbait akademiko eta espezialistaren lana abiapuntu harturik (FOESSA Fundazioa, 2022). GBBTaren ikuspegi indibidual eta diagnostikoa ez bezala, FOESSAren tresna etxe etxe egiten den inkesta batean oinarritzen da. Halako familia-kopuru bat aztertzen du FOESSAren inkestak (beraz, ez ditu kontuan hartzen bizitoki kolektiboetan bizi diren herritarrak eta etxerik gabeak), eta hiru ardatz, zortzi alderdi eta 37 adierazle jorratzen ditu bazterketari eta gizarteratzeari lotutako egoerak⁵.

Bat datoz bi tresnak zenbait alorretan (larritasunaren arabera sailkatzen dituzte bazterketa-egoera, alderdi anitzekoak dira aztertzen diren bazterketak eta haien ezaugarriak...), baina desberdinak dira bai aplikazio-inguruneari bai helburuei dagokienez, eta emaitzak ere ez dira inolaz ere antzekoak izaten.

Bigarren ikuspegiari dagozkio hemen jorratuko ditugun datuak, bi arrazoi nagusi hauengatik: lehenbizikoa, datuen eskuragarritasuna. Izan ere, ez dago GBBTaren bidez gizarte-bazterketaz egindako balorazioak eskuratzeko modu bateraturik⁶. Bigarren arrazoa, berriz, hau dugu: egokiagoak direla ikuspegi soziologikoaren edo laginketaren bidez jasotako populazioaren gaineko datuak, gizarte-inkluzioaren alorreko politiken planifikazioaren ikuspegitik begirata, aukera ematen baitute hau aztertzeak: zenbat hedatu den bazterketa soziala gizarte osoan, zein diren bazterketaren ardatz eta alderdi nagusiak eta, azkenik, zer talderi edo biztanleria-profilari eragiten dieten gehienbat bazterketa-egoerek. Bestalde, GBB taren datuak erabilita planifika daiteke Gizarte Zerbitzuen Zorroaren gaineko Dekretuan jasotako zerbitzu eta prestazioen zati bat hedatzea, inkluzio-alorreko politika publiko guztiak hedatu beharrean.

⁴ Diagnostiko hau egiteko, estatistika-iturri ofizialak erabili ditugu ahal izan dugun guztietan, alor jakin bakoitzerako erabilgarri zeudenak (pobrezia, desberdinkeria, osasuna, enplegua, etxebizitza eta abar). Alabaina, Euskadin ez dago estatistika ofizialik gizarte-bazterketaren fenomenoz; beraz, FOESSA Fundazioaren estatistikak erabili ditugu gai hori jorratzeko.

⁵ Hiru bazterketa-eremu nagusi bereizten ditu EINSFOESSAren metodologiak: ekonomikoa, politikoa eta hiritartasunarena, soziala eta harremanena. Eremu ekonomikoa, enpleguari eta kontsumoari dagozkion alderdiak hartzen dira aintzat, eta honela aztertzen dira: alde batetik, familiak eta haien kideak lan-harreman normalizatutik baztertzen dituzten prozesuak; bestetik, gizartean parte hartzeko behar diren diru-sarreraren nahikotasuna eta/edo kalitatea, eta oinarritzotzat jotzen diren ondasunen gabezia. Bigarren ardatzean (politikoa eta hiritartasunarena), berriz, bazterketa-mota hauek sartzen dira: partaidetza politikoa, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta osasunaren alorrekoak. Partaidetza politikoa dagokionez, alderdi hauek hartzen dira aintzat: ordezkari politikoa hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea, eta politikan eta gizarterako arazoetan esku hartzeko ahalmena; hiritartasunarekin lotutako alorrean, berriz, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna baldintza paretsuetan eskuratzeko herritar guztiek duten eskubidea. Gizarte-bazterketaren arloan, azkenik, gatazka eta isolamendu sozialak jorratu dira batik bat: alde batetik, harreman sozial txarrak eta gizartean zein familian jasaten diren beste gatazka-egoera batzuk; bestetik, harreman eta lotura sozialik eza.

⁶ Nolanahi dela ere, balorazio horietatik erauzitako datuak sistematizatzen, aztertzen eta argitaratzen ari dira foru-aldundiak.




Hona hemen FOESSA Fundazioaren 2021eko Behar Sozialei eta Gizarte Integrazioari buruzko Inkestaren ondorio nagusiak, EAERI dagozkionak (FOESSA Fundazioa, 2022).

2021ean, erabatekoa zen EAEko biztanleen % 57,7ren integrazioa, ezegonkorra % 26,1ena, neurritsua % 7,3rena eta larria % 9,0rena. Euskadiko herritarren % 16,3k pairatzen dute gizarte-bazterketa, hots, autonomia-erkidegoko sei biztanletik bat—360.000 lagun inguru— dago bazterketa neurritsuko edo larriko egoeran.

Hobe da EAEko egoera Espainiako Estatu osokoa baino; hala eta guztiz ere, nabarmen igo dira EAEko bazterketa-tasak ere, batez ere bazterketa larriari dagozkionak, 2018-2021 epean. Alde batetik, ia % 20 hazi da gizarte-bazterketako egoeran dauden herritarren portzentajea —% 13,9tik % 16,3ra—, biztanleria osoa kontuan hartuta. Dena dela, aldaketarik aipagarriena beste hau izan da: gizarte-bazterketa larriari dauden herritarren kopuruaren eta portzentajearen igoera handia (% 4,4tik % 9,0ra; familiak aztertuta, % 3,6tik % 6,8ra). Bestalde, behera egin du bazterketa neurritsua jasaten duten herritarren portzentajeak, % 9,5etik % 7,3ra. Honenbestez, COVID-19aren krisiak dezente areagotu du Euskadin bazterketa-egoerak pairatzen dituztenen kopurua, batez ere bazterketa-moderurik larrienak —are muturrekoak ere— bizitzen ari direnena. Bazterketa Indize Sintetikoan (BIS) puntuaziorik handiena duten Euskadiko familien portzentajea % 1,3tik % 6,1era igo zen 2018-2021 epean.

1. grafikoa. EAEko eta Espainiako herritarren gizarteratze-mailak 2018-2021 epean




Iturria: EINSFOESSA, 2018 eta 2021.

Aipatutako ardatz bakoitzeko bazterketa-egoerak aztertuta, hona emaitza: EAEko herritarren % 24,4k bazterketa-aren bat jasaten du alor ekonomikoan; % 31,47k, alor politikoan eta gizabidean, eta % 7,1ek harremanen alorrean. FOESSAren txostenaren arabera, nabarmen hobea da EAEko egoera Espainia osokoa baino hiru ardatz horiei dagokienez, hau da, ekonomikoan (-8,5 puntu txikiagoa da), politikan eta auzotasunean (-12,5 txikiagoa) eta harremanetan (-4,9).

Beheko taulan ikusten den bezala, enpleguaren alorrean pairatzen dute EAEko herritarrek gabeziarik larriena (biztanleriaren % 22,1i eragiten dio; atzetik datoz etxebizitzarena (% 13,6) eta osasuna (% 11,7)). Espainia osoko datuekin alderatuta, txikiagoa da EAEko bazterketa-maila aztertutako alor guztietan, batez ere gatazka sozialei, hezkuntzari eta kontsumoari dagokienez. Enpleguaren alorrean daude paretsu EAEko eta Espainia osoko egoerak, eta antzekoak dira bazterketa pairatzen duten populazioaren portzentajeak.



2. grafikoa. Zenbait arlotan gizarte-bazterketa jasaten duten Espainiako eta Euskadiko herritarren portzentajeak. 2021



Iturria: EINSFOESSA, 2018 eta 2021.

37 adierazle espezifikoren bidez aztertu dira familiek eta herritarrek pairatzen duten bazterketaren arloak eta portzentajeak. Adierazleen azterketak erakutsi duenez, bost dira arazorik ohikoenak, eta biztanleriaren % 8ri baino gehiagori eragiten diote: etxebizitzak dakartzan gehiegizko gastuak (herritarren % 15 bizi dira horrelako etxeetan), laneko ezegonkortasun larria (% 13,8), lanerako adinean dauden familiako kide guztien langabezia (% 9,7), botikak erosteko edo tratamendu medikoak egiteko zailtasun ekonomikoak (% 9,2) eta politikan parte hartzeko oztopoak (% 8,6). Adierazlea zein den, 2021ean 200.000 bat laguni eragiten zieten gabezia horiek. Bestalde, agerikoa da bost adierazleek elkarrekin duten lotura; izan ere, alor edo alderdi desberdinei dagozkie —enplegua, politika, etxebizitza eta osasuna—, baina ezaugarri bera dute erkide: nahikoa diru-sarrerarik ez familiaren beharrei aurre egiteko.

2.1.2. Pobreziari eta desberdintasunari lotutako egoeren bilakaera

Ikuspegi honetatik edo hartatik definitutako gizarte-bazterketako egoera horiekin batera, kontuan izan behar da EAEko pobrezia- eta desberdintasun-egoeren bilakaera ere, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-inklusioko politikak planifikatu ahal izateko. Izan ere, zailtasun ekonomikoek zuzeneko lotura dute gizarte-bazterketako egoerekin⁷, eta batez ere pobrezia-egoeran dauden herritarrei zuzentzen zaie diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-inklusioko politiken zati hadi bat, gizarte-bazterketako egoeran egon ala ez herritar horiek.

Hona zer erakusten duen, lehenik eta behin, Euskadiko pobrezia-egoeren azterketak —EBn erabiltzen diren adierazle konbentzionalen eta EAerako Eusko Jaurlaritzak garatutako berariazko metodologiaren arabera n erabiltzen diren adierazleen arabera egiten bada—: Espainiako Estatu osokoak baino txikiagoak direla pobrezia-tasak eta pobrezia-arriskuarenak.

EAEko pobrezia-arriskuaren tasa % 17,8 da (Espainiakoa, % 21,0); pobrezia larriaren tasa, berriz, % 6,1 (Espainiakoa, % 9,5)⁸. Beraz, nabarmen txikiagoak dira EAEko pobrezia-mailak Espainia osokoak baino. Euskadiko egoera hobe den arren, okerrera egin du azken urteotan eta hazkunde handia izan dute pobrezia larriaren tasek (% 5,1


⁷ Gainera, bistakoa da maiz gainjartzen zaizkiola elkarri pobrezia eta gizarte-bazterketa. Aipatu berri ditugun FOESSA Fundazioaren datuen arabera, bazterketa jasaten duten Euskadiko herritarren % 57k pobrezia ere pairatzen dute; bestalde, pobrezia jasaten duten herritarren % 88k bazterketa ere pairatzen dute. Beste ikuspegi batetik aztertuta, herritarren % 51,8 ez dago egoera horietako batean ere; % 1, pobrezia-egoeran, baina ez bazterketakoan (pobrezia integratua); % 5,8, berriz, bazterketa-egoeran dago, baina ez pobrezia-egoeran (pobreziarik gabeko bazterketa), eta % 8, azkenik, egoera bietan (bazterketa eta pobrezia). Ez dago daturik herritarren gainerako % 33az.

⁸ EUROSTATEk erabili ohi duen metodologiaren arabera kalkulatu dira pobrezia-tasa horiek. Honela definitzen da pobrezia-arriskua: batez besteko diru-sarrera baliokidearen % 60 baino gutxiago jasotzea; pobrezia larria, berriz, batez besteko diru-sarreraren % 40 baino gutxiago jasotzea. 2020an, hauek ziren atalase horiek (indibidualak): 1.020 eta 680 euro, hurrenez hurren.



2018an, % 6,1 2020an), eta etengabe egin dute gora 2008az geroztik. Nabarmen igo zen pobrezia larriaren tasa 2008-2014 epean, finantza-krisiaren garaian; ondorengo susperraldi ekonomikoan, berriz, apur bat egin zuen gora, eta dezente —berriro— 2018-2020 epean. Pobrezia-arriskuaren tasak ere gora egin du, baina egonkortu egin da azken bolada honetan.

3. grafikoa. EAEko eta Espainiako pobrezia-arriskuaren eta pobrezia larriaren tasen bilakaera. 2008-2020



Iturria: EIN. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI) eta Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estadistika Organo Espezifikoak. Pobrezia- eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI).

Nolanahi dela ere, ikusten da egonkortu egin direla mantenu-pobrezia-aren tasak, eta behera egin dutela metatze-pobrezia-aren adierazleek, Eusko Jaurlaritzaren estatistiketan erabiltzen diren pobrezia-adierazle espezifikoak aintzat hartuta⁹; beraz, esan daiteke txikiago egin direla pobrezia errealearen tasek: % 6,1 EAE osoan 2018an, % 5,6 2020an). Zehazkiago adierazita, 2000. urtetik metatze-pobrezia-aren adierazlea etengabe jaitsi izanak garbi erakusten du joera positiboari eusten diotela herritarren epe ertain eta luzeko bizi-baldintzek eta erreserba-ondareari lotutako adierazleek. 2008ko finantza-ezegonkortasunak eragindako krisiaren garaian ere gorako biderei eutsi zion joerak.


Adierazle horiek hobera egin izanak badu lotura beste adierazle batzuen hobekuntzarekin ere: EAEko familien aurrerzte-ahalmena, elikagaiak eskuratzeko arazoak gutxitzea, hornigaiaren etenaren eragina, janzkiak eta oinetakoak erosteko ahalmena¹⁰.

⁹ Pobrezia-aren oinarritzko hiru alderdi jasotzen ditu —*grosso modo*— estatistika horrek: mantenu-pobrezia, metatze-pobrezia, eta erreala. Mantenu-pobrezia: oinarritzko beharrak erregulariki asetzeko —batez ere elikagaiak, etxebizitza, arropa eta oinetakoak— behar adinako diru-sarrerarik ez izatea. Metatze-pobrezia: epe ertain eta luzera gutxieneko bizi-maila egokia izateko behar diren kontsumo iraunkorrekiko ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko familien ezintasuna. Pobrezia erreala: pobrezia-aren alor batean zein bestean (mantenua edo metatzea) oinarritzko beharren estaldura urria herritarren eguneroko bizimoduaren behar bezala ez konpentsatzea, gutxieneko ongizate-maila batera iristeko ezintasuna, pobrezia alde batera utzita. Hona PGDIaren adierazlearen eta EUROSTATEN adierazle konbentzionalen arteko alde nagusia: erlatiboak dira EUROSTATEN adierazleak eta, honenbestez, desberdinkeria-egoerak jasotzen dituzte; PGDIarenek, berriz, beren beharrak asetzeko herritarrek dituzten arazoak eta gabezia—egoera objektiboak.

¹⁰ PGDIaren txostenaren arabera, nabarmentzekoa da astebeteko oporrak hartzerik edo hamar urteko baino gutxiagoko ibilgailua erosterik ez daukaten familien populazioa gutxitzen ari dela, eta EAEko familia ia guztiek oinarritzko instalazioak eta ekipamenduak badituztela. Halaber, hobera egin du Interneterako sarbiderik ez duten familiei buruzko adierazleak (jaitsi egin da familia horien kopurua).




4. grafikoa. EAEko mantenu-pobreziaren, metatze-pobreziaren eta pobrezia errearen tasen bilakaera. 2008-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoa. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI).

Baina bilakaera hori ez da berdina izan EAEko lurralde eta eskualde guztietan. PGDIaren datuen arabera, igoera neurrtsua izan dute pobrezia errearen tasek 208-2020 epean Araban eta Gipuzkoan, eta behera egin dute Bizkaian, batez ere Bilbon, Ezkerraldean eta Bizkaiko kostaldean. 2020an, Ingurune hauetan izan zituzten pobrezia-tasarik handienak: Bilbon (% 8,2), Debararrenan (% 8,2) eta Gasteizen (% 7,7). Hiru hiriburuetan eta haien eskualdeetan metatzen dira Euskadiko pobrezia-egoeren % 61.

5. grafikoa. EAEko pobrezia-tasa erreala, eskualdeka eta lurralde historikoko. 2020




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoa. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI).

EUROSTATen metodologiari jarraikiz pobrezia eta gizarte-bazterketako arriskuak neurtzen dituen AROPE tasak 432.000 herritarri eragiten zien 2020an —PGDIaren datuen arabera—, hots, EAEko biztanleriaren % 19,9ri (2008 baino bi puntu gehiago eta 2018an baino 0,8 gutxiago); gabezia materialek, berriz, biztanleriaren % 4,1i.



Desberdintasun-tasen igoera esanguratsu bati loturik dago aipatu berri ditugun pobrezia-egoeren bilakaera, batez ere ikuspegi erlatibo batetik aztertzen bada, edozein dela ere erabilitako adierazlea. PGDIaren datuen arabera, 2008tik 2020ra bitartean 3,6tik 4,4ra igo zen S80/S20 ratioa —diru-sarrera handienak dituzten herritarren % 20aren eta txikienak dituztenen % 20aren diru-sarreraren arteko ratioak jasotzen dituena—; Giniren ratioa, berriz, 25,2tik 28,2ra. EAEko gizartearen desberdintasun-mailek Espainia osokoen azpitik jarraitzen dute, baita Europako herrialde gehien behetik ere, baina bistakoa da azken urteotako goranzko joera.

6. grafikoa. EAEko desberdintasunaren zenbait adierazleren bilakaera. 2008-2020




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoa. Pobrezia- eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI).

Zalantzarik gabe, hau da EAEko desberdintasun- eta pobrezia-adierazleen igoeraren eragilea: gutxiago egin dutela gora errenta txikieneko taldeen diru-sarrerak. 2008-2020 epean, % 11,2 igo ziren EAEko herritarren hileko per capita diru-sarrera garbiak, baina % 9,2 egin zuten behera biztanleriaren % 10 pobreenaren sarrerak. Beste era batera esanda, euro konstantetan % 13 igo ziren epe horretan EAEko biztanleriaren % 70 aberatsenaren diru-sarrerak —% 10 aberatsenarenak, berriz, % 20—; aitzitik, % 2,6 jaitsi ziren errenta txikieneko biztanleriaren % 20arenak.

Beraz, ez gara ari —soilik— herritar aberatsenen eta pobreenen arteko arrakalaren handitzeaz, baizik eta herritar gehienen eta pobrezia- edo bazterketa-egoeran daudenen arteko arrakalaren handitzeaz, FOESSA Fundazioaren EAEko bazterketari eta gizarte-garapenari buruzko txostenak diotenari jarraikiz. Horra, bada, ekonomiaren hazkunde-garaian ere Euskadiko pobrezia- eta desberdintasun-tasak nabarmen igo izanaren arrazoia: handitu egin dira herritar gehienen diru-sarrerak —bai eta pobrezia-atalaseak ere— eta, aldi berean, gutxitu herritar-talde behartsuenak.



7. grafikoa. Batez besteko per capita diru-sarreraren bilakaera, sarreraren dezilen arabera (hileko diru-sarrera garbi eta konstanteak) 2008-2020 epeko bilakaera




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoa. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI).

Bi faktorek areagotzen dute desberdintasun-maila: merkatuak sortzen duen lehen mailako pobreziaren tasen igoerak¹¹ eta pobrezia-tasa handiago horiek gutxitzeko gizarte-babeseke sistemak ezintasunak. Lehen mailako pobreziaren tasen igoera (merkatuak eragina), berriz, honen ondorioa da: langabeziaren eta lan-intentsitate txikiko egoeren areagotzearena (lanaldi partzialak eta behin-behineko enpleguak) eta soldata txikiak ordaintzearena.

Hurrengo grafikoa ikusten denez, % 18,3tik (2008) % 26,7ra (2020) igo da Euskadin 65 urtez azpikoen pobrezia larriaren tasa (prestazioak jaso aurrekoa). EBN, aldiz, apenas izan duen aldaketarik tasak; Espainian, berriz, % 25,8tik % 28,8ra igo da. Elkarrekin konparatutako hiru herrialdeetatik, zalantzarik gabe Euskadin izan da igoerarik handiena. Honenbestez, galdu egin du Euskadik alor horretan beste herrialdeekiko zeukan abantaila.

8. grafikoa. Transferentzien aurreko pobrezia-tasa larriaren bilakaera EAE, Espainia eta EBko 65 urtetik beherako herritarren artean. 2004-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoa. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI).

¹¹ Bi ikuspegitatik azter daitezke pobrezia- eta desberdinkeria-egoerak. Ohiko ikuspegiak —aurreko epigrafekoak— familien errenta erabilgarriari dagozkion pobrezia- eta desberdinkeria-adierazleak erakusten ditu. Hona zer den errenta eskuragarria: familien errenta propioak (lan- eta kapital-errentak) gehi erakunde publikoetatik jasotzen dituzten transferentziak (pentsioak, langabezia-prestazioak, gizarteratzeko gutxieneko errentak, prestazio familiarak eta abar). Familiek ordaintzen dituzten zuzeneko zergek murriztu egiten dute errenta eskuragarria, batez ere pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergak. Bigarren ikuspegia, berriz, lehen mailako pobreziaren tasei dagokie, hots, familien lehen mailako errenta dela eta (lana eta kapital-errentak) dauden pobrezia-tasei, kontuan hartu gabe transferentzien bidez edo ordaintzen dituzten zergen bitartez familiek dituzten diru-sarrerak. Prestazioak jaso aurretik familiek jasaten dituzten pobrezia-egoeren ikerketak aukera ematen du batik bat hau aztertzeko: zer bilakaera duen lan-merkatuak sortzen duen pobrezia- eta desberdinkeria-tasak, administrazio publikoaren esku-hartzeak zerga eta prestazio bidez zuzendu aurretik. Lehen mailako pobrezia-tasak aztertuta (prestazioak jaso aurrekoak) beste hau ere jakin daiteke: zenbatekoak diren administrazio publikoaren esku-hartzearen eta aberastasuna birbanatzeko politiken bidez gutxitu beharreko pobrezia-tasak.



Bestalde, gutxituz doa —pixkanaka— pentsioez bestelako gizarte-transferentzien bitartez pobrezia larria gutxitzeko ahalmena: PGDIaren datuen arabera, % 64,6tik (2008) % 52,3ra (2020) jaitsi da. EUSTATen Errenta Pertsonalari eta Familiarrari buruzko Inkestaren datuek ere antzeko ondorioa dakarkigute, kontuan hartuz gero gizarte-transferentzien gutxitzea 65 urtetik beherako herritarren errenta osoarekiko.

Garbia da, beraz, azterketaren ondorioa: EAEko babes sozialeko ereduaren eraginkortasunarekin batera, eredu produktiboa da Euskadiko pobrezia- eta desberdintasun-tasa txikien beste oinarri bat. Bi faktore horiei esker, ez dira oso handiak transferentzia aurreko pobrezia- eta desberdintasun-tasak, inguruko herrialdeekin konparatuta behintzat. Honenbestez, nahiko egoera ona —oro har— izan du Euskadik zenbait urtez, bai aurrebanaketari bai birbanaketari dagokienez. Azken urteotan, ordea, inguruko herrialdeetan baino gehiago hazi dira lehen mailako pobrezia-aren tasak, eta gizarte-babeseko eredu ez da gauza izan behar bezala aurre egiteko lan-merkatuaren funtzionamenduak eta kotizaziopeko babes-sistemak sortutako behar-egoeren areagotzeari. Hau da, hondatu egin da euskal egitura produktiboaren aurrebanaketarako ahalmena, eta ez dute behar bezala konpentsatu babes-sistemen birbanaketa-politikek (Zalakain, 2022).

2.1.3. Lan-merkatuari lotutako arazoaren bilakaera

2008ko finantza-krisiaren ondorioak gainditu eta 2015etik aurrera jarduera- eta enplegu-mailak berreskuratu ondoren, sekulako astindua jaso zuen Euskadiko lan-merkatuak 2020an, COVID-19aren pandemia, konfinamendua eta murrizketak zirela medio. 2021ean igo egin ziren enplegu- eta jarduera-mailak, baina 2020koak gainditu ere, baina 2022ko otsailetik aurrera Ukrainako gerrak sortutako egoera mehatxua bihurtu da Euskadiko enplegu- eta jarduera mailentzat¹².

Batez ere pobrezia-arekin eta gizarte-bazterketarekin zuzeneko lotura duten lan-merkatuko elementuei dagozkien jasotako datuak eta adierazleak.

a) *Langabezia eta prekarietatea, pobrezia-aren eta gizarte-bazterketaren oinarriko faktoreak*

Bistakoa da langabezia-aren, pobrezia-aren eta gizarte-bazterketaren arteko lotura, eta sarritan nabarmendu da. Aspaldi honetan, lan-aktibazioa izan da pobrezia-aren eta gizarte-bazterketari ekiteko tresna nagusia, hau da, enplegu-politika aktiboak bultzatzea lana aurkitzeko zailtasun handienak dituztenentzat. Langabeziak eta/edo lan-jarduerarik ezak funtsezko arrisku-faktoreak izaten jarraitzen dute pobrezia-ari eta bazterketari dagokienez, baina azken urteotan enpleguaren kalitatea ere elementu esanguratsua bihurtu da gizarte-inklusio eta -bazterketako prozesuetan. Izan ere, lanpostu bat eskuratze hutsa ez da jada pobrezia-etik eta gizarte-bazterketatik babesteko faktore erabakigarria, edonolakoak direla ere lanaren ezaugarriak.

Hona zer dioten enpleguari eta gizarte-inklusioari dagokienez Pobrezia-ari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) eta FOESSAren Gizarteratze-ari eta Behar Sozialei buruzko Inkestaren (EINSFOESSA) datuek:

- FOESSA metodologiaren arabera, enpleguari dagokionez bazterketa jasaten zuten familietan bizi ziren EAEko herritarren % 22 2021ean. Oro har, iraupen luzeko langabezia pairatzen duten familiak dira, eta/edo kide guztiak lanik gabe dituztenak, kontraturik eta Gizarte Segurantzari gabeko enpleguetan, bazterketa-enpleguetan¹³ eta laneko ezegonkortasun larriari jarduten direnak. Gizarte-bazterketari loturiko lan-merkatuaren adierazleetatik, laneko ezegonkortasun larriari dagokiona da nagusi Euskadin, eta 2018az geroztik gehiena hazi denetako bat¹⁴. 2018an, % 2,3 zen adierazlearen indizea; 2021ean, % 12,9.

¹² Handia da inpaktu hori, baina hemen jorratuko dugun informazioa 2021era bitartekoa da, txosten hau idaztean eskuragarri genituen datuak ordura artekoak baitira.

¹³ Hauek jotzen dira bazterketazko enplegutzat: etxez etxeko saltzaileak, salmenta ibiltari osagarriak eta salmenta ibiltari marjinalen aritzen direnak, kualifikaziorik gabeko etxeko langileak, nekazaritzako sasoioko peoiak, kartoiaren eta beste hondakin batzuen biltzaileak, propaganda-banatzzaileak, eskaleak.

¹⁴ Sostengatzaile nagusia aktibo duten familiak, bai eta laneko ezegonkortasun larriari ere (hiru kontratu edo gehiago, hiru enpresa edo gehiago edo hiru hilabete edo gehiago langabezia azken urtean)




- Gizarte-bazterketaren definizioak azaltzen digunez, zuzeneko lotura nabari da lanik ezaren, laneko ezegonkortasunaren eta gizarte-bazterketaren artean: pertsona aktibo guztiak lanik gabe dituzte gizarte-bazterketa pairatzen duten familien % 59,8k; biztanleria osoan, berriz, % 11,5 da portzentajea. Gizarte-bazterketaren definizioak azaltzen digunez, zuzeneko lotura nabari da lanik ezaren, laneko ezegonkortasunaren eta gizarte-bazterketaren artean: pertsona aktibo guztiak lanik gabe dituzte gizarte-bazterketa pairatzen duten familien % 59,8k; biztanleria osoan, berriz, %11,5 da portzentajea. Bestalde, sostengatzaile nagusiak enplegu bila ari diren familietako kideen % 91k bazterketa pairatzen dute; aldiz, % 8 da portzentajea sostengatzaile nagusiek lan egiten duten familietan.
- Beraz, pobrezia-arriskuari aurre egiteko babes-faktore esanguratsua da enplegua, batez ere enplegu egonkorra. PGDIaren datuen arabera, familiako pertsona helduek enplegu egonkorra duten etxeetan % 2,4 da langabezia-tasa erreala; familiako kideren batek enplegu ez-egonkorra duen etxeetan, berriz, % 15, eta % 54 pertsona aktibo guztiak langabezian daudenetan.
- % 5,4tik (2008) % 9,0ra (2020) igo da laneko pobrezia, hots, lana baduten arren pobrezia-egoeran dauden herritarren portzentajea, PGDIaren datuek diotenez.
- 2020an, % 7,6 zen lan-intentsitate txikian ziharduten Euskadiko herritarren portzentajea, 2014koa baino askoz txikiagoa (% 12) baina 2008koa baino handiagoa (% 5,6). Bestalde, 2020an % 72,5 zen pobrezia-aren arrisku-tasa lan-intentsitate baxuko herritarren artean.

b) *Bere horretan diraute jarduera- eta okupazio-tasek, eta behera egin dute langabezia-tasek*

Langabezia-, laneko prekarietate-, pobrezia- eta bazterketa-egoerez landa, jarduera-, okupazio- eta langabezia-egoeren bilakaeraren azterketa jaso behar du bazterketa-egoerei buruzko diagnostiko orok, aldagai horiek definitzen baitute enpleguari, trebakuntzari eta diru-sarreraren bermeari dagozkion politikak garatzeko oinarrizko eremua.

Grafiko honetako datuen arabera, jarduera-tasa pixka bat jaitsi zen 2015etik 2021era (% 57,9tik % 56,1era); okupazio-tasa, berriz, apur bat igo zen 2014tik 2021era (% 48,1etik % 50,5era), eta langabezia-tasa % 10 inguruan egonkortu da, 2014tik 2018ra jaitsi ondoren.

9. grafikoa. Euskadiko jarduera-, okupazio- eta langabezia tasen bilakaera. 2008-2021 (urteko batezbestekoa)



Iturria: EUSTAT. Biztanleria jardueraren arabera sailkatze inkesta (BJA).



Kontuan izateko moduko da, bestalde, gaur egun % 27 dela iraupen luzeko langabezia dauden portzentajea (enplegu bila bi urtetik gora daramaten langabeen ehunekoa); 2015ean, berriz, % 44,, eta % 9,9 2008an. Ikuspegi orokorrago batetik begiratuta, % 9,1etik (2014) % 3,0ra (2021) jaitsi da iraupen luzeko langabeziaren tasa, Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera.

c) Bere horretan dira lurren eta sexuen arteko langabezia-tasak direla eta

Jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruz aipatu berri ditugun datuek biztanleria osoari dagozkion batez besteko balioak jasotzen dituzte; beraz, ez dute aukerarik ematen lurraldez bakoitzeko egoerak eta errealitate sozio-demografikoak bereiz aztertzeke. Beheko taulan dituzue —gaiaren gaineko oinarritzko informazio gisa—2020ko langabezia-tasak, lurraldeka eta sexuka bereizita, EUSTATen Aktibitatearen Udal Estatistikako datuen arabera. Taulako datuek nabarmentzen dutenez, emakumeen langabezia-tasak gizonezkoak baino handiagoak dira EAEko eskualde guztietan: Gorbeialdean, adibidez, % 6,6 da gizonen langabezia-tasa, eta % 12,4 Enkarterrin; emakumeen tasa, berriz, % 7,7 Gorbeialdean, eta % 15 Arabako Errioxan.

1. taula. Euskadiko AEko 16 urteko eta hortik gorako herritarren langabezia-tasa, lurraldeka eta sexuka. 2020

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Euskadiko AE	10,1	9,2	11,1
Araba	10,4	9,0	11,9
Bizkaia	11,1	10,4	11,9
Gipuzkoa	8,4	7,4	9,5
Añana	9,5	8,3	11,0
Arabako Lautada	10,5	9,2	11,9
Arabako Mendialdea	7,0	6,5	7,8
Arratia-Nerbioi	9,5	8,5	10,6
Bidasoa Beherea	10,7	9,8	11,7
Bilbo Handia	11,6	10,9	12,3
Debabarrena	10,1	8,2	12,1
Debagoiena	7,5	6,6	8,4
Donostialdea	8,2	7,6	8,8
Durungaldea	9,0	7,9	10,3
Enkarterriak	12,4	10,6	14,4
Arabako Errioxa	11,9	9,6	15,0
Gernika-Bermeo	11,0	10,3	11,6
Goierni	7,7	6,2	9,6
Gorbeialdea	6,6	5,6	7,7
Arabako Kantaurialdea	10,8	8,9	12,9
Markina-Ondarroa	9,9	9,7	10,2
Plentzia-Mungia	8,9	8,2	9,7
Tolosaldea	7,5	6,2	8,9
Urola Kosta	8,0	6,7	9,4

Iturria: EUSTAT. Aktibitatearen Udal Estatistika.



Lurraldearen artean ez ezik, jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasei dagokienez ere alde handiak atzematen dira, datuak hezkuntzaren, adinaren eta nazionalitatearen ikuspegitik aztertuz gero. BJAREN 2021 OSORAKO DATUAK BERRIRO JORRATUTA, HONA EMAITZA: nabarmen handiagoak dira gizonen jarduera- eta okupazio-tasak emakumeenak baino, eta askoz handiagoak 25-44 urte bitartekoak gainerako adin-tarteetakoak baino. Bestalde, bereziki altuak dira langabezia-tasak 16 eta 24 urteko herritarren, lehen mailako ikasketak edo hortik beherakoak dituztenen eta atzerritarren artean —espainiar nazionalitatea daukatenean baino jarduera-tasa handiagoa dute atzerritarrek, baina baita langabezia-tasa askoz handiagoa ere (% 25,3 vs % 8,4).

2. taula. Euskadiko AEko 16 urteko eta hortik gorako herritarren jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasa, lurraldearen, sexuaren, hezkuntza-mailaren eta nazionalitatearen arabera. 2021

		Jarduera	Okupazioa	Langabezia
Sexua	Gizonak	60,9	54,9	9,8
	Emakumeak	51,7	46,4	10,3
Adina	16-24 urte	29,1	22,6	22,3
	25-44 urte	87,6	77,5	11,6
	45 urte edo gehiago	46,5	43,0	7,5
Ikasketamaila	Lehen mailakoak edo hortik beherakoak	35,4	30,7	13,3
	Bigarren mailakoak eta er-tainak	57,2	50,4	11,9
	Goi-mailakoak	79,2	73,9	6,6
Nazionalitatea	Espainiarra	55,0	50,4	8,4
	Atzerritarra	68,9	51,4	25,3
Guztira		56,1	50,5	10,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

d) *Prekarietatearen inpaktua: behin-behinekotasuna, lanaldi partziala, soldata txikiak eta soldata-arrakala* Langabeziarekin batera, enpleguaren kalitatea ere funtsezko elementua da gizarte-inklusioko eta -bazterketako prozesuak azaltzeko, pobrezia-egoeran dauden herritar askok lotura nahiko egonkorra baitaukate lan-merkatuarekin, lehenago ere aipatu dugunez. Izan ere, pertsona landun bat buru duen familia batean bizi dira gizarte-bazterketa pairatzen duten Euskadiko herritarren % 30, Gizarte Beharrei eta Gizarteratzeari buruzko FOESSAREN inkestaren arabera (2018an, % 55; beraz, talde horri eragin dio bereziki 2018-2021 epeko enplegu-suntsiketak). PGDIaren arabera, bestalde, mantenu-pobrezia jasaten duten familien % 41ek gutxienez pertsona landun bat daukate. Familia horietako % 34an langabezia daude kide guztiak; % 24an, berriz, pertsona heldu guztiak daude lanik gabe. Honenbestez, hau da Euskadiko pobrezia-eremuko talderik ugariena: enpleguarekin lotura gutxi asko egonkorra daukan pertsona bat gutxienez duten familiak.


Enpleguaren kalitatea, berriz, gutxienez hiru adierazle hauen bidez neur daiteke: lanaldiari (partzialtasuna), kontratuen iraupenari (behin-behinekotasuna) eta ordainsarien zenbatekoari dagozkionak. Badago joera bat zera pentsatzeko, enplegu-alorreko pobrezia soldata baxuei dagokiela batez ere, baina egoera horien azterketak garbi erakusten du lanaren intentsitateak duen garrantzia —egunean, hilean edo urtean lan egiten den ordu-kopurua— pobrezia-mota horretan (Domínguez Olabide, 2022).

Irudi honetan ikusten da zer bilakaera izan duten behin-behinekotasun eta partzialtasun-tasek Euskadiko biztanleria landunean.



- Datu-serieak erakusten digunez, % 20raino jaitsi ziren behin-behinekotasunaren tasak finantza-krisiaren garaian, eta behera egin zuen aldi baterako kontratua zuten langileen kopuruak ere, batez ere aldi baterako kontratua zutenek pairatu baitzuten enplegu-suntsiketaren zama. Ondoren —2012tik 2018ra— igo egin zen aldi baterako kontratuen kopurua eta tasa; 2020an, behera egin zuten, eta gora berriro 2021ean, suspertu egin baitzen enplegua pandemiaren lehenbiziko urtea amaitzean.
- Partzialtasunari dagokionez, behera egin du pixka bat lanaldi partzialeko kontratua dutenen portzentajeak iragan hamarkadaren erdialdetik, baina apur bat gora egin du egoera horretan dauden kopuruak 2021ean.

10. grafikoa. Euskadiko partzialtasunaren eta behin-behinekotasunaren tasaren bilakaera. 2008-2021 (urteko batezbestekoa)



Iturria: EInen Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI).

Aldi baterako kontratua duten herritarren kopuruak edo portzentajeak izandako bilakaera aztertu beharrean urte bakoitzean sinatzen diren aldi baterako kontratuen eta kontratu mugagabeen ehunekoari begiratu gero, zenbait datu interesgarri aurkitzen dira enpleguaren prekarietateaz. Lanbideren datuen arabera, 71.000 kontratu inguru sinatu ziren Euskadin 2021ean; horietatik, aldi baterakoak ziren % 90,6, eta lanaldi partzialekoak % 39,6. 2022ko lehenbiziko bi hilabeteetan —2021eko amaieran onartutako lan-erreforma indarrean sartu zenean—, ordea, % 18raino igo da kontratu mugagabeen portzentajea.

Nolanahi dela ere, diagnostiko honetako datuetan ez dira ageri 2022ko erdi aldera lan-araudiaren erreformak eragindako aldaketak. Lehenbiziko datuek adierazten dutenez, eragin nabarmena —eta positiboa— izan dute aldaketek behin-behinekotasun tasei dagokienez, eta asko igo da kontratazio mugagabea.

Soldatapeko langileen ordainsariei dagokienez, 12,27 euro garbitik 12,46ra igo da Euskadin batez besteko orduko ordainsari garbia (euro konstantetan), Lan eta Enplegu Saileko Estatistika Organo Espezifikokoak egiten duen Lan Baldintzen Inkestaren arabera. Hileko ordainsaria, berriz, 1.707 euro garbitik 1.661era jaitsi da (2020ko eurotan), hau da, batez beste % 2,6 jaitsi da soldatapeko langileen batez besteko erosahalmena (ikusi grafikoa).




3. taula. Euskadiko AEko soldatapeko langileek eta kidekoek lan-edukiagatik aurreko hilean kobratutako batez besteko soldata garbia (eurotan). 2009-2020 (euro konstantetan)

	2009	2013	2016	2020	2009-2020 epeko aldaketa (%)
Guztira	1.707	1.512	1.521	1.661	-2,7
Zuzendaritza	2.503	2.303	2.176	2.311	-7,7
Irakaskuntza (goi-mailako titulazioa)	2.158	1.809	1.842	2.027	-6,1
Osasun-zerbitzuak (goi-mailako titulazioa)	2.409	2.044	1.954	2.174	-9,7
Bulegoak (goiko maila eta ertaina)	1.939	1.675	1.749	1.810	-6,6
Komertzialak (goiko maila eta ertaina)	1.737	1.494	1.495	1.543	-11,1
Ekoizpen industrialia (goiko maila eta ertaina)	1.823	1.734	1.794	1.814	-0,5
Ekoizpen tertziarioa (goiko maila eta ertaina)	1.758	1.614	1.480	1.801	2,4
Bulegoak (behe-maila)	1.473	1.335	1.252	1.393	-5,4
Komertzialak (behe-maila)	1.264	1.027	1.089	1.161	-8,1
Ekoizpen industrialia (behe-maila)	1.565	1.396	1.429	1.506	-3,7
Ekoizpen tertziarioa (behe-maila)	1.137	984	970	1.037	-8,7
Beste lan batzuk	1.733	1.474	1.436	1.417	-18,2

Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzen Inkesta.

EINen Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkestaren arabera, berriz, dezente areagotu da Euskadin soldaten arteko aldea. Inkesta horretako datuek adierazten dutenez, % 15,4 igo zen EAEn langileko batez besteko irabazia 2009tik 2019ra (euro korrontetan); irabazi ertaina, berriz, % 12,7. Alabaina, soldata txikiak zituzten langileen % 25ek (behe-kuartila) % 10eko igoera izan zuten; soldata handienak zituzten % 25ek (goi-kuartila), berriz, % 18,4koa. Bestalde, soldata txikiak zituzten langileen % 10ek (10 pertzentila) % 7,5eko soldata-igoera izan zuten epe horretan; soldata handienak zituztenen % 10ek (90 pertzentila, berriz, % 16,7koa. Kontuan harturik epe horretan % 12,7 igo zela KPIa, maila ertainetik beherako soldatak zituzten langileek erosahalmena galdu zuten; ertainetik gorakoak zituztenek, aldiz, irabazi, gutxi edo asko.

11. grafikoa. EAEko langileen batez besteko irabaziaren bilakaera, pertzentilka eta kuartilka, 2009-2019 epean



Iturria: EIN. Soldata Egiturari buruzko Urteroko Inkesta.



Azkenik, EUSTATen Errenta Familiarrari eta Pertsonalari buruzko Inkestak zenbait ezaugarri soziodemografikoren arabera konparatzen ditu EAEko herritarren laneko errenten bilakaera eta maila. Inkesta horretako datuek azaltzen dutenez, Euskadin jaiotako herritarrek eta 45-54 urte bitartekoek dute batez besteko lan-errenta pertsonal handiena. 2009-2019 epean, % 10ekoa izan zen batez besteko errenta pertsonalaren aldaketa; igoera handienak, berriz, emakumeek, urte gehiena dituztenek eta immigranteek izan zituzten. Komeni da gogoratzea talde bakoitzeko herritarrek jasotzen dituzten lan-errentak talde horretako kide guztiekin zatitzen dituela inkesta horrek; hori dela eta, talde bakoitzaren okupazio-tasak, haien lan-intentsitateak (zenbat lanordu urtean) eta ordainketa-mailak adierazten dituzte emaitzek.

4. taula. Laneko diru-sarrerek EAEn sortutako batez besteko errenta pertsonala, sexuaren, adin-tartearen eta sorlekuaren arabera sailkatuta (2019)

		€	2009-2019 epeko aldaketa (%)	Guztira = 100
	Guztira	13.563	10,4	100,0
Sexua	Gizonak	16.876	4,9	124,4
	Emakumeak	10.510	20,5	77,5
Adina	18-19 urte	791	15,3	5,8
	20-24 urte	5.083	0,8	37,5
	25-29 urte	13.782	7,6	101,6
	30-34 urte	17.176	3,1	126,6
	35-39 urte	19.646	11,8	144,8
	40-44 urte	22.284	20,3	164,3
	45-49 urte	23.064	16,0	170,1
	50-54 urte	22.919	12,0	169,0
	55-59 urte	22.296	16,2	164,4
Sorlekua	60-64 urte	14.101	54,4	104,0
	Araba	23.977	15,0	176,8
	Bizkaia	24.879	17,4	183,4
	Gipuzkoa	26.804	20,8	197,6
	Beste lurralde batzuk	20.763	12,6	153,1
	Atzerria	9.706	31,9	71,6

Iturria: EUSTAT. Errenta Pertsonalari eta Familiarrari buruzko Inkesta.

- e) *Zerbitzu soziosanitarioak eta hezkuntza-alorrekoak dira enpleguaren aldetik gehiena hazten ari direnak, lehen sektorearekin eta ostalaritzarekin batera.*

Azkenik, Inklusiorako V. Planaren testuinguru sozioekonomikoa aztertzeko, EAEn sortzen den enpleguaren ezaugarri ere begiratu behar zaie, labor bada ere, eta ikusi behar da zein diren gehiena hazi diren jarduera-sektoreak Gizarte Segurantzarako afiliatioari dagokionez. Horretarako, beheko taulan ageri da Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean afiliatuta daudenen kopurua, jarduera-sektore handitan sailkatuta, 2009-2015, 2015-2022 eta 2009-2022 epeetan, eta zer pisu duen afiliatioak sektore horietan aztertutako hiru epeetako bakoitzean.



Taula honetan ikusten denez, eraikuntza izan zen krisi-garaian afiliatu gehiena galdu zituen sektorea (-% 47); ondoren, industria, energia eta ura (% 22,1). Epe horretan, % 33tik % 26ra jaitsi zen Gizarte Segurantzaren erregimen orokorreko afiliazioa jarduera-sektore horietan. Garai berean, hezkuntza- eta kultura-zerbitzuetan eta ostalaritzan igo zen gehiena afiliazioa. Hurrengo fasean —COVID-19aren pandemia ere barne dela—, berriz, sektore hauek hazi ziren gehiena: lehen sektorea, garraioak, informazioa eta komunikazioa, jarduera zientifiko-teknikoak, osasun-arloa eta gizarte-zerbitzuak, hezkuntza eta kultura. Epearen amaieran, afiliazioaren % 25 zeukaten industriak eta eraikuntzak; hasieran, berriz, % 33.

la 55.000 afiliatu gutxiago zeukaten bi sektore horiek 2009-2022 epearen amaieran (245.000 afiliatu 2009an, 190.000 2022an), 2015etik 2022ra 12.000 afiliatu inguru berreskuratu bazituzten ere. Aitzitik, 12.000 afiliatu gehiago ditu ostalaritzak, eta 75.000 gehiago administrazioarekin, kulturarekin, hezkuntzarekin eta gizarte-zerbitzuekin zuzeneko lotura duten sektoreek.

5. taula. EAEko afiliazioaren banaketa eta afiliatu-kopuruaren bilakaera, jarduera-sektoreka, 2009an, 2015ean eta 2022an

	2009	2015	2022	Ald. 09/15	Ald. 15/22	Ald. 09/22
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	0,1	0,1	0,1	15,3	20,1	38,5
Industria, energia eta ura	25,3	21,8	19,9	-22,1	5,3	-18,0
Eraikuntza	7,7	4,5	4,6	-47,3	16,1	-38,8
Merkataritza	13,1	13,5	12,4	-7,0	6,5	-0,9
Garraioak	4,2	4,0	4,3	-13,4	23,3	6,7
Ostalaritza	5,1	6,3	6,4	11,5	16,5	29,9
Informazioa eta komunikazioa	2,6	2,5	2,8	-13,3	25,7	9,0
Finantzak, aseguruak eta higie-zinen agentziak	2,8	2,6	2,0	-16,4	-12,3	-26,7
Jarduera zientifiko-teknikoak	4,8	5,3	5,7	-0,1	23,1	23,0
Herri-administrazioa	13,8	14,8	14,6	-3,2	13,6	9,9
Hezkuntza	6,9	8,6	9,5	13,0	27,2	43,7
Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	9,9	11,6	13,5	6,0	34,0	42,0
Kultura	1,3	1,7	1,9	16,2	28,2	49,0
Beste zenbait	2,4	2,8	2,3	1,9	-2,7	-0,9
Guztira	100,00	100,00	100,00	-9,6	15,0	3,9

Iturria: EUSTAT. Errenta Pertsonalari eta Familiarrari buruzko Inkesta.

2.1.4. Etxebizitari eta bizitegi-bazterketari lotutako arazoaren bilakaera

Enpleguarekin batera, etxebizitzaren eskuragarritasuna faktore erabakigarria da Euskadiko inklusio eta bazterketa sozialeko gizartera eta gizarte-bazterketako prozesuetan. Gizarte-bazterketako egoerak prebenitu eta saihesteko garatu behar diren etxebizitza-politiken testuingurua zehaztearren, atal honetan hau aztertuko dugu lehenbizi: etxebizitzaren alorrean dauden gabezia-egoeren eta gizarte-bazterketakoen artean dagoen loturari buruzko datuak. Ondoren, gai hauen gaineko oinarritzko datu batzuk aipatuko ditugu: Euskadiko etxebizitza-eskaria eta -beharra, prezioen bilakaera (etxeak erosteko zein alokatzeko prezioak), maizter-botatzeen kopurua eta, azkenik, zenbat jende dagoen Euskadin etxerik gabe edo bizitegi-bazterketa larria pairatzen.

- a) *Enpleguaren ondoren, etxebizitza da eguneroko bizimoduan Euskadin bazterketa-gehiena eragiten dituen faktorea*



FOESSAren inkestako datuen arabera, Euskadiko herritarren % 17,2k gabeziak zituen 2021ean etxebizitzari dago-kionez; 2018an, % 18,2k. Enpleguaren atzetik, etxebizitza da gabeziaren bat pairatzen duten herritar gehiena di-tuen arloa —inkestak jorratzen dituenetatik—eta, honenbestez, Euskadiko eguneroko bizimoduan bazterketa-egoera gehiena eragiten dituenetako bat. Gizartetik baztertera geratzeko arriskuan dauden herritarren artean, askoz gehiago dira (% 75) etxebizitzarekin lotutako arazoak dituztenak biztanleria osokoen artean baino: gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden lau lagunetik hiruk arazoak dituzte etxebizitza bat eskuratzeko edo dauka-nenari eusteko. Ez da harritzekoa, gizarte-bazterketarako faktoretzat jotzen baita bizitegi-alorreko gabeziak izatea.

Beheko taulan dituzue etxebizitzaren arloko FOESSAren adierazleak, bai EAEko biztanleria osoari bai gizartetik baz-tertera geratzeko arriskuan dauden herritarrei dagozkienak. Taulan ikusten denez, hau da bizitegi-arloan EAEko herritarrei gehiena eragiten dien arazoa: etxebizitzaren gehiegizko gastuak¹⁵, zeinek familien % 12,4ri eragiten baitiete (2018an, % 10i; Espainia osoan, % 14,2ri). Bazterketa-egoeran daudenen artean, berriz, % 57,7 dira egoera hori jasaten dutenak.

Askoz atzerago, etxebizitzaren osasungaitzasunarena da EAEko herritarren portzentaje handi bati eragiten dion bigarren adierazlea (hezetasuna, usain txarrak eta abar). Familien % 4ri eragiten die egoera horrek; Espainian, % 7,2ri. Bazterketa-egoeran daudenen artean, berriz, % 14,8 dira egoera hori jasaten duten familiak. Bestalde, jende-pilaketa larria pairatzen dute EAEko familien % 3,7k (2018an, % 1,9k).

6. taula. Etxebizitzaren arloan zenbait bazterketa-arazo pairatzen dituzten EAEko familien portzentajea, bai gizarte-bazterketako egoeran daudenak bai guztiak kontuan hartuta. 2021

Adierazleak	Biztanleria osoa	Gizarte-bazterketa pairatzen duen biztanleria
Infraetxeetan bizi diren familiak	0,3	1,1
Eraikuntza aldetik gabezia larriak dituzten etxebizitzetan bizi di-ren familiak	1,2	3,0
Osasungaitzasuna jasaten duten familiak: hezetasuna, zikinkeria eta usain txarrak	4,0	14,8
Jende-pilaketa larria pairatzen duten familiak (< 15 m ² pertso-nako)	3,7	17,6
Etxebizitza ordaintzeko arazo larriak dituzten familiak	2,1	11,5
Ingurune oso hondatuan bizi diren familiak	1,2	4,5
Mugikortasun murriztuko pertsonak eta oztopo arkitektoniko-dun etxeak dituzten familiak	1,1	3,6
Etxebizitzak gehiegizko gastua eragiten dien familiak	12,4	57,7
Bizitegi-bazterketa jasaten duten herritarrak	17,2	75,5

Iturria: EINSFOESSA 2021.

b) Jaitsi egin da etxebizitza-eskaria Euskadin, eta igo egin dira etxebizitzak erosteko eta alokatzeko prezioak

Gizarte-bazterketako egoeren eta etxebizitzaren alorreko beharren arteko loturaz landa, kuantifikatu egin behar dira Euskadiko etxebizitza-eskaria eta etxeak erosteko zein alokatzeko prezioen bilakaera, etxebizitzaren alorreko gizarte-bazterketaren prebentzioa planifikatu ahal izateko. Etxebizitza-eskariari dagokionez, jaitsi egin da azken hamarkadan etxebizitza bat eskuratzeko beharra duten familien portzentajea eta etxea birgaitzeko premia dute-nena (2019ra arteko datuak); aldiz, igo egin da etxer aldatzeko beharra duten familien ehunekoa. Guztira, 200.000


¹⁵ Familia hauek ageri dira adierazle horretan: etxebizitza-gastuak ordaindu ondoren pobrezia larriaren atalasetik beherako diru-sarrerak dituztenak.



bat familiak zituzten behar horiek 2019an, EAeko familien % 25 inguruk. Etxebizitzen beharren eta eskariaren inkestaren arabera (EBEI), Bizkaia da etxebizitza-beharrak dituzten familia gehieneko lurraldea (% 25); gutxiena dituen, berriz, Araba (% 18).



12. grafikoa. Etxebizitza eskuratzeko, aldatzeko edo birgaitzeko beharra duten EAEko familien portzentajearen bilakaera. 2005-2019




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Etxebizitzaren beharrei eta eskariei buruzko inkesta (EBEI)

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzaren Behatokiak zabalduko datuen arabera, 2012ko amaieran 2.787 euroan zegoen etxebizitza berrien metro koadroa; 2021ean, berriz, 3.309an, eta 2016tik 2021era % 23 igo da. Etxebizitza erabiliei dagokienez, % 17 igo dira prezioak epe horretan (2.406 eurotik metro koadroko 2.832 eurora).

EAEko errentako etxeen batez besteko prezioa, berriz, hilean 636 eurotik (2016) 702ra (2021) igo da, hots, % 10 handitu da prezioa bost urteko epean.

13. grafikoa. Zer bilakaera izan duten EAEko etxebizitza berrien zein erabilien metro koadroaren prezioak merkatu librean eta alokairu libreko etxebizitzaren batez besteko prezioak. 2012-2021




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Higiezinaren salerosketari buruzko estatistika.



c) *Egonkor diraute etxebizitzarekin lotura duten gabezia-egoerek*

Etxebizitzaren tamainari dagokionez, berriz, bizitegi-tako gabeziei eta zailtasunei buruzko zenbait datu ere jaso dira: etxe barruko tenperatura egokia ez izatea; alokairua, hipoteka edo kreditua ez ordaintzea edo berandu pagatzea; hornidurak etetea edo gabeziak izatea etxearen oinarrizko ekipamenduak... Adierazle horietatik, azken neguan jasandako hotza da gehiena aipatzen dena (biztanleriaren % 6,9ri eragin zion 2020an). Horren atzetik dator hornidurak ez ordaintzea (biztanleriaren % 5,6). Aztertutako epean, jaitsi egin da lau adierazleen inpaktua, edo, gehienera ere, bere horretan iraun.

14. grafikoa. Etxebizitzari lotutako Euskadiko gabezia-egoera batzuen bilakaera. 2008-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI).

Ezin aipatzeko utzi, bestalde, Euskadiko etxebizitza-parkearen irisgarritasun-baldintzak, haien mende baitaude muga funtzionalak eta/edo desgaitasunak dituztenen gizarte-inklusioko aukerak. Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko EINen 2020ko inkestako datuen arabera, Euskadiko desgaituen % 12k irisgarritasun-arazoak dituzte etxearen barruan (logelara, bainugelara, sukaldara iristeko oztopoak; txirrina ez entzutea...); % 22k, eraikineko beste toki batzuetan (ataria, eskailerak, igogailua, patioa, garajea eta abar), eta % 19k etxearen/eraikinaren inguruetan eta sarbideetan. Desgaituen % 28k arazoak dituzte aipatutako leku horietatik batean, gutxienez.

d) *Jaitsi egin da etxegabetzeen kopurua, baina igo bizitegi-bazterketako egoerena*

Etxebizitza-eskariaren eta -prezioaren bilakaera ez ezik, bazterketa-egoeren eta etxebizitza-alorraren arteko loturari dagozkion beste hiru alderdi ere aztertu behar dira:

- etxegabetzeen eta maizter-botatzeen bilakaera,
- etxebizitza ez-seguruen eta desegokien bilakaera,
- eta bizitegi-bazterketaren edo etxegabetasunaren bilakaera.

Lehenbiziko gaiari dagokionez, azken urteotan jaitsi egin da Euskadin maizter-botatzeen kopurua, Botere Judizialak horretaz egiten dituen estatistiken datuen arabera. Autonomia-erkidego bakoitzean botatzeek izandako bilakaera jasotzen duen txostenean ageri dira datuak. Txostenaren egilea, berriz, Etxebizitzaren Euskal Behatokia da (Etxebizitzaren Euskal Behatokia, 2021).



2020an, 669 izan ziren maizter-botatzeak, 2019an baino % 35,8 gutxiago eta 2013tik —gutxienez— urtero egin-dakoak baino askoz gutxiago (milatik gora urtean). Dena dela, datuok adierazten dutenez benetako jaitsiera erre-gistratutako kopurua urte hartako bigarren hiruhilekoan izan zen (21 maizter-botatze bakarrik), eta 2020ko hiru-garren hiruhilekotik aurrera gora egin zuen: 253 botatze izan ziren 2021eko bigarren hiruhilekoan. Botatzeen zer-gatiei dagokienez, errenta ez ordaintzea da ohikoena: 2020an, kopuru osoaren % 82,7 izan ziren; hipoteka-betea-razpenak, berriz, % 11,4. Autonomia-erkidegoen egoerak elkarrekin konparatuta eta 10.000 biztanleko egindako maizter-botatzeen ratioa kontuan hartuta, hona emaitza: Euskadi da maizter-botatze gutxieneko autonomia-erki-degoa, datu estatistiko ofizialak daudenetik aztertutako datuen arabera, bai metatutakoak bai urte bakoitzekoak. 2020an, zehazki, hamar mila biztanleko hiru botatze izan zen Euskadiko ratioa; estatu osokoa, berriz, 6,2.

Etxe desegokiei eta segurtasunik gabekoei dagokienez, berriz, Euskadiko gizarte-bazterketaz FOESSAk eginiko in-kestak aukera ematen du egoera horiek pairatzen dituzten herritarren portzentajea aztertzeko, ETHOS tipologiari jarraikiz.¹⁶ Txostenaren datuek adierazten dutenez, EAEko herritarren % 4,7ri eragiten diete segurtasunik gabeko etxebizitzaren egoerek; etxebizitza desegokienez, berriz, % 8,5i. Gizarteratze-prozesuan dauden herritarren kasuan, % 1,5 eta % 3,2 dira portzentajeak, hurrenez hurren; bazterketa-egoerak jasaten dituztenen artean, berriz, % 21,0 eta % 35,3, hurrenez hurren. Ia kasu guztietan, txikiagoak dira EAEko portzentajeak Espainia osokoa baino.

Bilakaera aztertuta, areagotu egin da etxebizitza desegokiak eta segurtasunik gabeak dituzten EAEko herritarren portzentajea: 2018tik 2021era, % 3,5etik % 4,7ra igo zen bizitegi-egoera desegokia jasaten zuten EAEko herrita-rraren ehunekoa; etxebizitza ez-seguruetan bizi diren herritarrena, berriz, % 7,2tik (2018) % 8,5era (2020). Termino absolututan adierazita, EAEko 39.600 familia eta 104.000 herritar bizi dira etxebizitza ez-seguruetan; etxebizitza desegokietan, berriz, 52.600 familia eta 187.300 herritar (FOESSA Fundazioa, 2022).

Bizitegi-bazterketari buruzko datuei dagokienez, azkenik, batez ere etxerik gabeko herritarrei buruzkoak dira. EA-Eko hogeita udalerritan —hiru hiriburuak barne direla— bi urtez behin egiten den zenbaketan jasotzen dira datuak, eta 2020koak dira azkenekoak, maiatzaren 6tik 10era bitartean bilduak, COVID-19aren pandemiagatik ezarritako konfinamenduaren garaian. Aurreko zenbaketatik ageri ez ziren —edo soilik zeharkako aztarnen bidez detektatu ziren— zenbait etxegabe azaldu ziren orduko hartan eta, honenbestez, gora egin zuen zenbatutako etxegabeen kopuruak. Dena dela, handitzen ari zen kopurua lehendik ere, seriearen hasieratik.

Elementu hori kontuan harturik, hona bizitegi-bazterketa pairatzen duten herritarren zenbaketak azalera dituen datu esanguratsuenak (GIIZ, 2022):

- 2.797 herritarrek jasaten dute bizitegi-bazterketa larria; horietatik, portzentaje oso txiki batek (% 5,8) ka-lean bizitzen jarraitzen zuten —zenbait arrazoi zirela medio—, konfinamendua gorabehera. Etxegabeen % 12,5 aterpetxeetara eta harrera-egoitza arruntetara joaten ziren; % 30,2, berriz, pandemia zela eta prestatu ziren egoitza berezietakoren batera. % 6 indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-egoitzetara joaten ziren, eta % 45,4 gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dau-den gizarte-zerbitzuetako zenbait ostaturara. Ia 2.800 etxegabe zenbatu ziren; horietatik, % 13 Araban (372), % 53 Bizkaian (1.468) eta % 34 Gipuzkoan (957).
- Ikerketa horretatik eta zenbait udalen txostenek ematen duten informazio osagarritik hainbatean behin jasotzen diren datuak aztertuta, hona emaitza: etxegabeei buruz —hots, kalean, aterpe arruntetan eta, salbuespen gisa, pandemia-garaian prestatutako egoitzetan bizi diren herritarrei buruz— 2020an bildu-tako datuek aurreko urteetako joerari eusten zioten, hau da, areagotzen ari den egoera bat adierazten zuten. Batez ere Bilbon nabari da joera, eta leunagoa da Gasteizen eta Donostian, bai eta, Gipuzkoa eta Bizkaiko beste udalerririk handirik ez diren eremuak ere.

¹⁶ Alor horri dagokionez, egoera hauetakoren bat jasaten duten etxebizitzak jotzen dira ez-segurutzat: (a) etxebizitzaren prekarioko edukitza (beste pertsona edo erakunde batzuek doan lagatutakoa, berriz alokatutakoa, legez kanpo okupatua); (b) arazo ekonomikoak direla eta etxetik kanporatuak izateko mehatxuak jaso dituzten familiak azken urtean (berehala kanporatutakoak ala ez); eta (c) familiako kideren batek txar fisikoak edo psikologikoak jasan dituzten azken urtean. Bestalde, egoera hauetakoren bat jasaten duten etxebizitzak jotzen dira desegokitzat: (a) infraetxe bat da (txabola, etxabera, barrakoa, aurrefabrikatua edo antzekoa); (b) eraikuntza aldetik gabezia larriak dituzten etxebizitzak, edo auri-egoeran dago; (c) jende-pilaketa larria jasaten duen familiak (<15m² pertsonako); (d) ingurune oso hondatu batean dagoen etxebizitza; eta (e) etxe-bizitzak ez dauka oinarriko ekipamendu eta hornidurarik (txorrotako ura, ur beroa, energia elektrikoak, ur zikinak husteko instalazioak).



Egoera horretan zeuden herritarretatik (haien gaineko nahikoa informazio zegoenetatik, bederen) % 22 emakumeak ziren; % 36k, berriz, 29 urte baino gutxiago zituen, eta % 67 atzerritarrak ziren.

- Bilakaera aztertuta, ez zen atzeman aldaketa handirik etxerik gabeko emakumeen kopuruan eta portzentajeetan. Kanean, aterpeetan, harrera-egoitzetan eta pandemia-garaiko konfinamendurako prestatutako egoitzetan lo egiten duten emakumez ari gara. EAEko hiru hiriburuetakoko 2016-2020 epeko datuak batera aztertuta, ikusten da jaitsi egin dela apur bat emakumeen pisu erlatiboa (2016an, % 13; 2018an, % 11; 2020an, % 9). Epe horretan, % 90 areagotu zen etxerik gabe zeudenen portzentajea, askoz ere gehiago gizonena (% 102) emakumeena baino (% 34).
- Aurreko azterketetan atzemandako joerari jarraikiz, 2020an jasotako informazioak ere honako hau nabarmendu zuen: pisu espezifiko handia dutela 18-29 urte bitarteko gazteek aipatutako egoera jasaten dutenen artean. Izan ere, 2016-2020 epean 121 lagunetik 235era igo zen gazte etxegabeen kopurua; iaz, berriz, 400era. Beste adin-tarte batzuekin alderatuta gazteen portzentajea horrenbeste igo izanaren eraginez, % 25etik (2016) % 37ra (2020) igo da gazte etxegabeen portzentajea. Hiru hiriburuetatik, Bilbo da —nabarmen, gainera— gazte etxegabe gehiena dituen (% 40). Berrito diogu: etxerik gabeko herritarrez ari gara, hots, kanean, aterpeetan, gaueko harrera-egoitzetan eta COVID-19aren garaian prestatutakoetan lo egiten dutenez.
- Etxegabeen jatorriari dagokionez, ezin aipatu gabe utzi geroz eta gehiago direla atzerritarrak aipatutako bizitegi-bazterketako egoerak pairatzen dituzten artean. Hiru hiriburuetakoko datuak konparatuta, hona bilakaera: 2016an, % 63 ziren etxegabe atzerritarrak; 2018an, % 69, eta 2020an, % 72. Bilbok izan zuen hazkunderik handiena 2016-2020 epean: 180 atzerritar 2016an, 521 2020an (% 69tik % 75era).

2.1.5. Osasunari lotutako arazoaren bilakaera

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arabera, bizi-itxaropenaren igoerak eta desgaitasunaren jaitsierak pribilegi-ozko posizio batean jarri dute EAE nazioartean, herritarren osasun-egoerari dagokionez. Alabaina, talde sozial guztietara ez dira neurri berean iritsi lorpen horiek. Beste herrialde batzuetan bezala, gurean ere aurre egin behar zaie osasun-alorreko desberdintasun sozialei, gizarte kohesionatuagoa eta osasuntsuagoa izan dezagun. Herritarrek euren klase soziala, sexua, sorlekua edo etnia dela eta osasun-aukera eta -baliabide desberdinak izatea, horra osasun-arloko desberdintasun sozialen definizioa. Luzaro irauten dute desberdintasunek, eta zuzenean eragiten diete euskal gizartearen inklusio eta bazterketa sozialeko egoerei.

Definizio hori abiapuntu duela, bi ataletan banatu dugu epigrafe hau: lehenbizikoan, desberdintasun sozialek EAEko biztanleriaren osasunean eta hilkortasunean duten eraginari buruzko informazioa jaso da, EAEko Osasun Inkestako (EAEOI) datuekin eginiko azterketen bidez batez ere; bigarrenean, berriz, osasun-arazoaren eta gizarte-bazterketako egoeren arteko lotura aztertu da, Euskadiko gizarte-integrazioari buruzko FOESSA Fundazioaren inkestako informazioa erabilita.

a) *Bere horretan diraute Euskadiko herritarren osasunarekin eta hilkortasunarekin lotutako desberdintasun sozioekonomikoei*

Bidegabeak eta saihegarriak dira osasun-arloko desberdintasun sozialak, eta ezaugarri sozial, ekonomiko, demografiko edo geografiko jakin batzuek dituzten taldeek jasaten dituzte. Ez dituzte aukera eta baliabide berak izaten pertsonak —zer klase sozialetakoak diren, emakumeak ala gizonak, non jaiotakoak edo zein etniatakoak...—, eta horren ondorio dira osasun-alorreko desberdintasunak (eta batzuen osasuna beste batzuen baino okerragoa izatea). Al-datu egiten da desberdintasunen maila herrialde batzuen eta besteen artean, bai eta denboran zehar ere; beraz, saihegarriak dira gehienak (Montoya et al, 2021).

Hilkortasunari dagokionez, hona zer dioten Osasun Sailaren azken txostenek; gizonei dagokienez, lotura nabarmena dago bizi diren tokiaren eta hiltzeko arriskuaren artean, hots, handiagoa da gizonezkoak hiltzeko arriskua ingurune geografiko behartsuenera. Gizonen artean, % 7,2 da desberdintasun egotz dakiekeen heriotzen tasa (% 5etik % 9,5era bitarteko heina). Emakumeen artean, berriz, ez zen orain arte hain nabarmen ikusten eragin



hori; dena dela, azken urteotan gora egin du haien hiltzeko arriskuak ingurune behartsuenetan —ez guztietan—, heriotza eragiten duten faktore nagusietako batzuei dagokionez (Montoya et al, 2021).

Osasun-egoerari dagokionez, berriz, hau diote datuek: zenbat eta apalagoa maila sozioekonomikoa, orduan eta okerragoa osasuna. Oro har, ona da Euskadiko herritarren osasun-egoera (gizonen % 85,4k eta emakumeen % 81,8k diote osasun ona edo oso ona dutela), baina badago alderik herritarren artean. Txikiagoa da osasun-egoera ona duten herritarren portzentajea klase sozial baxuenetan, jaitsi egiten da osasun onaren maila hierarkia sozialean behera egin ahala. Gradiente sozial osoan gertatzen da jaiste hori, eta 8,7 puntukoa da gizonen artean klase altuenaren (I) eta baxuenaren (V) arteko tartea; emakumeen artean, berriz, 12,8 puntukoa (González-Rábago et al, 2019)¹⁷.

Bestalde, ondorio hauek eragiten dituzte osasun-arloko desberdintasunek: gaixotasun kronikoen prebalentzia handiagoa, desgaitasun-egoerak, osasun mentaleko arazoak eta aho-hortzetako osasun txarra baliabide ekonomiko gutxieneko herritarren artean. Ondorio hauek nabarmentzen dituzte desberdintasun horietaz gure ingurunean egindako zenbait ikerketak:

- Ohikoagoak izaten dira gaixotasun kronikoak gizarteko talde behartsuenetan. EAEn, gaixotasun kronikoen prebalentzia handiagoa dakar berekin klase sozial baxu batekoa izateak, ikasketa-maila txikia edukitzeak, sozioekonomikoki apala den ingurune batean bizitzeak eta hilaren amaierara iristeko arazoak izateak, klase sozial altuago batekoekin alderatuta (González-Rábago y Martín, 2019b)¹⁸.
- Bestalde, zenbat eta baxuagoa Euskadiko herritarren maila sozioekonomikoa, orduan eta handiagoa haien desgaitasun-maila (Mortueruel eta Martín, 2019c). Izan ere, desgaitasunik gabe bizi diren herritarren portzentajea txikiagoa da hierarkia sozialean gora egin ahala, eta oso nabarmena da aldea muturreko klase sozialean: 7,5 puntukoa da klase altuenaren (I) eta baxuenaren (V) arteko gizonen artean, eta 6,8koa emakumeen artean. Hau da, klase behartsuenetako gizonen artean % 105,6 handiagoa da desgaitasunaren prebalentzia klase sozial altuenekoen artean baino; klase baxueneko eta altueneko emakumeen artean, berriz, % 84koa da aldea. Desgaitasunaren banaketa herritarren ikasketa-mailaren arabera aztertuta ere tankera bertsuko desberdintasunak ikusten dira.
- Maila sozioekonomikoak okerrera egin ahala, hala egiten du osasun mentalak ere Euskadin, batez ere emakumeen artean (Mortueruel eta Martín, 2019b; 2019c). Klase sozial altuenetako herritarren artean handiagoa da antsietate- eta depresio-sintomarik ez duela diotenen portzentajea. Desgaitasunaren kasuan bezala, txikiagoa da horrelako arazorik ez dutenen portzentajea hierarkia sozialean gora egin ahala, eta oso nabarmena da aldea muturreko klase sozialen artean, bereziki emakumeei dagokionez. Emakumeen artean, 14,2 puntukoa da klase sozial altuenaren (I) eta baxuenaren (V) arteko tartea; gizonen artean, berriz, 6,4koa. Halaber, gutxiago dira antsietate- eta depresio-arazorik ez dutela diotenen portzentajea gabezia sozioekonomikoaren maila handiko inguruetan bizi diren herritarren artean ingurune aberatsagoetan bizi direnen artean baino: ingurune aberatsuetakoak jendeak pobreetakoak baino arazo mental gutxiago izaten du.

¹⁷ Egile berek diotenez, gradiente sozial gisa ere banatzen da osasuna ikasketa-mailaren arabera aztertzen bada: ikasketa-maila altueneko taldeetan dago osasun-egoera ona duten herritarren portzentajerik handiena, hau da, bigarren hezkuntzako goi-mailako ikasketak eta unibertsitate-ikasketak dituztenetan. Gizonen zein emakumeen artean, hau da jauzi nagusia: bigarren hezkuntzako behe-mailako ikasketak eta bigarren hezkuntzako goi-mailakoak dituztenen artekoa (ia zazpi puntukoa gizonen artean, hamaika puntutik gorakoa emakumeen artean). Errepikatu egiten da gizarte-eredu hori bizitokia dagoen inguruneko gabezia sozioekonomikoaren arabera aztertzen badira osasun-arloko desberdinkeriak, hots, aztertutako desberdinkerien ardatza herritarrek bizi diren ingurunea baldin bada, ez haien ezaugarri pertsonalak. Zenbat eta handiagoa gabezia-maila ingurune batean, orduan eta txikiagoa osasun ona duten biztanleen portzentajea. Bestalde, emakumeen artean argiagoak dira gizonen artean baino bizitokia dagoen ingurunearen maila sozioekonomikoaren arabera aldea (González-Rábago et al, 2019b).

¹⁸ Gaixotasun kronikorik gabe bizi diren portzentajea handiagoa da hierarkia sozialean gora egin ahala, eta emakumeen artean oso nabarmena da alde hori. Emakumeen artean, 16,1 puntukoa da klase sozial altuenaren (I) eta baxuenaren (V) arteko tartea; gizonen artean, berriz, 7koa. Hau da, klase behartsuenetako gizonen artean % 14,8 handiagoa da gaixotasun kronikoen prebalentzia klase sozial altuenekoen artean baino; klase baxueneko eta altueneko emakumeen artean, berriz, % 35,8koa da aldea. Kronikotasunaren banaketa herritarren ikasketa-mailaren arabera aztertuta ere tankera bertsuko desberdintasunak ikusten dira. Biztanleria dagoen inguruneko ezaugarri sozioekonomikoak errepikatuta, berriz, bai gizonen bai emakumeen artean errepikatzen den gizarte-eredu bat erakusten digu EAeko gizarteko kronikotasunaren banaketak: gabezia sozioekonomiko handiko inguruneetan bizi diren herritarrek gehiago jasaten dituzte gaixotasun kronikoak ingurune hobeeetan bizi direnek baino (Mortueruel eta Martín, 2019c).



- Hortzetako osasunari dagokionez ere bada desberdintasun sozialik EAEko herritarren artean: zenbat eta baxuagoa hierarkia sozialean duten maila, orduan eta okerragoa osasuna (González-Rábago y Martín, 2019a). Klase sozialaren arabera aztertzen badira aldeak, hona emaitza: zenbat eta baxuagoa klase soziala, orduan eta okerragoa hortzetako osasuna. Ondorio bera ageri zaigu osasun txar orokorra, desgaitasuna eta osasun mentala aztertuta. Klase sozial altueneko herritarretatik, % 85ek baino gehiagok du hortzetako osasun ona (gizonek eta emakumeek); klase sozial baxuenekoen artean, berriz, 10 puntu txikiagoa da portzentajea (gizonen % 73,4 eta emakumeen % 74,9). Eta progresiboa da beheranzko joera hori hierarkia sozial osoan.

Osasun-arloko desberdintasunak osasunaren beste adierazle askotan ere agertzen dira. Beheko taulan ikusten denez, faktore eta jokabide hauek dira nagusi aipatutako gradiente sozialean: tabakoa maiz kontsumitzea, obesitatea, edari azukredunak kontsumitzea eta zenbait proba mediko egitea.

7. taula. EAEko herritarren osasun-adierazleak, klase sozialaren arabera (2018)

		%
Tabakoa maiz kontsumitzea	I (altuena)	12,3
	II	16,9
	III	15,8
	IV	17,5
	V (baxuena)	19,3
Obesitatea	I (altuena)	7,5
	II	8,8
	III	10,6
	IV	13,5
	V (baxuena)	18,5
Edari freskagarri azukredunak egunero edatea	I (altuena)	1,1
	II	3,1
	III	3,4
	IV	3,7
	V (baxuena)	7,0
Inoiz zitologia baginalik egin ez duten 15 urteko edo hortik gorako emakumeen portzentajea	I (altuena)	14,4
	II	11,6
	III	12,4
	IV	15,8
	V (baxuena)	17,1

Iturria: EAEko Osasun Inkesta, 2018.

Adin-tarte guztietan daude aldeak osasunari dagokionez, eta jairo aurretik ere eskuratu ohi dira, herentzia gisa (González-Rábago et al, 2019). Izan ere, jaiotzaren unetik dago aldea haur batzuen eta besteen arteko osasun perinatalean, gurasoen ikasketa-maila dela eta, zeina familiaren maila sozioekonomikoaren adierazle baita. Esate baterako, txikiagoa da Euskadin garaiz aurretik jaiotzen diren haurren portzentajea (neskak zein mutilak) gurasoek unibertsitate-ikasketak dituzten familietan bigarren mailakoak dituztenetan baino, eta txikiagoa bigarren mailako ikasketak dituztenetan lehen mailakoak edo hortik beherakoak dituztenetan baino. Jaiotzean pisu txikia duten haurren artean ere errepikatu egiten da gizarte-eredu hori, baina talderik aberatsenari bakarrik eragiten dio aldeak, hau da, gurasoetako batek gutxienez unibertsitate-ikasketak dituen familiei: txikiagoa da horien artean jaiotzean gutxi pisatzen duten umeen portzentajea, ikasketa-maila apalagoak dituzten gurasoekin alderatuta.



Hiri bereko auzoen artean ere badago alderik, aipatutako egileen arabera. Bilbon, adibidez, handiagoa da garaiz aurretik jaiotzen diren haurren portzentajea Otxarkoagan (% 9,2) eta Bilbo Zaharra-San Frantzisko eta Ibarrekolanda auzoetan (% 7,6, bietan); Begoñan eta San Adrianen, aldiz, % 2,0 eta % 2,7 dira portzentajeak, hurrenez hurren. Jaiotzean gutxi pisatzen duten haur gehiena jaiotzen diren auzoak ere Otxarkoaga, Bilbo Zaharra-San Frantzisko eta Arangoiti dira (% 8,3, % 6,7 eta % 7,4, hurrenez hurren); gutxiena jaiotzen direnak, berriz, Iralabarri eta San Adrian, non haurren % 2,7 bakarrik pisatzen baitute 2.500 gramo baino gutxiago jaiotzean.

Haurtzaroan eta nerabezaroan ere bere horretan irauten dute desberdintasun horiek. Oro har, ona da Euskadiko haur eta nerabe gehien-gehien osasuna eta ez dute arazo handirik alde horretatik, baina talde sozial guztietan ez da berdina osasun-maila. Hemengo eta nazioarteko beste zenbait ingurutan ikusi izan denez, alde handiak eragiten ditu Euskadin bizi diren adingabeen osasun-egoeran haien familiek hierarkia sozialean duten posizioak, betiere joera berari eutsiz: zenbat eta baxuagoa familiaren klase soziala, orduan eta okerragoa osasun-egoera¹⁹ (González-Rábago et al, 2021).

Baina osasunean edo hilkortasunean ez ezik, osasun-baliabideak eskuratzeko bide desberdinetan ere nabaritzen da alde hori, aztertutako zerbitzu bakoitza nolakoa den. Ikerketen arabera, aldeak daude Euskadin ematen den arreta mediko espezializatua jasotzeko aukeran; aldiz, ez da alderik atzematen ez lehen mailako arretan, ez ospitaleratzeetan, ez ospitaleko larrialdietan. Lehen Mailako zerbitzuetan, larrialdikoetan eta ospitaleratzeetan ez da alde handirik nabari —oro har—; nolana dela ere, klase sozial eta ikasketa-maila baxuenetako herritarrek gainerakoek baino gehixeago jotzen dute zerbitzu horietara, osasun-egoera okerragoa pairatzen dute eta. Finantzaketa publikorik ez duten zerbitzuei (podologia) edo finantzaketa partziala bakarrik dutenei dagokienez (fisioterapia eta dentista), dentistaren zerbitzuan atzematen dira alderik handienak: 29 puntu inguru muturreko ikasketa-mailen artean (Mortieruel y Martín, 2019a)²⁰.

b) Gizarte-bazterketa jasaten duten Euskadiko herritarren % 40 osasun-arloko gabeziak dituzte

Alde batera utzirik hilkortasunari, osasun-egoerari eta osasun-sistamarako sarbideari dagozkien aldeak, ebidentzia ugari daude beste honetaz ere: gizarte-bazterketaren eta osasun-arazoaren arteko loturaz. Gizarte-beharrei eta gizarteratzeari buruzko FOESSAren inkestako datuen arabera, azken hiru urteotan jaitsi egin dira osasun-arloan gizarte-bazterketa jasaten duten Euskal Autonomia Erkidegoko familien eta herritarren portzentajea. Aldiz, gora egin dute adierazle horiek Espainian. Zehatz azalduta, EAEko familien % 13,2k eta herritarren % 11,7k bazterketa jasaten dute osasun-alorrean eta zenbait gabezia dituzte. Kasu bietan, Espainiako portzentajeak baino askoz txikiagoak dira EAEkoak, bai eta 2018ko datuek adierazi zutena baino: urte hartan, familien % 14,3ri eta biztanleen % 13,6ri eragiten zieten egoera horiek.

Beste hau ere nabarmentzen dute FOESSAren inkestako datuek: gehiago eragiten dietela osasun-arazoek gizarte-bazterketa jasaten dutenei gainerako herritarrei baino. Ez da harriztekoa ere, zeren eta osasun-arazoak gizarte-bazterketako faktore gisa hartzen baitira, etxebizitzaren arloan ere ikusi dugun bezala. 2021ean, EAEko biztanleen % 11,7k pairatzen zuen gabeziaren bat osasun-alorrean; bazterketa-egoeran dauden herritarren artean, % 40,2raino igotzen da portzentajea, eta % 53,3raino gizarte-bazterketa larria jasaten dutenen artean.

¹⁹ Azterketa horien arabera, beren osasuna oso ona ez dela dioten 18 urtetik behekoen portzentajea handiagoa da klase sozial baxuko familietan (% 61,4) egoera sozial hobean daudenetan baino (% 29,7). Nesken artean, argia da gradientea, baina ez hain nabarmena eta lineala (18 puntuko aldea muturreko taldeen artean: klase sozial altueneko nesketatik, % 31,4 diote beren osasuna ez dela oso ona; klase sozial apaleneko nesketatik, berriz, % 49,8k. Ikertzaile horien azterketak garbi erakusten dute zenbateko eragina duten gizarte-determinatzaileek —klase soziala, gurasoak non jaiotzen diren...— osasunaren zenbait alorretan; esate baterako, obesitatean: zenbat eta baxuagoa familiaren klase soziala, orduan eta handiagoa obesitatea duten nesken portzentajea. Nabarmena da gradiente soziala, 10 puntukoa: I. klaseko nesketatik (klase altuena) % 2,6k dute obesitatea; V. klasekoetatik (klase baxuena), % 12,6k. Mutikoen artean aldeak ez dira hain handiak, baina klase sozial baxuenetakoak (IV. eta V. klaseak) dira obesitate-tasa handienekoak (% 11,0 eta % 9,9, hurrenez hurren).

²⁰ Lan horien arabera, gehiagotan joaten dira dentistarengana klase sozial altueneko herritarrak (I klasea) klase sozial baxuenekoak baino (V. klasea). Kasu horretan ere bistakoa da gradientea: zenbat eta beherago egin eskala sozialean, orduan eta txikiagoa dentistarengana joaten den herritarren portzentajea. Muturreko klase sozialen arteko aldea, berriz, handiagoa da gizonen artean: klase sozial altueneko (I) eta baxueneko (V) gizonen arteko aldea 27,2 da; emakumeen artean, berriz, 20,1.



8. taula. Osasunaren arloan zenbait bazterketa-arazo pairatzen dituzten EAEko familien portzentajea, bai gizarte-bazterketa egoeran daudenak bai guztiak kontuan hartuta (2021)

Adierazleak	Biztanleria osoa	Gizarte-bazterketa pairatzen duen biztanleria
Osasun-estaldurarik gabeko pertsonaren bat duten familiak	0,1	0,5
Azken hamar urteetan gosea maiz pasatu duen edo egun pasatzen ari den norbait daukaten familiak	1,0	5,5
Pertsona heldu guztiek eguneroko bizitza oztopatzen dieten desgaitasunak, gaixotasun kronikoak edo osasun-arazoak dituzten familiak	7,2	8,0
Eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza edo beste pertsona baten zaintza behar duen eta jasotzen ez duen mendekotasundun norbait duten familiak	1,2	3,0
Gaixotasun larria edo kronikoa duen eta urtebetean gaitz horretarako arretarik jaso ez duen norbait duten familiak	1,2	2,2
Arazo ekonomikoak direla medio botikak edo protesiak erosteari edo tratamenduak zein dietak jarraitzeari utzi dioten familiak (% 60ko pobrezia-atalase neurritsuaren azpitik daudenak)	7,1	40,7
Osasun-arloan bazterketa jasaten dutenak	11,7	40,2

Iturria: EINSFOESSA 2021.

EAEko familia guztiak kontuan hartuta, hauek dira osasun-arloko arazorik larrienak, FOESSaren azterketaren arabera: botikak eskuratzeko ezintasuna, arazo ekonomikoak direla eta (EAEko familien % 7,1ek utzi egin dio botikak edo protesiak erosteari, edo tratamenduak zein dietak egiteari, ezin dituelako ordaindu)²¹, eta familiako kide heldu guztiek desgaitasun, gaixotasun kroniko edo osasun-arazo larriren bat jasatea (% 7,2). Gizarte-bazterketa pairatzen duten familietan, are larriagoak dira arazo horiek: talde horretako familien % 40,7k utzi diote botikak erosteari edo tratamenduak zein dietak egiteari arazo ekonomikoak direla medio; horietatik, % 8,0 pertsona heldu guztiek eguneroko bizitza oztopatzen dieten desgaitasunak, gaixotasun kronikoak edo osasun-arazoak dituzten familiak dira. Familia horietatik % 5,5 gosea pasatzen ari dira, edo pasatu dute iraganean.

Bestalde, gaixotasun edo nahasmendu mentalek bazterketa-egoerak areagotu egiten dituzte ia alor guztietan, FOESSaren inkestaren arabera. Gaixotasun mentalen bat diagnostikatu dietenek gainerako herritarrek baino gehiago pairatzen dituzte gizarte-bazterketako egoerak, aipatutako inkestak dioenez. 2021ean, % 15,6 zen EAEn gizarte-bazterketako tasa horrelako diagnostikorik ez dutela ziotenen artean; gaixotasun edo nahasmendu mental bat diagnostikatu zaienen artean, berriz, % 23,8. Erabateko integrazioaren tasak, bestalde, % 59,2tik % 40,8ra jaisten dira osasun mentaleko arazoren bat diagnostikatuta dutenen artean, eta % 25,2tik % 35,3ra igotzen integrazio-maila eskasa dutenen artean.

²¹ Zalantzarik gabe, jasaten duten pertsonen kalte egiten die egoera horrek, eta oztopo larria da epe labur eta ertaineko gizarteratze-prozesurako, zaildu egin baititzake eguneroko bizimoduko jarduerak (lan egitea, ikastea eta abar). Honenbestez, gupil zoro bat eragiten dute osasun-krisiak eta gizarte-krisiak, eta, azkenean, elkar elikatzen dute: osasun-krisiak gizarte-krisia eragiten du, eta krisi horrek inpaktu handia du familia behartsuenetako herritarren osasunean. Egoera horrek murriztu egiten ditu herritar horien gizarteratzeko aukerak.



2.1.6. Hezkuntzari lotutako arazoaren bilakaera

- a) *Oro har, onak dira hezkuntzari buruzko adierazleak, baina erabakigarria da familiaren maila sozioekonomikoa hezkuntza egokia eta errendimendu akademiko ona izateko*

Oro har, positiboak dira EAEko herritarren hezkuntza-mailari buruzko adierazle konbentzionalak, eta adierazten dute ia denek dutela eskuragarri bigarren mailako hezkuntza, eta oso baxuak direla eskola-porrotaren eta eskola uztearen mailak. Honenbestez, EUSTATen datuen arabera:

- 2010etik 2020ra, % 39,7tik % 32,3ra jaitsi da ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten herritarren portzentajea (gizonen ehunekoa, % 36,9tik % 29,9ra; emakumeena, % 42,4tik % 34,5era).
- 2010etik aurrera, % 79,5etik % 95,2ra igo da gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten 20-24 urte bitarteko herritarren portzentajea (EB28n, % 83,2ra). Gizonen ehunekoa % 94,5 da; emakumeena, % 96.
- 2000. urtetik hona, % 14,3tik % 8,8ra jaitsi da 18-24 urte bitarteko eskola uzte goiztiarra; EB osoan, % 10,1era. Gizonen eskola uzte goiztiarraren tasa % 9,6 da; emakumeena, % 8,0.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasturteren bat errepikatzen duten ikasleen portzentajea % 5,8 da EAEn; Espainian, % 8,7.

Bestalde, eskolara joaten dira EAEko urtebetetik beherako hurren % 20,2; bi urtetik beherako % 48,8 eta hiru urtetik beherako % 92,7; Espainian, % 12,4, % 41,9 eta % 61,4 dira portzentajeak, hurrenez hurren, Hezkuntzako Adierazleen Estatu Sistemaren arabera. EAEn, hamazazpi urteko herritarren % 97,4 joaten dira eskolara; Espainian, % 90. Iturri beraren arabera, hauek ziren 2018-19 ikasturtean Euskadiko hezkuntza-zikloetako titulazio-tasa gordinak²²: % 7,1 oinarrizko lanbide-heziketan, % 25,3 erdi-mailako hezkuntza-zikloetan, eta % 41,9 goi-mailako hezkuntza-zikloetan; Espainiako Estatuan, % 4,1, % 23,3 eta % 29,2, hurrenez hurren.

Azkenik, Espainiako 25-64 urte bitarteko herritarren % 11,0k esku hartu zuten 2020an trebakuntza-saioren batean, inkestaren aurreko lau asteko epean. Partaidetza-tasa handienak Nafarroako Foru Komunitatekoa (% 13,6) eta EAEkoa izan ziren (% 13,1).

Datu horiek gorabehera, ikaslearen familiaren egoera sozioekonomikoari estu loturik daude hezkuntzaren eskuragarritasuna eta aprobetxamendu akademikoa, bai Euskadin, bai inguruko gainerako herrialdeetan. Desberdinkeria ekonomikoek, berriz, areagotu egiten dituzte eskola uzte goiztiarraren eta eskola-porrotaren tasak ingurune sozioekonomiko behartsuenetako ikasleen artean. Unibertsitateaz kanpoko Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) egindako ebaluazio diagnostikoaren arabera, DBHko bigarren ikasturteko ikasleen % 79,4 maila ertainean eta aurreratuan daude kultura zientifikoari, teknologikoari eta osasunari buruzkoari dagokionez. Dena dela, aldeak daude gai horrekiko curriculum-gaitasunean ikasle horien jatorria, gurasoen ikasketa-maila eta indize sozioekonomikoa zein kulturala (ISEC) kontuan hartuz gero, adierazle horrek erakusten digunez: gainerakoek baino errendimendu apalagoak lortzen dituzte atzerritarrek, ikasketarik gabeko gurasoak dituztenek eta ISEC baxuenekoek. Ikastetxearen titulartasuna aztertuta, publikoetako ikasleen % 12,3k maila aurreratua dute gaitasun horietan; itunpeko ikastetxeetan, berriz, % 21 da portzentajea.

²² Hona ikaskuntza baten titulazio-tasa gordinarekin definizioa: ikaskuntza horretako azken ikasturtearen hasierako «adin teorikodun» populazio osoaren eta ikasturtea amaitu zuen ikasle-kopuruaren arteko erlazioa.



9. taula. Euskadiko DBHko ikasleen sailkapena, kultura zientifikoan, teknologikoan eta osasunari buruzkoan duten errendimendu-mailaren arabera (%), zenbait ezaugarri jarraikiz. 2015

		Oina- rrizkoa	Ertaina	Aurreratua
Guztira		20,6	62,3	17,1
ISEC	Baxua	34,5	56,7	8,9
	Ertaina-baxua	23,9	62,1	13,9
	Ertaina-altua	17,5	65,3	17,2
	Altua	10,7	63,5	25,7
Titulartasuna	Publikoa	25,4	62,0	12,6
	Itunpekoa	16,5	62,5	21,0
Gurasoen ikas- keta-maila	Ikasketarik ez	43,0	53,0	4,0
	Nahitaezko ikasketak	33,6	59,0	7,5
	Batxilergoa eta HZ	21,9	65,2	12,9
	Goi-mailakoak	13,0	62,3	24,7
Jatorria	Hemengoa	19,3	62,8	17,9
	Atzeritarra	35,2	58,0	6,8

Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. Hezkuntza Saila.

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ikasturteak gainditu dituztenen portzentajea aztertuta, berriz, hona emaitzak: handiagoa da gainditu dutenen portzentajea emakumeen, ikastetxe pribatuetan ikasi dutenek eta D ereduan aritu direnen artean. Ikasgai guztiak —gaztelania izan ezik— euskaraz eman dituztenak dira D ereduko ikasleak. Are handiagoa da alde hori Batxilergoko bigarren ikasturtean.

10. taula. DBHko 4. ikasturtea eta Batxilergoko 2.a gainditu duten Euskadiko ikasleen portzentajea, zenbait ezaugarriren arabera (2018-2019)

		DBHko 4.a	Batxilergoko 2.a
Guztira		76,3	91,6
Sexua	Gizonak	71,9	89,9
	Emakumeak	80,8	93,1
Titulartasuna	Publikoa	73,5	90,6
	Pribatua	78,6	92,4
Eredua	A eredia	65,2	90,1
	B eredia	74,1	89,6
	D eredia	78,4	92,3

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika.

Euskal hezkuntza-sistemako aukera-berdintasunaz eginiko berariazko ikerketek diotenez, berriz, «azterketa konparatibo bat eginda, posizio onean zegoen Euskadi kanpoko proben bidez neurtutako ikaskuntza-adierazleei dagokienez, baina ez barne-ebaluzioko berdintasun-mailari (neurria, ikasturtea errepikatzea) edo hezkuntza-lorpenari (neurria, eskola uztea) dagokienez. Eskola-segregazioari dagokionez, berriz, kezkarria da, batez ere, jatorriz immigranteak diren ikasleen aurkakoa». 215).




Azterketa horien arabera, handiak dira ekitate-mailak errendimendu edo ikaskuntza kognitiboari dagokionez, baina jatorri sozioekonomikoaren eragina aztertuta, oraindik ere handia da ikasturtea errepikatzen dutenen portzentajea (ikasle guztien % 20 inguru), zeina estu loturik baitago ikasleen jatorri sozioekonomikoari. Gaitasun berak dituzten bi ikasle elkarrekin alderatuta, lau aldiz aukera gehiago dauka ikasturtea errepikatzeko kuartil sozioekonomiko baxukoak kuartil sozioekonomiko altukoak baino. ELGAko herrialdeetan, berriz, 1,9 aldiz handiagoa da aukera; Espainiako Estatuan, 3,9 aldiz. Bestalde, nabarmen jaitsi da azken hamarkadotan eskola uzte goiztiarra, baina eragin handia izaten jarraitzen du arazo horretan ikasleen jatorri sozioekonomikoak, zeina gurasoen ikasketak-mailaren arabera neurtzen baita. Faktore horrek eragin handiena duen autonomia-erkidegoetako bat Euskadi dugu, eta Espainiako kasua Europar Batasuneko kezkarrienetakoa da. Jatorri sozioekonomikoaren arabera eskola-segregazioari dagokionez, berriz, Espainiako eta ELGAko batezbestekoetatik gertu dago EAEkoa (eskola-segregazioaren definizioa: zer neurritan joaten diren ikastetxe beretara antzeko ezaugarriak dituzten ikasleak). Alabaina, oso handia da EAEn jatorriz immigranteak direnen eskola-segregazioa, Espainiako autonomia-erkidego guztietako handiena eta ELGAko batezbestekoa baino altuagoa; gainera, areagotu egin da 2015etik 2018ra, PISA-ren datuen arabera (Gortazar, 2022).

b) EAEko herritarren % 6,6ri eragiten die hezkuntzaren alorreko bazterketak

Euskadin, lotura nabarmena du hezkuntza-mailak bazterketa-egoerekin; hau da, zenbat eta apalagoa hezkuntza-maila, orduan eta handiagoa bazterketa-arriskua. FOESSAren inkestaren arabera, honela eragiten diete bazterketa-egoerek Euskadiko familiei: sostengatzaile nagusia goi-mailako ikasketak dituen norbait dutenetatik, % 3,9ri; nahitaezkoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituen norbait buru dutenetatik (Batxilergoa, BBBa, LH...), % 13,6ri; nahitaezko bigarren mailako ikasketak dituen norbait buru dutenetatik, % 21,6ri, eta ikasketarik gabeko edo ikasketak amaitu gabeko norbait buru dutenetatik, % 44,7ri. Bestalde, zenbat eta txikiagoa izan sostengatzaile nagusiaren ikasketak-maila, orduan eta handiagoak pobrezia-mailak; gainera, are gehiago igo dira maila horiek 2008tik. Grafikoan ikusiko duzue, hauek dira mantenu-pobreziaren tasak: % 18,7 ikasketarik gabekoen artean (2008an, % 10,4) eta % 2,9 unibertitate-ikasleentzat dituztenen artean (2008an, % 2,4).

15. grafikoa. Mantenu-pobreziaren Euskadiko tasen bilakaera, sostengatzaile nagusiaren hezkuntza-mailaren arabera. 2012-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoa. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (PGDI).



Nolanahi dela ere, FOESSA Fundazioak aztertzen dituen zortzi bazterketa-alorretatik, hezkuntzarena da EAEko herritarren portzentaje txikienari eragiten diotenetakoa. Izan ere, etxebizitzaren alorreko arazoek herritarren % 17,2ri eragiten diete, eta enpleguari lotutakoek % 22,1i; hezkuntzaren arlokoek, berriz, % 6,6ri. Gizarte-bazterketako arriskuan dauden herritarren artean, % 19,2 da portzentajea. Inkestako datuen arabera, EAEko herritarren % 1,8 bizi dira eskolatu gabeko 3-15 urte bitarteko pertsonak dauden familietan —bazterketa-egoeran dauden herritarren artean, % 3,1 da portzentajea—; % 2,3, berriz, 16-25 urte bitarteko pertsona guztiak eskola-graduatuaren titulua edo horren baliokiderik ez duten familietan bizi dira —bazterketa-egoeran dauden artean, % 14,3 da ehunekoa—.

11. taula. Hezkuntzaren arloan gizarte-bazterketako zenbait arazo pairatzen dituzten EAEko herritarren portzentajea, bai gizarte-bazterketa egoeran daudenak bai guztiak kontuan hartuta (2021)

Adierazleak	Biztanleria osoa	Gizarte-bazterketa pairatzen duen biztanleria
Eskolatu gabeko 3-15 urte bitarteko pertsonak dituzten familiak	1,8	3,1
16-65 urte bitarteko pertsona guztiak eskola-graduaturik edo horren baliokiderik ere ez duten familiak	2,3	14,3
Eskolara bost urte baino gutxiago joan den 65 urtetik gorako pertsonaren bat duten familiak	2,7	2,9
Hezkuntza-arloan bazterketa jasaten dutenak	6,6	19,2

Iturria: EINSFOESSA 2021.

2.1.7. Parte-hartze politikoari, isolamendu sozialari eta harreman pertsonalei lotutako arazoaren bilakaera

Gizarte-bazterketaren kontzeptuaren definizio guztietan aipatzen dira lotura-elementuak eta bazterketa-prozesuak prebenitu eta leuntzeko partaidetzak —politikoa, zibikoa eta kulturala— duen garrantzia. Dena den, ez dira ugariak bi zer hauek elkarrekin uztartzen dituzten azterketak: isolamendu- eta bakardade-egoerak pobrezia-ekin, desberdinkeriarekin eta bazterketa sozialarekin eta politikan zein kultura parte hartzeko arazoekin. Nolanahi dela ere, zenbait datu dituzue epigrafe honetan isolamenduak eta gatazka sozialek Euskadin gizarte-bazterketa pairatzen duten herritarren artean duen inpaktuaz, bai eta pobrezia-egoeran dauden artean bakardadeak eta laguntzarik ezak duen inpaktu handiagoaz ere. Honi buruzko zenbait datu ere ageri dira: gutxiago esku hartzen dute politikan ekonomikoki behartsuenak diren herritarrek, edo ingurune behartsuenetan bizi direnek.

FOESSA metodologiak aztertzen dituen hiru bazterketa-ardatzetatik —ekonomikoa, politikoa eta harreman-arlokoa—, hirugarren horrek²³ eragiten du gizarte-bazterketa gutxienean, bai Euskadin bai Espainia osoan. EAEko herritarren % 24,4k bazterketaren bat jasaten du alor ekonomikoan; % 31,47k, alor politikoan eta zibikoan, eta % 7,1ek bakarrik harremanen alorrean. Espainia osoan, berriz, % 12,1 da portzentajea.

Zehazkiago, hau diote FOESSAren Gizareratzeari eta Behar Sozialei buruzko Inkestako datuek: EAEko biztanleen % 4,9k gabeziak dituzte gizarte-gatazken alorrean eta % 2,3k gizarte-isolamenduarenean. Bazterketa pairatzen dutenen artean, % 20,6 da portzentajea gizarte-gatazken alorrean —biztanleria osoarena baino bost aldiz handiagoa— eta % 3,3 isolamendu sozialarenean. Kasu honetan, ia % 50 handiagoa da portzentajea, baina hala eta guztiz ere ez da hain nabarmena biztanleria osoarekiko aldea. Alor hori aztertzeko aintzat hartzen diren adierazleetatik, hau da ohikoena: azken hamar urteotan tratatu txar fisikoak edo psikologikoak jaso edo jasotzen dituen norbait dagoen familien portzentajea (biztanleriaren % 2,6; gizarte-bazterketa jasaten dutenen artean, % 12,3).

²³ FOESSA metodologian, gizarte-bazterketaren arloan gatazka eta isolamendu sozialak jorratu dira batik bat: alde batetik, harreman sozial txarrak eta gizartearen zein familian jasaten diren beste gatazka-egoera batzuk; bestetik, harreman eta lotura sozialik eza.



Politikako partaidetzari dagokionez, berriz, EAEko herritarren % 13,6 k dituzte arazoak alor horretan (bazterketa jasaten dutenen artean, % 52,2k): ordezkari politikoak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubiderik gabeko pertsonak dauden familietan bizi dira EAEko herritarren % 8,6; interes faltagatik edo inongo herri-erakundetako kide ez izateagatik pertsona helduek botorik ematen ez duten familietan, berriz, % 5,1. Bazterketa-egoeran dauden artean, berriz, % 35,9 eta % 16,7 dira portzentajeak, hurrenez hurren.

12. taula. Partaidetza politikoaren, gatazka sozialen eta gizarte-isolamenduaren alorrean gizarte-bazterketako zenbait arazo pairatzen dituzten EAEko herritarren portzentajea, bai gizarte-bazterketako egoeran daudenak bai guztiak kontuan hartuta 2021


Adierazleak		Biztanleria osoa	Gizarte-bazterketa pairatzen duen biztanleria
Partaidetza politikoa	Ordezkaritza politikoak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubiderik gabeko pertsonak dauden familiek: elkarrekotasun-itunik gabeko EBtik kanpoko nazionalitate-dun 18 urteko edo hortik gorako pertsonaren bat duten familiek	8,6	35,9
	Erabaki kolektiboak hartzeko prozesuan aintzat hartua izateko eta eragina izateko egiazko gaitasun gabeko pertsonaren bat duten familiek: ez dute hauteskunderetan parte hartzen, interesik ez dutelako, eta ez dira inongo herri-erakundetako kide	5,1	16,7
	Partaidetza politikoaren arloan bazterketa jasaten dutenak	13,6	52,2
Gizarte-gatazkak	Azken hamar urteotan txar fisikoak edo psikologikoak jaso edo jasotzen dituen norbait duten familiek	2,6	12,3
	Etxekoan artean harreman oso txarrak, txarrak edo nahiko txarrak dituzten familiek	0,0	0,2
	Azken hamar urteotan alkoholarekin, beste drogaren batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituzten edo dituzten pertsonadun familiek	1,4	5,7
	Azken hamar urteotan ama edo aita nerabea izan edo izateko zorian egon den norbait duten familiek	1,1	7,3
	Azken hamar urteotan justiziarekin arazoak izandako pertsonak dituzten familiek (aurrekari penalak)	0,5	1,2
	Gizarte-gatazkaren arloan bazterketa jasaten dutenak	4,9	20,6
Gizarte-isolamendua	Harremanik ez duten pertsonak dituzten familiek, gaitasun- eta zailtasun-egoerarako laguntzarik ez dutenak	4,9	7,8
	Auzoko herritarrekin harreman txarrak edo oso txarrak dituzten familiek	0,0	0,3
	Azken urtean ospitale zein etxe psikiatrikoetan, drogamendekotasunak tratatzeko egoitzetan, adingabeentzako egoitzetan, espetxean eta abarretan egon diren pertsonak dituzten familiek	0,2	0,5
	Gizarte-isolamenduaren arloan bazterketa jasaten dutenak	2,3	3,3

Iturria: EINSFOESSA 2021.



Bestalde, FOESSAren inkestak argi asko erakusten duenez, gizarte-bazterketa jasaten duten familietan bizi diren pertsonak gainerakoek baino gutxiago esku hartzen dute politika aktiboan eta gizarteko arazoetan. Euskadiko partaidetza-mailak Espainia osokoak baino handiagoak dira, multzo guztietan, baina gizarte-bazterketa pairatzen duten familietako jendearenak % 11koa da (% 24,7koa gizarteratuta dauden familiaena, eta % 24,7 biztanleria osoarena).

16. grafikoa. EAEko eta Espainiako partaidetza zibiko-politiko aktiboaren tasak, gizarteratze-mailaren arabera. 2020



Iturria: EINSFOESSA 2021.

Beste inkesta batzuek ere nabarmentzen dute gabezia ekonomikoen eta harreman-arazo larrien arteko lotura; esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Inkestak/Gizarte Beharren Inkestak. 2018an, herritarren % 2,2k gizarte-arazo larriren bat zuen bere harreman pertsonal, familiar eta sozialetan; gabeziak jasaten dituztenen artean, % 6,4 zen portzentajea, eta % 1,6 halakorik pairatzen ez dutenen artean. Bakardade- edo tristezia-arazoek, berriz, EAEko herritarren % 1,5i eragiten diete; gabeziak jasaten dituzten familietan bizi direnen artean % 3,8 da portzentajea, eta % 1,2 halakorik pairatzen ez dutenetan (Enplegua eta Gizarte Politiketako Sailaren Organo Espezifikoa, 2019).

Hauteskundeetako partaidetzari dagokionez, azkenik, ikerketa ugarik nabarmendu dute txikiagoak izaten direla ingurune behartsuetako herritarren parte-hartze tasak. Euskadin ere gertatzen da fenomeno hori. Ikertzaile batzuek diotenez, «herritarren errentaren eta haien klase sozialaren arabera desberdinkeria politikoa, hori da euskal demokraziaren, Espainiakoaren eta gure inguruko demokrazia gehienek egiazko arazoa. Euskadin egin ziren azkeneko hauteskunde autonomikoetan, hamar puntuko aldea egon zen klase baxuko edo oso baxuko herritarren partaidetzaren eta klase altuko edo oso altukoaren artean. Txikiagoa da arrakala hori beste herrialde (AEB eta Erresuma Batua, adibidez) eta autonomia-erkidegoetakoak baino (Madril, Andaluzia). Hala eta guztiz ere, esanguratsua da, beharbada demokraziak Euskadin duen gabezia nagusietako bat» (Gómez, 2020)²⁴.

²⁴ Gómezen iritziz (2020), «batez ere hirietako fenomeno da desberdinkeria politikoa. Euskadin, hirietan daude pobrezia-poltsa handienak, eta abstentzio-maila muturrekoa izan ohi den auzoetan egon ohi dira, hots, herritar gehienek botorik ematen ez dutenetan. Bizi zaren auzoak gizarte-bazterketa baldin badu ezaugarri nagusia, oso litekeena da auzotar gehienek inongo hauteskunde-prozesutan parterik ez hartzea. Auzorik pobreenetan, are nabarmenagoa izaten da hauteskundeetako parte-hartze eskasa baldin eta botoa ematera jende asko joaten den hauteskunde-barrutiek in alderatzen bada. Bilbon, EAEko hiriburuetatik desberdinkeria ekonomikorik handiena duen hirian, garbi ikusten da: errenta oso baxuak dituzten auzo batzuetan (Otxarkoagan, esaterako) bozkatzten duten herritarren kopurua errenta altuko auzoetan (Abandon, adibidez) bozkatzten dutenen erdia da. Txikiagoa da alde hori Gasteizko muturren artean: errenta baxueneko auzoan, Sansomendin, herritarren % 33k bakarrik bozkatu zuen azkeneko hauteskunde autonomikoetan (2020); errenta handienekoan (Mendizorrotza), berriz, % 57k. Donostia da hauteskundeei dagokienez desberdinkeria-maila txikieneko hiriburua. Hala eta guztiz ere, 20 puntuko aldea dago Antiguatik (errenta altuko auzo) Intxaurrendora, batez besteko errenta baxuenetako duen auzoa: % 60 eta % 40, hurrenez hurren».



2.1.8. Arrisku handiena jasaten duten taldeen egoera: haurrak eta gazteak, emakumeak, migratzaileak eta desgaituak

Aurreko orrialdeetan aztertu ditugun egoera ia guztiek oso era desberdinean eragiten diete herritarrei, haien sexua, adina eta nazionalitatea zein den, desgaitasunen bat baduten ala ez... Aldagai horien arabera datu sakabanatu batzuk aipatu ditugu aurreko ataletan; hurrengo taulak, berriz, laburtuta ageri dira alde horiek, eta sexuaren, adinaren, nazionalitatearen eta desgaitasun-egoeraren arabera sailkatzen ditu pobrezia-tasak eta gizarte-bazterketakoak, erabilgarri dauden iturri estatistikoak baliatuz.

- Sexuari dagokionez, lehen begiratu batean aldeak ez dira esanguratsuak gizarte-bazterketaren alorrean (% 16,4 gizonek, % 16,2 emakumeek), eta handixeagoak dira mantenu-pobrezia-arenean (% 7,4 eta % 8,6, hurrenez hurren). Alabaina, dezente handiagoak dira aldeak familiaren sostengatzaile nagusiaren sexua kontuan hartuz gero, batez ere mantenu-pobrezia-arenean (% 6,3 familiaburu gizon bat den kasuetan, eta % 11,0 emakume bat den haietan).
- Are nabarmenagoak dira aldeak nazionalitateari dagokionez: % 41,9 da pobrezia-tasa familiaburu atzeritar bat duten etxeetan; familiaburuak Espainiako nazionalitatea dutenetan, berriz, % 5,5, eta bazterketa jasaten dutenetan, % 59,2 eta % 12,2, hurrenez hurren.
- Adina ere funtsezko elementua da Euskadiko pobrezia eta gizarte-bazterketa azaltzeko. Zenbat eta txikiagoa herritarren adina, orduan eta handiagoak pobrezia- eta bazterketa-tasak. % 13,6 da herritar pobreen tasa 18 urtez azpikoaren artean, eta % 4,7 65 urtetik gorakoaren artean; bazterketa-tasak, berriz, % 27,4 eta % 2,2, hurrenez hurren.
- Desgaituen artean, handixeagoak dira pobrezia-tasak (% 15,0 eta % 12,2, hurrenez hurren); bazterketa-tasak, berriz, berdindak dituzte. Deigarriak dira EAEko datuak; izan ere, Espainiako Estatu osoan desgaituen bazterketa-tasa biztanleria osoarena baino bi aldiz handiagoa da.

13. taula. Euskadiko pobrezia-, gizarte-bazterketa eta okupazio-tasak, sexuaren, adinaren, nazionalitatearen eta desgaitasunaren arabera

Adierazleak		Pobrezia **	Bazterketa	Okupazio-tasa
Sexua	Gizona	7,4	16,4	72,4
	Emakumea	8,6	16,2	65,7
Sexua*	Gizona	6,3	15,5	-
	Emakumea	11,0	18,1	-
Nazionalitatea	Espainiarra	5,5	12,2	-
	Atzeritarra	41,9	59,6	-
Adina***	18 urtetik beherakoa	13,6	27,4	-
	18-29 urte	9,1	21,3	25,6
	30-44 urte	10,2	19,7	79,8
	45-64 urte	6,2	16,6	73,0
	65 urtetik gorakoa	4,7	2,2	-
Desgaitasuna****	Bai	15,0	16,3	30,7
	Ez	12,2	16,3	69,0

Iturria: Geuk prestatua, EINSFOESSA 2021; EPDS 2020, ENS 2018 eta PRA 2021eko datuak erabilita. *Familiaren sostengatzaile nagusia. ** Mantenu-pobrezia. ***Hona pobrezia-areneko adin-tarteak: < 15 urte, 15-24 urte, 25-44 urte, 45-64 urte eta 65 urtetik gora. ****Pobrezia-areneko dagokionez, egoera hauek aztertu dira: eguneroko bizimodurako gabezia materialak dituzten herritarrak (2018); bazterketa-arloan, azkenik, gutxienez desgaitu bat duten familiak. Gogoan izan, betiere, familia batean bizi den jendea buruzkoak direla datuak, eta ez dutela jasotzen erakunderen batean bizi diren egoera.



Aipatutako taldeen egoeraz gain, beste hau ere hartu behar da aintzat: zaintza-lanen (haurrak haztea, desgaituak eta mendekotasuna dutenak zaintzea) eta gizarte-bazterketako egoeren artean dagoen lotura. Emakumeek eta guraso bakarreko familiek jasaten dute gehienbat lotura horren inpaktua, nabarmenik gainera.

Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako datuen arabera (PGDI), gehiago jasaten dituzte pobrezia-egoerak adingabeen ardura duten familiek gainerakoek baino: mantenu-pobreziaren Euskadiko batez besteko tasa % 8 da, baina adingabeko seme-alabak dituztenen artean % 12,7ra iristen da; guraso bakarreko familietan, berriz, % 18ra. Bazterketa-egoeretan ere nabarmena da adingabeak dituzten familien eta bazterketa-egoeren larritasunaren arteko lotura: FOESSAren datuen arabera, % 9,1 da bazterketa-tasa adingabekorik gabeko familietan; bi neska-mutil zein nerabe edo gehiago bizi direnetan, berriz, % 24,4. Guraso bakarreko familietan, % 31 da bazterketa-tasa.

Mendekotasuna duen pertsona bat gutxienez dagoen familietan, berriz, hau dio Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikokoaren Inkestak: mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenen % 22k alde batera utzi behar izan dituztela euren bizitzako hezkuntza- eta lan-alorretako zenbait elementu; jarduera sozialaren alorrekoak, berriz, % 68k. Bestalde, % 57k tentsioak jasaten dituzte familiako bizitzan; horietatik % 18k, esanguratsuak. Oinarrizko gabezia-tasa ere handixeagoa da mendekotasuna edo eguneroko jardueretarako mugak dituen norbait bizi den familietan.

2.1.9. Beste elementu batzuk: aldaketak euskal gizarteko osaera demografikoan, energia-krisia eta inflazioaren igoera

Beste bi elementu ere hartu behar ditu aintzat Euskadiko egoera sozioekonomikoaren diagnostikoak: alde batetik, euskal gizartean gertatzen ari diren aldaketa soziodemografikoak, batez ere migrazio-fluxuak; bestetik, energia-krisia eta inflazioaren igoera, ekonomia moteltzen ari den egungo testuinguru honetan. Egoera hori ondorio nabarmenak ari da eragiten: garraioaren, oinarrizko hornigaien eta etxebizitzaren kostuak igotzea. Ondorio horiek, berriz, zuzeneko inpaktua dute pobrezia eta gizarte-bazterketa pairatzen dutenen artean, eta batez ere errenta-maila txikiena dutenei eragiten diete.


a) Nabarmen igo dira migrazio-fluxuak 2015etik aurrera

Aldagai sozioekonomikoen bilakaerak ez ezik, gizartearen osaera eta dinamika soziodemografikoak ere zuzeneko lotura dute pobrezia- eta desberdinkeria-egoerekin. Bereziki erabakigarria da hori aldaketa demografiko sakonak izaten ari diren gizarteetan; besteak beste, EAEkoan. Izan ere, aldagai ekonomiko hutsek ez ezik, aldaketa demografikoak ere eragin dute 2008tik aurrerako pobrezia- eta desberdinkeria-adierazleen bilakaera berezia. Ikuspegi horretatik aztertuta, hiru elementu hauek gutxienez azpimarratu behar dira: gizartearen zahartze-prozesua eta jaiotza-tasaren jaitsiera, familia-egituren sakabanatzea eta immigrazioaren hazkundera. Positiboa da zahartzearen eta jaiotza-tasa jaistearen inpaktua pobrezia- eta desberdinkeria-egoeraren prebentzioari dagokionez, baina familia-unitateen sakabanatzeak eta immigrazioaren hazkundera nabarmen igoarazten dituzte pobrezia- eta desberdinkeria-tasak (Sanzo, 2022).

Migrazio-fluxuen areagotzeari dagokionez, berriz, 185.000 lagun ingurukoa zen nazionalitate atzerritarreko biztanleen portzentajea 2012-2015 epean (biztanleriaren % 8,4) eta egonkortu egin zen; orduz geroztik, ordea, nabarmen egin du gora, eta 248.000 lagun dira gaur egun (biztanleriaren % 11,2). Honenbestez, 2008an erregistratutakoa baino % 173 handiagoa zen 2021eko atzerritarren kopurua; 2015ekoarekin alderatuta, berriz, 65.000 bat laguneko igoera izan du.



17. grafikoa. Nazionalitate atzerritarreko Euskadiko herritarren ehunekoaren eta kopuruaren bilakaera. 2008-2021



Iturria: Ikuspegi.

Bistakoak dira aldaketa horien ondorioak gizarte- bazterketako eta -inklusioko prozesuen azterketari dagokionez: nazionalitate atzerritarreko herritar-kopuruaren areagotzeak igorazi egiten ditu Euskadiko pobrezia- eta -bazterketa tasak. Lehenago ere aipatu dugunez, atzerritarrek bertan jaiotakoek baino arrisku handiagoa dute pobrezia eta bazterketa jasateko. Alegia, hazten ari direla Euskadin pobrezia- eta bazterketa-tasak; besteak beste, aldatzen ari delako euskal gizartearen osaera soziodemografikoa.

Epe laburreko aldaketa horiez gain, immigrazioari lotutako epe luzeko aldaketak ere aipatu behar dira. Dena den, egun Euskadin bizi diren atzerrian jaiotako eta nazionalitate atzerritarreko herritarren kopuruak baino are gehiago egin du gora azken 20 urteetan jatorri immigranteo herritarrenak, hau da, lehen edo bigarren belaunaldiko biztanleenak, zeinek migrazioaren ondorioak jasaten baitituzte, edozein dutela ere nazionalitatea edo jaiotetria²⁵.

²⁵ Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, «oro har, jatorri atzerritarreko biztanleria osoaren egoera konparazio-irizpide hartuta, hau ondorioztatzen da: hobea eta positiboagoa dela bigarren belaunaldikoaren egoera. Zenbait adierazleren bidez ikus daiteke hori. Lehenik eta behin, egonkortasun handiagoa ageri dute administrazioaren eta legearen aldetik. Halaber, adierazle hobeak dituzte lanbideratzeari eta laneko egonkortasunari dagokienez —batzuetan aldea txikia bada ere—; esate baterako, langabezia-tasa apalagoa eta kontraturik gabeko enplegu-kopuru txikiagoa. Bestalde, handiagoa da lan-dibertsifikazioa; hori dela eta, txikiagoa da bigarren belaunaldiko emakumeen artean etxeko lanen sektoreak duen pisua. Beraz, ematen du bigarren belaunaldiko immigranteak lehen belaunaldikoak baino hobeto daudela eta, gaia sakonago jorratu beharko bada ere, hobekuntza esperantzagarria dirudi» (Ikuspegi, 2018, 7.or.).



Eskuragarri dauden azterketa guztiek diote handiak direla Euskadiko herritar immigranteen gizarteratze-mailak²⁶ eta normala deritzotela EAEko herritarrek immigrazioaren fenomenoari²⁷, baina fluxu horiei dagokien aniztasun zabalagoak —erlijiosoa, kulturala, linguistikoa...— inpaktu handia izango du —zalantzarik gabe— gizarte-zerbitzu-ekiko herritarren eskarrietan eta gizarteak immigranteak eta haien legitimotasun soziala onartzeko prozesuan. Ez dezagun ahantzi Ongizate Estatuaren zenbait teoriarik diotena; alegia, aniztasun erlijiosoa, etnikoa eta kulturak ahuldu egiten dituztela gizarte-babeseko sistemaren euskarri diren oinarriak.

Baina 2008az geroztik Euskadin pobrezia aurre egiteko ekinean atzemandako arazoan eta diru-sarreraren arteko aldeak gora egin izanaren eragile bakarra ez da atzerritar jatorriko herritarren ahulezia ekonomikoa. Hona beste faktore erabakigarri bat, jatorriz bertakoak diren herritarren artean inpaktu handia duena: nuklearrak ez diren familia-taldeen inguruan sortutako bizikidetzaren unitateen garrantzi demografikoa. Unitate horietako asko pertsona edo guraso bakarrekoak izaten dira, batez ere emakume bat buru dutenak (Sanzo, 2022). EInen Familiei buruzko Inkesta Jarraituaren arabera (ECH), pertsona bakarreko 232.000 familia zeuden EAEn 2013an; 2020an, 256.000. Beraz, % 10 hazi da pertsona bakarreko familien portzentajea (familia guztiena, % 2), eta gutzizkoaren % 26tik % 28ra igo.

Komeni da gogoratzea, bestalde, egiturazko izaera dutela immigrazioaren areagotzeak, familien zatikatzeak eta indibidualizazioak. Honenbestez, ez da aurreikusten immigrazio-prozesua nabarmen murriztea, ez eta epe luzeko aldaketarik izatea ere gizarte-egituraren indibidualizazio-prozesuetan. Pobrezia eta desberdinkeria hazarazten duten faktoreen egiturazko izaera horrek egiaztatzen du, bada, arrisku-talde nagusien aldeko babes ekonomikoko neurrien garrantzia (Sanzo, 2022).

b) Inoizko mailarik altuenetan dabil inflazioa, energia-krisiaren egungo testuinguru honetan

Bestalde, pobrezia- eta bazterketa-egoerek badute lotura honekin ere: bizitza independentea eramateko ondasunen eta zerbitzuen kostua igotzearekin. 2022aren hasieran, bereziki konplexua zen egoera, energia-krisia eta Ukrainako gerra zirela medio. Azken 35 urteotako mailarik gorena jo zuen Euskadiko KPlak iragan otsailean: % 7,4, aurreko hilekoa baino puntu bat eta lau hamarreneko handiagoa. Lehendik ere gorantz ari zen inflazioa are gehiago igoarazi zuen Ukraina eta Errusia arteko gerrak, zeinaren ondorio nagusia erregaien prezioa igotzea izan baitzen (Ekonomia eta Ogasun Saila, 2022).

Munduko enplegua izaten ari den bilakaerari buruzko ELGAren azken txostenak dioenez (ELGA, 2022), krisi humanitario larria eragin du Errusiak Ukraina inbaditu izanak, eta nazioarte osora hedatu dira ondorioak. Milioika ukrainar —emakumeak eta haurrek gehienbat— joan dira beren herrialdetik ihesi, babes bila. Gatazka horrek berekin ekarri duen oinarritzko gaien garestitzeak, berriz, bat egin du hornidura-kateen etenak sortutako presio inflazionistekin, zeinek berrikitan diru-sarrera errealei eragin baitiote. Bestalde, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorengo susperraldi ekonomikoren sendotasuna higatzen ari da ekonomiaren gainbeheraren ondorioz, lan-merkatuek horerako bidean jarraitu badute ere 2022ko lehen hilabeteetan. Baina enpleguak hazten jarraitzen duen arren,

²⁶ Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikokoaren (EOE) EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko azken Inkestaren arabera, 2018an atzerritar jatorriko herritarren % 87,5-% 87,9k zioten ez zutela gizarteratzeko arazorik, ez bertako herritarrekin zein taldeekin, ez beste immigrante batzuekin, beren nazionalitatekoak zein beste edozein jatorritakoak izan. Dena dela, dio txostenak, «zenbait ñabardura aipatu behar dira atzerritar jatorriko herritarren EAEko gizarteratze-sentimendua dela eta. Euskadin oso integratuak sentitzen diren portzentajea % 33,6 besterik ez da, baina 2010ekoa baino dezente handiagoa (% 23,5). Ehuneko 50,3k, berriz, diote nahiko integratuak sentitzen direla EAEko gizarteratzearen; beraz, jatorri atzerritarreko herritarren % 83,9k gizarteratzearen alderdi positiboak azpimarratzen dituzte, 2010ean eta 2014an baino gehiagok (% 80,6 eta % 80,8, hurrenez hurren). EAEn batera integratuak edo gutxi integratuak sentitzen direnak, berriz, % 16,1 dira, 2010ean eta 2014an baino askoz ere gutxiago (% 19 eta % 19,4, hurrenez hurren)» (Justizia, Berdintasuna eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa, 2019, 172. or.).

²⁷ Ikuspegiaren barometroaren azken datuen arabera, oso maila txikitara jaitsi da Euskadin immigrazioa arazo gisa ikusten duten herritar portzentajea. Txostenak dioenez, «2020an, EAEko herritar gehienek alderdi hauek azpimarratzen zituzten EAEn atzerritarrek etortzearen ondorioz galdetuta: onura ekonomikoa eta lan-funtzionaltasuna. Bestalde, jaitsi egin da immigrazioari ondorio kaltegarriak leporatzen dizkieten herritarren portzentajea, batez ere immigrazioak langabezian duen eraginari dagokionez (–13,6 puntu). Beraz, EAEko herritarrek ez diete immigrantei egotzen zenbait arazo ekonomikoren ardura (langabezia, enpleguaren gutxitzea, soldatak jaisteak), alderantziz baizik: geroz eta gehiago estimatzen dute gure ekonomiari egiten dioten ekarpena» (Ikuspegi, 2020, 27. or.). Gainera, EAEko herritar gehienek (% 74,7) uste dute pertsona guztiek —nonahikoak direla ere— betekizun eta eskubide berak izan behar dituztela; besteak beste, osasun-arreta, gizarte-laguntzak eta babes ofizialeko etxebizitzak.




2021eko azken hiruhilekoan jaisten ari ziren jada familien diru-sarrera erreala, eta herrialde askotan bere horretan jarraitu du jaitsierak 2022ko lehen hilabeteetan, soldateko igoera ez baitator bat inflazioaren hazkundearekin.

Euskadin ere bizi dugu ELGako herrialdeetan jasaten ari diren egoera. Beheko grafikoan ikusten denez, % 25 igo zen 2022ko abuztuan etxebizitzari, urari, gasari, elektrizitateari eta beste erregai batzuei dagokien KPIa; KPIaren indize orokorra, berriz, % 10,3.

Diru-sarrera txikiak dituzten taldeei eragiten die batez ere inflazioaren hazkundeak, oinarrizko produktuen igoerak batik bat diru-sarrera urriko jendea kaltetzen baitu. CaixaBank Researchen arabera, «0,1 puntutik 0,8 puntura igo zen urtarrean errenta baxuenen eta altuenen arteko behar-beharrezko ondasunen inflazio-diferentziala (*inflation inequality* deritzona). Gutxienez azken hamarkadako igoera handiena izan zen». Hau da, abenduan behar-beharrezko ondasunen inflazioa % 7,0 ingurukoa izan zen (gasolina aparte utzita), baina errenta baxuenekoentzat % 7,3koa, eta errenta altueneko herritarrentzat, berriz, % 6,5koa (Sánchez, 2022, 15. or.).

18. grafikoa. Euskadiko KPIaren urte arteko aldaketaren bilakaera, hilabeteka (2015-2022)



Iturria: EIN

Inflazioaren hazkundeak zuzeneko lotura du oinarrizko hornigaien garestitzearekin (batez ere elektrizitatea, gasa eta erregaiak). Oinarrizko hornigaien, garraioen eta behar-beharrezko ondasunen garestitzeak bat egin du aurreko krisiaren amaieratik etxebizitzaren prezioa izaten ari zen igoerarekin, eta batez ere errenta txikieneko familiei ari zaie eragiten, diru-sarreraren zati handiagoa bideratzen baitute kontsumora errenta altukoek baino. Gasaren eta elektrizitatearen prezio-igoera, berriz, pobrezia energetikoa deritzona areagotzen ari da. Oraingo prezio-igoeren aurretik ere oso tasa altuak zituen pobrezia -mota horrek Europan.

Etxebizitzaren, hornigaien eta behar-beharrezko gainerako ondasunen prezio-igoerak dakartzan ondorioak ez ezik (behin-behinekoa, espero dezagun), komeni da aintzat hartzea beste datu hau ere: energia-krisiari aurre egiteko eta klima-aldaketa saihesteko hartzen diren neurriek ez diete berdin eragiten herritar guztiei, baizik eta faktore hauen arabera: zer errenta-maila duten, zertan lan egiten duten, non bizi diren, zer mugikortasun-eredu daukaten... Eraldaketa ekonomiko eta sozialeko prozesu orok bezala, trantsizio ekologikoak ere gure bizimodua egokitzera behartuko gaitu, eta inbertsio itzelak egitera egun jaun eta jabe diren erregai fosilen ordez gutxiago kutsatzen duten beste energia-iturri batzuk erabiltze aldera. Epe laburrera, kostu handiak ekar diezazkieke familiei aldaketa horrek eta, seguruenik, maiz kontsumitzen ditugun ondasun batzuen prezioa igotzea. Familia behartsuenei eragingo die batez ere aldaketak; hori dela eta, neurriak hartu behar dira trantsizio ekologikoak ondorio bereziki kaltegarririk ez eragiteko talde sozial zaugarrienei (Suárez-Varela, 2022).



2.1.10. Aurreikuspen makroekonomikoak

Azkenik, 2022ko udaberrian Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako aurreikuspen makroekonomikoak eta koiuntura ekonomikoaren azterketa jasotzen ditu lan honek, non hurrengo bosturtekoan EAEko inklusio-politikak garatuko diren testuinguru soziala eta ekonomikoa aztertzen baita (Ekonomia eta Ogasun Saila, 2022).

Azterketak dioenez, «2020an hasitako pandemiaren ondorio kaltegarriak gainditzeko prozesuan dabil oraindik munduko ekonomia. Hurrengo hiru hilabeteetan normaltasuna nagusitzea espero zen, txertatze-kanpainen aurrerapenak eta laguntza makroekonomikoko politikak tarteko. Baina Errusiak abiarazitako gerrak arras ezabatzen du otsailaren 24a baino lehen egindako aurreikuspen ekonomiko oro. Ziurgabetasuna da nagusi munduko ekonomian, batez ere Europan, non ekonomiaren susperraldia nabarmen atzeratu eta ahulduko baita». Testuinguru horretan, «moteldu egingo da familien kontsumoa, inflazioak erosahalmena kentzen baitie. Gerrak dakarren ziurgabetasunak ere gutxiago kontsumitzera bultzatzen ditu familiak. Enpresaburuek, berriz, zuhurtziaz inbertituko dute. Tentsio inflazionistak eta hornidura-kateetako arazoak izango ditu ezaugarri epe horretako bilakaerak. Eskaintzari dagokionez, berriz, ekoizpenaren alor guztiek jaitsiko dute hazkundera aurreko epeko koadro makroekonomikoarekiko.

Koiunturari buruz eskuragarri dagoen informazioa baliatuta, 2022rako koadro makroekonomikoa berrikusi egin du Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak, beherantz nabarmen zuzendu, eta 2023rako lehen zenbatespena argitaratu. Aurreikuspen berrien arabera, 2022an % 4,5 izango da batez besteko hazkundera; 2023an, berriz, % 4,1. Beherantzko zuzenketaren zergati nagusiak, berriz, hauek dira: prezio-maila handiekiko prezio gogorragoak, hornidura-kateko etengabeko «inbutuak» eta ekonomiako eragileen konfiantzan egoerak duen eragina. Lan-merkatuan, berriz, hona zer dioten aurreikuspenek: % 2,8 eta % 1,8 haziko direla lanaldi osoko lanpostuen kopuruak 2022an eta 2023an, hurrenez hurren. Langabezia-tasa moteldu eta % 9,5 izango da 2022ko batezbestekoa; 2023an, berriz, % 9,1.



2.2. BAZTERKETA PREBENITZEKO ETA HARI EKITEKO EUSKAL POLITIKAK 2017-2022 EPEAN

2.2.1. Sarrera

Sarreran aipatu dugunez, gizarte-bazterketa prebenitu eta hari aurre egiteko EAEko politiken elementu nagusiak ageri dira atal honetan. Plan honek eta gizarte-bazterketaren aurkako EAEko politiken alderdi-aniztasuna kontuan harturik, politika hauek berariaz aztertzen ditu atalak: diru-sarreraren bermea, gizarte-zerbitzuak, enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza eta sistema hobeto antolatzeke eta kudeatzeko jarduketak.

Alor horietako bakoitzean EAEko herritarrek dituzten beharrak jorratu ditugu aurreko ataletan; honako honetan, berriz, alor bakoitzerako euskal administrazioek bultzatutako politikak izango ditugu aztergai, kontuan hartuta bai Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren bilakaera, bai administrazioek argitaratzen duten informazioa. Ez da homogeneoa arlo horietaz dugun informazioa, baina hala eta guztiz ere saiatu gara ardatz komun bati eusten: alde batetik, politika publikoen arlo horietako bakoitzaren magnitude nagusiak jaso ditugu (gastua, erabiltzaileak, eraginkortasun-adierazleak, noiz dauden prest eta abar); bestetik, azken urteotako aurrerapen nagusiak eta politika horien gidari diren lege eta plan sektorialetan atzemandako proiektuak eta ekintza-lerroak.

Azterketa hori abiapuntu dela, helburuak eta ardatz estrategikoak zehaztu aurretik hau jaso da azken epigrafean: zer erronka eta beharri egin behar dien aurre Inklusiorako V. Euskal Plan honek alor horietako bakoitzean.

2.2.2. Diru-sarrerak bermatzeko politikak

a) Magnitude nagusiak

Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren magnitudeen azterketan, lehenik eta behin sistema horren eta Espainiako Estatu osokoaren arteko aldeak ikusiko ditugu; izan ere, oso desberdinak dira gastua finantzatzeko bi sistemen ereduak.

Beheko taulan ikusten denez, ordaindutakoaren araberako Gizarte Segurantzako prestaziotan hileko eta biztanleko Euskadiko gastua Espainia osokoaren % 152 da; kotizazio gabeko pentsiotan egiten den gastua, berriz, % 60. Bestalde, ordaindutakoaren araberako Euskadiko langabezia-prestazioetako gastua Espainiakoaren % 91 da; laguntzako langabezia-prestaziotako gastua, berriz, Espainiako biztanleko gastuaren % 49. Aldiz, gutxieneko errentak ordaintzeko EAEko gastua Espainiako baino ia % 500 handiagoa da. Hau da, Estatuko Administrazio Orokorrek ordaindutakoaren araberako prestaziotan Euskadin egiten duen gastua Espainia osoan egiten duenaren parekoa edo handiagoa da; laguntzako prestaziotan egiten duena, berriz, nabarmen txikiagoa. Alabaina, administrazio zentralak laguntzako prestaziotan Euskadin egiten duen inbertsio txikiagoaren konpentsagarri, gastu autonomikoa bost aldiz handiagoa da Euskadin.

14. taula. Hileko gastua, biztanleko, Euskadiko eta Espainiako gizarte-babeseke zenbait prestaziotan (2020/2021)*

	Espainia	Euskadi	Euskadi=Espainia 100
Kotizaziopeko pentsioak (INSS)	216,0	328,4	152,0
Kotizazio gabeko pentsioak (IMSERSO)	3,9	2,3	60,2
Langabezia-prestazioa (SPEE)	40,4	31,4	77,6
- Kotizazio-maila	27,4	25,0	91,2
- Laguntza-maila	13,0	6,4	49,2
Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko diru-kopurua (INSS)	2,0	2,0	98,9
Gutxieneko errentak (autonomia-erkidegoak)	41,6	205,8	494,7
Guztira	306,2	412,6	134,7

Iturria: Geuk prestatua, Gizarte Eskubideak eta 2030 Agendarako Ministerioaren Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten gaineko Txostena eta Gizarte Segurantza, Inklusioa eta Migrazioak Ministerioko Gizarte Prestazioen Banaketa Geografikoari buruzko Inkesta oinarri zirela.



*EAOren prestazio-gastuei buruzko datuak 2021eko irailekoak dira; gutxieneko errentetako gastuari buruzkoak, berriz, 2020an egindako gastu osoari dagozkie, 12rekin zatitua.

Estatu osoko datuekiko konparaketak alde batera utzi eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari erreparatuta, taula honetan duzue prestazioaren titular diren herritarren kopurua izan duen bilakaera (urteko eta urte bakoitzaren amaieran), prestazio horretarako urteko gastua eta pertsona titular bakoitzak jasotako batez besteko zenbatekoa. Taulan ikusten denez, 2019ra arte jaitsi egin zen titularren kopurua eta gastua, gora egin zuen 2020an, behera berriro 2021ean, eta bere horretan iraun du prestazioaren batez besteko zenbatekoa.

15. taula. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak Euskadin izan duen bilakaera

	2017	2018	2019	2020	2021
DSBEak 12/31n zituen titularren kopurua	60.405	55.380	52.455	54.747	52.721
DSBEak urtean zehar izan zituen titularren kopurua	76.183	72.502	67.063	67.529	68.698
DSBErako gastu arrunta, guztira*	483.662	453.563	422.487	449.871	426.612
Titular bakoitzeko urteko batez besteko zenbatekoa	6.349	6.256	6.300	6.662	6.210

Iturria: Geuk prestatua, Lanbideren, Gizarte Zerbitzuen Inkestaren (Justizia, Berdintasuna eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organoa) eta Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko prestazioen onuradunei buruzko Estatistikaren informazioa (Lana eta Enplegua Sailaren Estatistika Organoa) oinarri zela. * Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria ere sartzen da.

DSBEren eta BGDSren baterako hedapenari buruzko datu berriek agerian uzten dute 2022ko urrian 59.084 pertsonak bi prestazio horietako bat jasotzen zutela Euskadin: horietatik %66,3k DSBEa bakarrik galtzen dute, %16,8k BGDSa jasotzen dute, DSBEarekin osatuta, eta %16,9k BGDSa bakarrik. Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen estaldura, guztira, 6,5 da –euskal familien kopuruaren arabera kalkulaturik, ez Euskadiko biztanleen arabera–. Estaldura hori 1,1koa da, bai BGDSa soilik jasotzen duten pertsonen kasuan, bai DSBEa eta BGDSa batera jasotzen dutenen kasuan; DSBEa bakarrik jasotzen dutenen kasuan, berriz, 4,3koa da.

16. Taula. DSBEren eta BGDSren hedapenari buruzko datuak Euskadin

	Absolutuak	Banaketa	Estaldura
DSBE bakarrik jasotzen duten pertsonak	39.152	66,3	4,3
DSBE + BGDS batera jasotzen duten pertsonak	9.939	16,8	1,1
BGDS bakarrik jasotzen duten pertsonak	9.993	16,9	1,1
Guztira	59.084	100	6,5

Iturria: Geuk prestatua, Lanbideren informazioa erabilita.

Diru-sarrerak bermatzeko EAEko sistemaren eraginkortasuna dela eta, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Lege Proiektuak berak dio, zioen azalpenean, «hogeita hamar urteko garapenaren ondoren, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema euskal autogobernuaren ezaugarri nagusietako bat bihurtu da, arrakasta kolektibo bat, eta erreferentzia gure mugetatik kanpo. Gure inguruko herrialdeetako tankera horretako sistemen antzekoa da EAEko alor horretako gastu publikoa eta babes-ahalmena. Diru-sarrerak bermatzeko EAEko prestazioek pobrezia larritik babesten dituzte haiek jasotzen dituzten gehien-gehienak, eta arras jaisten Euskadiko pobrezia-maila eta gizarte-bazterketarena²⁸» (Eusko Jaurlaritza, 2022, 13. or.).

²⁸ Lege-proiektuak dioenez, «diru-sarrerak bermatzeko euskal eredia gai izan da pobrezia eta desberdinkeria hazkundera prebenitzeko eta eusteko, euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta enplegua sortzeko ahalmena kaltetu gabe, eta gabezia-egoeran dagoen biztanleria erakarririk gabe. Diru-sarrerak bermatzeko politikari esker, krisi-garaian Euskadik jasan duen beheranzko joerak ez du berekin ekarri pobrezia-egoera larrien areagotze nabarmenik. Euskal prestazio-sistemak ez du arriskuan jarri Euskadiren etorkizuna, alderantziz baizik: beste autonomia-erkidego batzuekiko EAEk duen egoera sozioekonomiko hobearen arrazoi bat da, ongizatearen bidean aurrera jarraitzeko duen ahalmenaren eragileetako bat» (2022, 14. or.).



Bai lege-proiektuak, bai gaiari buruzko azken azterketek datu hauek plazaratu dituzte:

- PGEIaren datuen arabera, DSBEak % 31 eta % 38 bitarte —zen urte aztertzen den— jaitsarazi ditu pobrezia errearen tasak. Prestazio horri esker saihesten dute pobrezia EAEko herritarren % 3 inguruk²⁹. Alabaina, prestazioa jasotzen dutenetatik askok (erdiak, gutxi gorabehera) ez dute lortzen pobreziatik irteera; dena den, nabarmen gutxitzen da pobrezia-erregulazioaren intentsitatea edo, beste era batera esanda, pobrezia-atalasearekiko tartea handitu egiten da. Bestalde, pobrezia erreala jasaten dutenen herenak ez du prestazioa jasotzen, horretarako baldintzarik ez dituelako betetzen edo beste arrazoi batzuegatik.
- Lan eta Enplegu Sailaren Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legerako Oinarrien Dokumentuak (2021), berriz, zera dio, DSBEa jasotzen duten herritarren % 82,2k pobrezia larria pairatzen dute euren diru-sarrerak soilik baliatuta: egoera horretan daude familiaburuak 65 urtetik gora dituen unitateen % 55, eta lau kide edo gehiago dituztenen % 96. DSBEa eta, hala badagokio, EPOa jasoz gero, herritar horien pobrezia-tasa % 9,8ra jaisten da, hots % 90 ingurukoa da pobrezia-erregulazioaren murrizketa. Pertsona bakarreko familietan eta 65 urtetik gorakoak buru dituztenetan lortzen da gehien jaitea pobrezia, ia erabat ezabatzeraino; aldiz, nahiko maila altuetan jarraitzen du hiru kide edo gehiago dituzten familietan eta beren ardurapean seme-alabak dituztenetan (familia-mota horietan, txikiagoak dira premia-egoeren murrizketa-portzentajeak).
- Orain arte egin diren DSBEaren ebaluazioen arabera, ez da nabaritu pizgarri horiek lanik ez egitera bultzatzen dituztenik hartzaileak. Egin diren azterketek diotenez, DSBEak ez du atzeratzen edo galgatzten haren hartzaileen lanbideratzea, alderantziz baizik: berariaz talde horri zuzendutako aktibazio-neurriak eraginkorrak dira prestaziotik enplegurako trantsizioa errazteko (De La Rica y Gorjón, 2018).
- EAEko gizarte-babesekeko sistemak pobrezia murrizteko daukan ahalmena ertaina da, Europako beste herrialde batzuetakoekin alderatuta, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazioez gain kontuan hartzen badira Espainiako Estatuak langabeei, zaharrei eta familiei ematen dizkien laguntzak. Gutxituz joan da ahalmen hori denborak aurrera egin ahala. Azken hamarkadan, pixkanaka jaitsi da 65 urtetik beherakoentzako laguntza-prestazioek pobrezia larria murrizteko duten ahalmena —% 65 2008an, % 53 2020an— (Zalakain, 2022).

b) *Diru-sarrerak bermatzeko politiken aurrerapen nagusiak*

- **Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege Proiektuaren garapena.** 2022ko maiatzaren 10ean onartu zuen lege-proiektua Gobernu Kontseiluak, eta parlamentuko izapideak egin zain dago. Hauek dira arauak dakartzan aldaketa nagusietako batzuk:
 - o Bermatutako prestazioen zenbatekoa igotzea, batez ere pobrezia larria murrizteko egungo ereduak eraginkortasun eskasa erakutsi duen arloetan (esate baterako, hiru kide edo gehiago dituzten familiak eta/edo beren ardurapeko adingabeak dituztenak).
 - o Bizikidetzaren unitatearen kontzeptua argitzea, etxe bereko bizikidetzaren unitate guztiei prestazioak bermatuz.
 - o Prestazioen kudeaketa normalizatu, erraztu eta arintzeko aurrerapenak —bai erabiltzaileen ikuspegitik, bai administrazio kudeatzailearenetik—, bai eta Administrazioarekiko harremanetan onuradunek dituzten eskubideak eta betekizunak argitzeko ere.

²⁹ Ez da harriztekoa pobrezia-erregulazioaren prebalentzia eta, batez ere, intentsitatea gutxitzeko ahalmen hori, kontuan hartzen badugu DSBEa jasotzen dutenen diru-sarreraren % 51,7 eta pobrezia-erregulazioaren dagoen biztanleria osoaren % 42,4 EAEko diru-sarrera sistematik datozela, PGDIaren arabera. Hona pobrezia-erregulazioaren dagoen EAEko herritarren gainerako errenten jatorri nagusia: enplegua (% 24,4), Gizarte Segurantzaren pentsioak (% 8,7) et langabezia-prestazioak (% 16,5). Nabarmena da, bestalde, alde handiagoa dagoela errentak bermatzeko euskal sistemaren eta Espainiako estatuko babes-sistemaren artean EAEko familia pobreen diru-sarreretan duten eraginari dagokionez, eta ikusteko dago zenbat aldaketa duen egoera hori BGDSaren sendotzeak (FOESSA Fundazioa, 2022).



- Estatuko araudi berrira egokitzea, batez ere BGDSa edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara.
 - Zenbait hobekuntza prestazioaren eta soldata bidezko diru-sarreraren arteko bateragarritasunari dagokionez (kendu egin da enplegu-pizgarrien behin-behinekotasuna). Pobreziaren tranpa deritzona desaktibatzeke eraginkorra dela erakutsi du mekanismo horrek, eta babes hobea eskaintzen diela soldata urriko langileei.
 - Koordinazio hobea gizarte-zerbitzuen, enpleguen eta diru-sarrerak bermatzeko artean.
 - Hobetu egin da sistemaren kudeaketa, eta sustatu egin dira ebaluazio-, berrikuntza-, ikerketa-eta esperimentazio-ahalmenak, funtzio horiek garatzeko organo independente bat sortuta.
- **Abenduaren 20ko 19/2001 Legea onartu da, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen eta haren kudeaketaren eskumena Eusko Jaurlaritzari transferitzen diona.** Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegokoaren arteko Transferentzia Batzorde Mistoak onartu eta ziurtatu zuen transferentzia, martxoaren 16an. Erabaki horren arabera, Eusko Jaurlaritza arduratuko da Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera kudeatu, aitortu eta ordaintzeaz, eta bertan behera geratzen da Euskadiko Autonomia Erkidegoan prestazio hori kudeatzeko agindua. Bestalde, berekin dakarte transferentziek Estatuko Administrazio Orokorrek ere finantzatzea diru-sarrerak bermatzeko politikak; horretarako, EAEko administrazioek administrazio zentralari ordaintzen dioten Kupotik % 6,24 deskontatuko da, hori baita Estatu osoan BGDSa finantzatzeko erabiltzen den portzentajea. Estatuak 187 milioi euro ordainduko dizkio urtero EAERI (estimazioa) bide hori erabiliz, hots, DSBEak Eusko Jaurlaritzari eragiten dion gastuaren % 43 inguru.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legea behin betiko onartzeak, berriz, berekin ekarri du haurrentzako osagarri baten sorrera. BGDS arrunta eskuratzeko atalasearen % 300erainoko diru-sarrerak baino txikiagoak dituzten familiek jaso dezakete osagarri hori. Ondorengoko 50 eta 100 euro bitartekoa da laguntza, haren adina zein den. Fokalizazio nahiko eskasa duenez, pentsatzeak da seme-alabak dituzten Euskadiko familia dezente jasoko dutela laguntza, eta eragin handia izango duela haurren pobrezia murrizteko ekinean.

- **Aldaketak prestazio familiarren diseinuan.** Zenbait aurrerapen egin dira azken urteotan Justizia, Berrintasuna eta Gizarte Politiketako Sailak kudeatzen dituen seme-alabentzako prestazioetan³⁰. Bestalde, demografiaren erronkaz osoko bilkura monografikoa egin zen Eusko Legebiltzarrean maiatzaren 18an eta, besteak beste, hau erabaki zen: 2023tik hilean 200 euroko prestazio bat martxan jartzea familien ardurapeko seme-alabentzat (0-3 bitartekoentzat). Bateragarria izango da prestazio hori PFEZren kenkari fiskalekin eta DSBE/BGDS sistemako haurrentzako prestazio osagarriekin, 100.000 eurorainoko errenta estandarizatuak dituzten familientzat. Gobernu Kontseiluak 2022ko ekainaren 21ean onartutako Erronka Demografikorako 2030 Estrategiaren baitakoak dira aldaketa horiek. Hogeita hamasei ekimen osagarri ditu estrategia horrek, guztiak ere susperraldi demografikoaren aldeko zenbait neurri eta baldintza dituen ekosistema bat eratzea xede dutenak.

Erabateko aldaketa eragin dute bi neurri horiek —BGDSaren haurrentzako osagarria eta 0-3 bitarteko ondorengoentzako prestazio ia unibertsala, laster onartzekoa— adingabeak dituzten familiei Euskadin eskaintzen babes-mailetan.

- **Beste hainbat jarduketa.** Diru-sarrerak bermatzeko politikari dagokionez, aipatzekoak dira Aldi Baterako Enplegu Espedienteak osatzeko (ABBEak) Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLLak). 2020an, *Inor Atzean Utzi Gabe Funtsa* jarri zen martxan, COVID-19aren krisiak gizartean eragindako inpaktuari aurre egiteko. Oinarrizko beharrak asetzeko berariazko programak ditu funts horrek: *Guztion Artean* (behar-beharrezko produktuek banatzea eta gizarte-laguntza ematea) eta *Azken Sarea Indartzen* (oinarrizko beharrak estaltzea GLLak eskuratu ezin dituztenei). Eta ez ditzagun ahantzi herritarren oinarrizko premiei aurre egiteko udalek erabilitako baliabide ekonomikoak.

³⁰ Kontuan hartzeko modukoa da datu hau ere: ardurapeko seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzei buruzko Dekretua aldatzen duen 121/2018 Dekretuaren onespena (EHAA, 2018/08/06), hirugarren urte bat gehitzen baitie bigarren seme-alaba bat izaten dutenei.



c) *Diru-sarrerak bermatzeko Euskadiko politiken erronkak, bazterketaren eta pobreziaren prebentzioaren ikuspegitik aztertuta*

DSBEa arautzeko lege berria prestatzearren prestazio horren funtzionamenduaz eta eraginkortasunaz egindako azterketek erakutsi dutenez, hauek dira diru-sarrerak eta inklusioa bermatzeko euskal ereduaren erronka nagusiak:

- Arrakastaz burutzea diru-sarrerak bermatzeko euskal sisteman Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera txertatzeko prozesua.
- Prestazioaren zenbatekoak doitzea, batez ere familia-unitate handienei dagozkienak, eta eskatzaile izan daitekeen herritarren portzentaje handiagoa artatzea, sarrera-irizpideak malgutuz eta/edo *non take up* deritzona murrizteko politikak martxan jarritz.
- Prestazioa kudeatzeko tresnak hobetzea, administrazio-eredu arinagoak, normalizatuagoak eta automatizatuagoak bultzatuz.
- Sendotzea diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren aldeko adostasun politikoa eta soziala.
- Genero-arrakalak saihestea prestazioa eskuratzeko prozesuan eta haren eraginkortasunean.
- PFEZri dagozkion prestazio ekonomikoen eta onura fiskalen koordinazioa hobetzea, eta adingabeak dituzten familien aldeko politikak sendotzea. BGDSak hobetu egin du alor hori, baina hala ere hau da oraindik ere gizarte-babeseko euskal sistemaren gabezia nagusietako bat: ondorengoentzako prestazio-sistema unibertsal eta bermaturik ez dagoela.
- Indartzea enplegua sustatzeko mekanismoak eta, oro har, pobreziaren tranpa prebenitzeko eta soldata urriko langileak babesteko politikak.
- Aurrera egitea etxebizitza duina izateko eskubide subjektiboa gauzatzeko prozesuetan, eta sendotzea sistema hauen arteko koordinazioa: etxebizitza, enplegua, gizarte-zerbitzuak eta diru-sarreraren bermea.
- Laguntza individualizatuko formula eraginkorrak eskaintzea DSBEaren hartzaileei enplegu-zerbitzuek —beharrak batez ere lan-alorrekoak badira— eta gizarte-, osasun-, hezkuntza- eta etxebizitza-zerbitzuek, laguntza soziala edo gizarte- eta hezkuntza-arlokoa behar badira.
- Hobetzea sistema kudeatzeko eta ebaluatzeko tresnak.



2.2.3. Enplegu- eta lanbideratze-politikak

a) *Magnitude nagusiak*

Funtsezkoak dira enplegu politikak —aktiboak zein pasiboak— gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden herritarrentzako estrategietan, batez ere enplegua aurkitzeko berariazko zailtasunak dituzten pertsona guztientzat. Enplegu-politikekin batera, lan-merkatuaren erregulazioa ere ezinbestekoa da enpleguari lotutako gizarte-bazterketa prebenitu eta hari ekiteko.

Enplegu-politika pasiboek dagokienez, hona zenbait datu aipagarri:

- 2020an, 2.050 milioi euro gastatu ziren langabezia-prestaziotan, aurreko lau urteetan halako bi, non mila milioi euro ingurukoa izan baitzen gastua. SEPE, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak finantzatzen du gastu horren bi heren inguru.
- 2021eko abenduan, hilean 61 milioi euro gastatu zituen SEPEk Euskadin langabezia-prestaziotan. Zenbateko horretatik, % 76 kotizaziopeko prestazioei dagokie, eta % 24 kotizazio gabekoei. Onuradunak, berriz, 50.601 dira; horietatik, % 57k kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute, eta % 43k kotizazio gabekoa.
- Lehenago ere aipatu dugunez, Euskadin 375 bat euro gastatzen da, biztanleko, prestazio horiek ordaintzen; Espainian, berriz, 484; besteak beste, Euskadiko langabezia-tasak Espainiakoak baino txikiagoak direlako.
- Estaldura-tasa ere txikiagoa da Euskadin Espainia osoan baino, eta horren ondorio da hemen gastua txikiago izatea: Euskadin, langabeen % 52k jasotzen dute langabezia-prestazioa; Espainian, % 60k.

Enplegu-politika pasiboen diseinuari dagokionez, langabeentzako laguntza-maila erraztea eta hobetzea aurreikusten du Lan Ministerioaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak³¹. IPREMaren % 80koa da subsidioaren zenbatekoa (450 bat euro), eta honen araberakoa da haren iraupena: hartzailearen adina, haren inguruabar familiarak eta agortutako prestazioaren iraupena. Neurriaren helburua, berriz, zera da, langabeziagatiko babesaren areagotzea —estaldura hobetuz, subsidioen iraupena luzatuta—, egungo programen babesgabatasun-hutsuneak ezabatzea, eta sistemaren funtzionamendua sinplifikatzea, aukera-kopurua gutxituz argitasuna eta segurtasun juridikoa hobetzeko eta kudeaketa errazteko.

b) *Enplegu-politiketan egin diren aurrerapen nagusiak, gizarte-bazterketaren prebentzioari eta haren aurkako jarduerari dagokienez*

Enplegu-politika aktiboak, berriz, EAEko administrazioaren eskumenak dira. Hona alor horren jarduera-lerro eta aurrerapen nagusiak:

- **2021-2024 Enplegu Plan estrategikoa.** Iragan apirilean onartu zuen Gobernu Kontseiluak 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoa, zeinak 2.071 milioi euro inbertitzea aurreikusten baitu 80.000 enplegu sortu, 23.000 enpresari lagundu eta 48.100 langaberi prestakuntza eguneratua emateko. Planaren helburuetatik, hau da nagusia: kalitateko enplegua sustatzea, herritar guztiak gizarteratzen eta lanbideratzen lagundu dezan. Planaren lerro estrategikoei dagokienez, berriz, hauek dira aipagarrienak, enpleguari lotutako bazterketa-egoeren aurkako ekimenaren ikuspegitik begiratuta:

³¹ Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak eta Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren programek (GEA) eta Ohiz kanpoko Langabezia Subsidioak (OLS) arautzen duten langabeziatik babesteko laguntza-maila ordezkatzea du xede aldaketa horrek. Kotizaziopeko prestazioaren osagarri den prestazio berri batean bilduko dira laguntza guztiak, enplegurako trantsizioa errazteko. Helburua: prestazioa agortzeagatiko ohiko subsidioan txertatzea orain arte sortutako ohiz kanpoko modalitate guztiak (RAI, SED, SACO, SET...). BGDSaren garapenarekin koordinatuta egingo da txertatze hori, onuradun-kopuruaren areagotzea eta inklusio-ibilbideen garapena ere barne direla. Langabezia-prestazio bat izango da subsidio berria, kotizaziopekoaren osagarria, alde aurreko kotizazioei lotua eta langabezia-prestazioetarako aurrekontuak finantzatua (langabezia-kuota).



- 2.4 lerro estrategikoa: Lan-baldintzak eta enplegu-egonkortasuna
 - 4.1 lerro estrategikoa: Enplegu- eta trebakuntza-programak langabeentzat eta talde zaugarri-entzat
 - 4.3. lerro estrategikoa: Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege berria aplikatzea
 - 8.1. lerro estrategikoa: Euskal Enplegu Sistemari buruzko Legea garatzea eta onartzea
 - 4.4 lerro estrategikoa: Enplegu inklusiboa
- **Lanbide Hobetzen.** Hona Euskadiko enplegu-politika aktiboen alorreko bigarren jarduera-ardatz nagusia: Lanbide Hobetzen Plana martxan jartzea. 2022-2024 Enplegu Plan Estrategikoaren mendekoa da Lanbide Hobetzen, 2021eko amaieran onartu zuen Lanbideko administrazio-kontseiluak, enplegu-zerbitzu publikoa eraldatzeko eta hobetzeko, aldaketak eraginez haren antolakuntzan, arretan, esku-hartzean, trebakuntzan eta orientazioan.

Hau da Planaren helburua: «Lortzea Lanbide lan-merkatua suspertzea eta haren kalitatea hobetzea, arreta berezia jarriz talde behartsuenen egoerei; kudeaketa eta dirulaguntzak ematen dituen erakunde izateari uztea eta herritarrei zein enpresei zerbitzu ematen dien erakundea bihurtzea eta, honenbestez, politika aktiboak lehenestea, betiere politika pasiboan estaldura galtu gabe, ematen diren zerbitzuak etengabe ebaluatuz eta birdiseinatuz». Xede hori lortzeko, zerbitzu-zorro gisako diseinua izan behar dute sail eta bulego guztiek, eta haien osagarri izango den laguntzaile-sare zabal batekin lanean jardun. Lehen-tasuna emaitzak dituen zerbitzu publikoa izango da, programak, proiektuak eta haien eraginkortasuna ebaluatzen dituen, haien lortze-maila neurtzeko. Hori lortze aldera zehaztuko dira garatu beharreko le-erro estrategikoak, haien lehen-tasuna, haiek ezartzeko zailtasuna eta zerbitzuaren hobekuntza izan dezaketen inpaktuak. Behin-behinekoa izango da ataza guztien planifikazioa.

- **Enpleguaren Euskal Legearen Aurreproiektua.** Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailak hasi berria du Enpleguaren Euskal Legearen izapidetzea. Hau da lege horren xedea: herritarren eskubideak eta beteki-zunak zehaztea haien enplegarritasuna hobetzeko, Enpleguaren Euskal Sarea sortzeko eta haren zerbitzu-zorroa eta kudeaketa antolatzeko. Beste helburu ere baditu: zehaztea zer eskumen dituen Euskadik enpleguaren, gobernantza-ereduaren eta enplegu-politika publikoen plangintza, partaidetza eta finantzetaren alorrean, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erregulatzea. Zehazkiago, Legeak:
- Enpleguaren Euskal Sarea sortzen du, lankidetzat-tresna izan dadin. Sareak ez du nortasun juridiko propiorik, eta hauek osatzen dute: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, foru-aldundiek, udal-ek, toki-erakundeek, dagozkien sektore publikoetako erakundeek eta enplegu-zerbitzuen zorroa, enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak eta Sareko partaideek enplegua dela eta adosten duten ekimen oro kudeatzen dituzten erakundeek.
 - Elementu hauek osatzen duten zerbitzu-zorro bat eratzen du: orientazio-zerbitzuak, laneko trebakuntza, bitartekaritza eta enplegua, autoenplegurako eta ekintzaitzarako aholkularitza, enpresentzako aholkularitza, lan-merkatuari buruzko informazio-zerbitzu aurreratua.
 - Enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak txertatzen ditu, honetarako: lanbideratzea sustatzeko, ezagutzak eta gaitasunak etengabe eguneratzeko, biztanleria aktiboaren gaitasun profesionalak balioesteko eta enplegu-tasak igoarazteko. Batez ere lehen-tasunezko arreta behar duten taldeei aplikatuko zaizkie enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak.
 - Erreferentziako profesional bat izateko eskubidearen jabe egiten dituen enplegu-zerbitzuak eskatzen dituzten herritar guztiak.
 - Informazio-, diagnostiko-, profilaketa-, behaketa- eta prospekzio-tresna komunak ezartzen ditu.
 - Argitu egiten ditu enplegu-politiken alorrean euskal administrazio publikoek dituzten funtzioak eta eskumenak.
 - Aldatu egiten du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren izaera juridikoa.



Zehazkiago, Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren helburu nagusietako bat —enpleguari dagokionez, eta gizarte-bazterketa jasaten duten edo horren arriskupean dauden herritarren ikuspegitik begiratuta— gazteen eta enplegarritasunaren aldetik laguntza gehiena behar dutenen lanbideratzea da. Planaren ebaluazioari jarraiki, zenbait jarduketa garatu dira enplegarritasunaren aldetik laguntza-premia handiena duten herritarrek lanean jartzeko, bai enpresa arruntetan bai gizarte-ekonomiaren esparruan, haien gizarteratzea eta bizi-kalitatea hobetzearren. Berariaz aipatzekoak dira urtero egiten diren deialdi hauek:

- Enpresek eta toki-erakundeek gazteak kontratatzeko laguntzak.
- Lehenbiziko lan-esperientzia izateko laguntzak.
- Langabezian luzaroan dagoen jendea kontratatzeko laguntzak.
- Laguntza-premia handiena duen jendeari laguntza soziolaborala emateko proiektu bereziak.
- Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko Euskarri Estrategia.
- Enplegu-zentro berezietarako eta laguntza-unitateetarako laguntzak.
- Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko pizgarriak.
- Langabeentzako prestakuntza-planetarako laguntzak.
- Gazteei zuzendutako ikasteko eta enplegua sortzeko Reactivate programa.
- Aktibatze tokiko ekintzak gazte eta langabeentzat.

Azpitarratzekoa da, bestalde, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Lege Aurreproiektuak jasotzen duela Lanbidek laneko edo lan-arloko berariazko alternatibak eskaintzeko konpromisoa hartzen duela bere gain, prestazioa jarraian jasotzen emandako denbora jakin bat gainditu aurretik. Halaber, jasotzen diren soldata-osagarrien erregulazioan aldaketak egitea proposatzen du, DSBEaren barruan betiere, enpleguari pizgarriak emanez eta behin-behineko izaera kenduz³².

Aipa dezagun, azkenik, Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa, izenburua «Lurraldean errotutako arlo kolektiboaren indarra» duena, zeinak 328,5 milioi euroko inbertsio publikoa aurreikusten baitu hurrengo lau urteetarako.

Enplegu-politika aktiboei lotutako jarduketekin batera, aipatzekoak dira lan-merkatua erregulatzeko Espainiako Estatuan egindako aldaketa batzuk ere, zeinek eragin nahiko handia izan baitezakete —izaten ari dira jada— enplegu-prekarietatearen prebentzioari dagokionez.

- Alde batetik, Espainiako Gobernuak 2022ko martxoan onartu zuen Lanbidearteko Gutxieneko Soldata hilean mila euro gordineraino igotzea, 14 ordainsaritan banatuta (urtean 14.000 euroko soldata gordina).
- 2021eko amaieran, lan-merkatua erregulatzen duen araudian zenbait aldaketa egitea onartu zuen Espainiako Parlamentuak. Kontratuen behin-behinekotasuna saihestearren, mugagabeko kontratua lehenesten du lan-erreforma horrek. Iraupen mugatuko kontratuak onartzeko, zenbait baldintza zorrozki bete behar dira. Honenbestez, lan-kontratuaren iraupena mugagabea dela jotzen denez gero, iraupen mugatuko kontratuak kasu hauetan bakarrik sina daitezke: ekoizpenaren gorabeherak hala eskatzen dutelako,

³² Lege Proiektuaren hirugarren xedapen iragankorraren arabera, «enplegua eskuratzeko eta hari eusteko mekanismoak arautzen dituen erregelamendua indarrean sartu arte Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko otsailaren 14ko Agindua aplikatuko da, Oinarrizko Errentaren titularrentzako eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunentzako enplegu-pizgarriak ezartzen dituen. Kasu guztietan, mugagabea izango da pizgarrien aplikazioa, eta ezingo zaio ezarri gehieneko iraupenik».



edo langilea ordezkatu beharra dagoelako. Erregulazio berriak aldaketa esanguratsua eragin du kontratu mugagabe berrien portzentajea.

- Berreskuratu egin da aurreraeragin mugagabea (hitzarmen kolektibo bateko baldintzen indarrean jarraitzea haren berariazko indarraldia amaituta ere), eta bertan behera utzi enpresako hitzarmenaren soldatak zuen lehentasuna.

c) Enplegu-politiken erronka nagusiak, bazterketa-egoeren prebentzioaren ikuspegitik begiratuta

Honenbestez, hauek dira Inklusiorako V. Euskal Planaren helburu nagusiak enplegu-politika aktiboei dagokienez³³:

- Enpleguaren hazkundera sustatzea pandemiaren ondoren, bai krisi-garaian galdutako enpleguak berreskuratuz, bai egungoak sendotuz, bai berriak sortuz.
- Herritar guztiei kalitateko lana bermatzen laguntzea, behin-behinekotasuna, gogoz kontrako lan partziala eta, oro har, enplegu prekarioa eta lan-baldintza eskasekoa murriztuz.
- Iraupen luzeko langabeziari aurre egitea, gizarte-politikarekin elkarlan estuan, lanik ezaren kronifikatzea saihestuz talde bereziki zaurgarrietan: 45 urtetik gorakoak, gizartetik baztertera geratzeko arriskuan daudenak, migratzaileak eta abar.
- Langabeziaren eta gizarte-bazterketako egoeren aurkako babes-mekanismoak sendotzea.
- Lan-merkatura sartzearrazte emakumeei, genero-arrakalak ezabatuz arlo guztietan: soldatak, lanbideak, enplegu-kalitatea eta abar.
- Ekintzailatza, autoenplegua eta gizarte-ekonomia sustatzea; izan ere, langabezia-egoera askoren konponbidea hau izan daiteke: negozioak eta enpresa txikiak sortzeko ekimenak garatzea langabeek eurek.
- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea onartzea, estaldura hobetu, prestazio ekonomikoak eskuratzeko bidea erraztu eta zailtasunak dituzten EAEko herritarrei aiseago eskura ditzaten gizarte-zerbitzuak eta kalitateko enplegua.
- Hobetzea enplegu-politika aktiboen eta langabeziatik, pobreziatik eta/edo gizarte-bazterketatik babesteko mekanismoen arteko koordinazioa.
- Euskal Enplegu Sistemaren Legea onartzea, enplegu-politika aktiboez baliatzeko eskubide subjektiboa bermatzeko, eta enplegu-politikan esku hartzen duten eragile guztien kudeaketa, lankidetzeta eta koordinazio egokia sustatzea.

Hauek dira helburu operatibo nagusiak³⁴:

- Enpleguaren berreskuratzea, sorrera eta/edo mantentzea sustatzea.
- Biztanleria landunaren behin-behinekotasun-tasa gutxitzen laguntzea
- Biztanleria landunaren nahi gabeko partzialtasun-tasa gutxitzen laguntzea
- Enplegu- eta trebakuntza-programak garatzea talde zaurgarrientzat eta bazterketa jasaten edo jasateko arriskua dutenentzat.

³³ Enplegu Plan Estrategikoaren helburu estrategiko hauek jasoko dira: enpleguaren alorreko gizarte-bazterketaren prebentzioarekin eta haren aurkako ekimenarekin lotura estuenak dutenak.

³⁴ Enplegu Plan Estrategikoaren helburu operatibo hauek jasoko dira: enpleguaren alorreko gizarte-bazterketaren prebentzioarekin eta haren aurkako ekimenarekin lotura estuenak dutenak.



- Trebakuntza- eta enplegu-programak garatzea sektore tradizional zein berrietako kualifikazio urriko jendearentzat.
- Langabeen enplegarritasuna hobetzea, haiek orientatzeko, aktibatzeke, trebatzeko eta gaitzeko programen eta lanbideratzeko jarduketara lagungarrien bidez.
- Esku-hartze, arreta- eta zerbitzu-eredu berria ezartzea Lanbideren bulego-sarean.
- Enpleguaren Euskal Legea garatzea eta onartzea.
- Emakumeen gizonekiko soldata-arrakala erdira jaisten laguntzea.

2.2.4. Gizarte-zerbitzuetako politikak

a) *Magnitude nagusiak*

Hurrengo taulan, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat Euskadin erabilgarri dauden egoitzetako eta eguneko arretako plazen kopurua jasotzen da, bai eta plaza horien estaldura ere, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio Txostenean oinarrituta. Datu horien arabera, plaza-kopurua 2.279 izatetik 3.926 izatera igaro da 2012 eta 2019 artean, eta biztanleriari dagokionez, eguneko eta egoitza-arretarako 10 plazatik ia 18ra 10.000 biztanleko.

16. taula. Euskadin gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzu nagusien plaza-kopuruaren eta biztanleria-estalduraren bilakaera (16) 2012-2019


		2012		2019	
		Kopurua	Estaldura	Kopurua	Estaldura
Lehen mailakoa	Eguneko arreta	139	0,64	413	1,89
	Gaueko harrera	389	1,78	488	2,23
	Tutoretzapeko etxebizitza	413	1,89	921	4,21
Bigarren mailakoa	Eguneko zentroa	491	2,25	1.038	4,74
	Gaueko harrera	15	0,07	27	0,12
	Egoitza-zentroak	832	3,81	1.039	4,75
Guztira		2.279	10,45	3.926	17,94

Iturria: EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza, 2021. Estaldura, 10.000 biztanleko.

Plaza gehiago eskaintzea ez da bateraezina, inondik ere, lurralde historiko eta eskualde bakoitzean gastu publikoa eta/edo egun dauden plazen kopurua erritmo desberdinetan areagotzearekin, ez eta hiru lurraldeetan ezaugarri oso desberdinetako sareak egotearekin ere. Beheko grafikoan ikusten dira Gizarte Zerbitzuetan eskumenak dituzten administrazioen arteko aldeak bazterketa jasaten duten herritarrentzako egoitzetako gastu publikoari dagokionez, bai eta gastu publikoaren ebaluazioarekiko dituztenak ere.




1. grafikoa. EAEn gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzuetako gastua, lurralde historikoka eta arreta-mailaren arabera, eta 2012-2019 epean gastuak izandako bilakaera



Iturria: Geuk prestatua, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioko datuak oinarri zirela.

Bestalde, alde handiak daude lurraldeen artean zerbitzuei estaldurari eta sarearen osarari dagokienez (lehen mailakoa ala bigarrenakoa).

21. grafikoa. EAEn gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzu nagusien estaldura, lurralde historikoka eta arreta-mailaren arabera sailkatuta 2019




Iturria: Geuk prestatua, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioko datuak oinarri zirela.

Beste ikuspegi batetik, gizarte-zerbitzuek inklusiorako egiten duten gastuaren bilakaera jaso du hurrengo grafikoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoko prestatutako Gizarte Zerbitzuen Estatistikako datuak oinarri hartuta.



22. grafikoa. Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak artatzeko gizarte-zerbitzuen gastu arruntaren bilakera, lurralde historikoka. 2015-2019



Iturria: Gizarte Zerbitzuei buruzko estatistika. Estatistika Organo Espezifikoa. berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.

b) *Gizarte-zerbitzuen diseinuan emandako aurrerapauso nagusiak, gizarte-bazterketaren prebentzioaren eta haren aurkako borrokaren ikuspegitik begiratuta*

Inklusiorako gizarte-zerbitzuen arloan EAEn emandako aurrerapauso nagusiek lotura dute Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan jasotako zerbitzuen eta prestazioen hedapenarekin, bai eta Gizarte Zerbitzuen Maparen Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren garapenarekin ere. Zehazkiago, Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren ebaluazio-txostenaren arabera:

- Aurrerapausoak eman dira inklusiorako egoitza eta zerbitzuetako lehen mailako arreta-sarearen garapenean, batez ere gizarte-bazterketa pairatzen duten herritarren eguneko arretan (1.7), gizarte-bazterketa pairatzen duten herritarren gaueko harreran (1.8) eta gizarte-bazterketa jasateko arriskupean daudenen-tzako tutoretzapeko etxebizitzaren alorrean (1.9.2).
- Gizarte-inklusioko beharrak asetzeko EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako zuzkidurak garatu dira zerbitzuan edo eguneko zentroan gizarte-inklusioko beharrak asetzeko (2.2.3), bazterketa-arriskuan dauden herritarrentzako egoitzetarako (2.4.5), adingabeentzako egoitzetarako (2.4.4), egoera kronifikatuko herritarrentzako egoitzetarako (2.4.5.1) eta inklusio-beharrak dituzten herritarrentzako gaueko harrera-egoitzetarako (2.32).
- EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa egin da. Ebaluazioak dioenez, nabarmen egin da aurrera bazterketaren alorreko arreta-sarearen sendotzeari dagokionez, batez ere bazterketa jasaten dutenen bigarren mailako arretako eguneko arretan eta gaueko harreran; bestalde, sarearen hedapen geografikoan ere egin da aurrera neurri batean.
- *Inor Atzean Utzi Gabe* funtsaren bidez, berriazko programak jarri dira martxan bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskupean dauden herritarrak pandemiaren inpaktutik babesteko.
- Zerbitzu horien erregulazioari dagokionez ere eman dira aurrerapauso batzuk. Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte-inklusioko esku-hartze espezializatuko prozedura erregulatu du, 59/2019 Dekretuaren bidez;



Gipuzkoako Aldundiak, berriz, Zorro Dekretuko inklusiorako egoitzak eta zerbitzuak egokitu eta doitu ditu, eta hitzarmenak programa-kontratu bihurtu.

d) *Gizarte Zerbitzuetako politiken erronka nagusiak, bazterketa-egoeren prebentzioaren eta haren aurkako jardunaren ikuspegitik begiratuta*

Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioak erakutsi duenez, «Lehen mailako zein bigarreneko arretan lurraldean zerbitzuak hedatzeari eta artikulatzeari dagokionez, bazterketaren alorra da lan handiena eskatzen duena». Hona zer dioten Planaren ebaluazioaren ondorioek: «bazterkeria-sarea lau sareetatik ahulena izanik (bazterketa, mendekotasuna, babesgabetasuna, desgaitasuna), hura sendotzen jarraitu behar da, sarean bere osotasunean eraginez eta, batez ere, lehen eta bigarren mailako arretaren artikulazioan eta sarea lurraldean hedatzean, hiru hiriburuetan kontzentrazio-maila murriztuta» (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021, 68. eta 73. or.).

Bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskupean dauden herritarrentzako EAeko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioko gomendioek zera proposatzen dute, bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskupean dauden herritarrentzako arreta-sarea bultzatzea, lau helburu nagusi hauek dituen estrategia integralaren bidez:

- Hobetzea lehen eta bigarren mailako arretaren artikulazioa, hura hobetu eta malgutzeko eta, hartara, bi norabideko iragatea bultzatzeko.
- Lurralde bakoitzean gizarte-zerbitzuen sarea zabaltzen jarraitzea, gizarteratzeko ibilbideetan integratuta eta haiekin bat eginda, lehen eta bigarren mailako baliabide-sarea bermatuz eskualde bakoitzean, hedapena eraginkorra izan dadin eta txikiagoa, ahal dela, hiru hiriburuetakoko baliabide-kontzentrazioa.
- Etxebizitza-sistemarekiko GZESak duen egitekoa argitzea (ostatu-beharrak laguntza bidez estaltzen ditu, batez ere).
- Sare horren sendotze-prozesua amaitzea (lau sareetatik gutxienean garatu dena da, izan ere), pandemiaren inpaktu ekonomikoak eta sozialak bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden herritarrei eragin dien beharren areagotzeari erantzuteko.

Lau helburuei dagokienez, berriz, neurri hauek bultzatu behar dira:

- Bazterketa jasaten edo jasateko arriskupean dauden herritarren gizarteratze-ibilbideen arreta errazten duten protokoloak ezartzea, aurrera eta atzera eginez arreta-maila batzuetatik beste batzuetara aldatzeko edo arreta malgutzeko formulak aurkitzeko.
- Arreta-sarea deszentralizatzeko aukerak definitzea, udalen arteko lankidetzaren eta dagokion aldundiarekin ezarritako lankidetzaren bidez, udalerrin ertain eta txikietara iristeko, lurralde bakoitzaren beharrian eta baliabideen araberrako formulak erabilita: kudeaketa-aginduak; partzuergo, mankomunitate edo kuadrillen eraketa eta abar.
- Gizarte-zerbitzuen eta Etxebizitza arloen artean hausnarketa partekatua egitea bi eremuetan eskaintzen diren zerbitzuei eta prestazioei buruz, eta behar beste zehaztea. Halaber, gizarteratzearen arloko irizpide edo printzipio partekatuak, interes komunak eta lankidetzaren eremuak identifikatzea, bazterketa jasaten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzeari dagokionez.
- Lehen eta bigarren mailako zerbitzuak sendotzea, balorazio-zerbitzu teknikoetatik hasita, eta bermatzea maila bakoitzaren ahalmena bere eskumeneko prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko dituzten herritarren beharrak asetzeko une bakoitzean.
- Prestazio ekonomikoen (batetik, FGZPEa eta LPPEa, eta, bestetik, ZLPEa eta bazterketaren arloan artikulatzen ari diren laguntza ekonomiko batzuk) aplikazioari buruzko gogoeta eta planteamendu partekatua

egitea, bai eta beste zerbitzu batzuei (ELZ, adibidez) eta arlo horretan bizimodu independentea sustatzeko ikuspegiari buruzkoa ere.

Azkenik, estrategia hauek onartu dira azkenaldi honetan:

- Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia (2022-2026), antigitanismoaren aurkako euskal itun sozial baten oinarriak ezartzeko ekintza-lerro bat duena. Bat dator Estrategia Europako eta Espainiako Estatuko beste ildo batzuekin, eta genero-ikuspegia ere jorratzen du, besteak beste.
- Haur eta Nerabeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia (2022-2025), zeinaren helburua baita indarkeria-mota guztien prebentzioa eta haien aurkako esku-hartze goiztiarra, trinkoagoak izan daitezen arreta eta babesa, eta erakunde-bilbaduraren lankidetzeta eta elkarlana sendoagoa izan dadin.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren (EHSSSE) 2021-2024 Legegintzaldi Plana, zenbait alorretan garatu beharreko jarduketak jasotzen dituena; besteak beste, elkarriketa zibila sustatzea, Eusko Jaurlaritzaren eta EHSSSEaren lankidetzeta publiko-soziala bultzatzea, sektore soziala indartzea eta egituratzea, beste eragile batzuekin elkarlanean aritzea; sektorearen nortasuna, egitura eta aitortza, eta I+G+B soziala.
- Euskal politika publikoen zenbait alor ukitzen dituen arren, ezin aipatu gabe utzi atal honetan Etxerik Gabeko Pertsonentzako I. Euskal Plana (2018-2021), Eusko jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak bultzatzen duena, foru-aldundiekin, udalekin eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Osasun Sailekin elkarlanean.

2.2.5. Hirigintza- eta etxebizitza-politikak, bizitegi-bazterketaren prebentzioa eta oinarrizko hornigaiaren eskaintza.

Epigrafe honetan, elkarrekin lotura estua duten hiru alorretan azken urteotan Euskadin garatutako politiken ezauzgarri nagusiak aztertuko ditugu: etxebizitza-politika orokorrak, etxe-gabeziaren eta bizitegi-bazterketaren prebentziarako berariazko politikak, eta oinarrizko hornigaiak eskuratzeko politikak (ura, gasa, elektrizitatea eta erregaia). Elkarrekin lotura estua duten gaiak diren arren, bereiz aztertuko ditugu hemen etxebizitza-politikak eta bizitegi-bazterketari ekitekoak, lehenik eta behin; bigarrenik, berriz, oinarrizko hornigaiak eskuratzekoak, batez ere energia-pobretasunari aurre egitekoak.

a) Etxebizitza-politikak eta bizitegi-bazterketaren aurkakoak

Gizarte-bazterketa prebenitzeko eta hari aurre egiteko euskal ereduaren gakoetako bat hau da: esplizituki aitortzea, eta eskubide subjektibo gisa, legez etxe batean egonkortasunez egoteko eskubidea etxebizitza duinik eta egokirik eta halakorik eskuratzeko baliabide ekonomikorik ez dutenei. Hona zer dioten Ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, Etxebizitzari buruzkoak: Euskadiko Autonomia Erkidegoan administrazio-azotasuna duten pertsona guztiek eskubidea dutela etxebizitza duina, egokia eta eskuragarria izateko, eta Eusko Jaurlaritzak —bere organo eskudunen bitartez, toki-erakundeek eta etxebizitza-alorrean eskumenak dituzten gainerako erakunde publikoek eskubide hori betearazteaz arduratu behar dutela. Horretarako, dagozkion xedapenak eta neurriak hartu eta sustatu behar dituzte etxe bat eskuratu eta han legez bizi daitezen bizitzeko egokia den etxebizitzarik ez dutenek edo euren beharretarako desegokia edo segurtasunik gabeko etxea daukatenek.

Aipatutako Legearen 9. artikulua dioenez, honela betearazi behar dute etxebizitza duin eta egoki batean bizitzeko eskubidea horretarako eskumena duten euskal administrazio publikoek: etxebizitza edo bizitoki babestua eskainiz, errentan, baita salmenta libreko etxebizitza bat ere halakorik eskuragarri egonez gero bitartekaritza-programak edo bestelakoak direla medio, kasu bakoitzari dagokion errenta edo kanona kobratuta. Etxebizitzarik edo bizitokirik ez badago, prestazio ekonomikoko sistema baten bidez ase daiteke behar hori, subsidiarioki.

Gizarteratzeko IV. Euskal Planari jarraikiz, jarduketak hauek egin dira etxebizitza izateko eskubide subjektiboa betearazteko:



- Onartzea 149/2021 Dekretua, ekainaren 8koa, jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzkoa.
- Aurrerapausoak Etxebizitza Eskubide Subjektiboaren Dekretuaren izapidetzean. Aurreikuspenen arabera, 2022an onartuko da Dekretua³⁵.
- Etxebizitzak errentamendu eskuragarriko merkatura eramateko ASAP eta Bizigune programei eustea.
- Gaztelagun programa, gazteei etxebizitzak alokatzen laguntzeko, aktibo dago 2019tik³⁶.
- Indartu egin dira Larrialdietarako Udal Laguntzak, etxebizitza-gastuak ordaintzekoak.

Kontuan izan behar da, bestalde, etxebizitza-alorreko euskal politikek birgaitze-politikei eman dieten bultzada eta lehentasuna. Next Funtsa, irisgarritasunerako funts berezia eta energia-eraginkortasun areagotuaren aldeko laguntzak direla medio, estaldura-mekanismo oso ahaltuak dituzte eskura desgaituek eta haien familiek, 65 urtetik gorakoek eta diru-sarrera urriko familiek (inbertsioaren % 100eraino irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzeko lanetan).

2018-2023 Etxebizitzaren Gida Plana da EAEko etxebizitza-politikak planifikatu eta artikulatzeko tresna nagusia. Planaren helburu nagusia, berriz, hau da: erantzun integrala ematea etxebizitza duina eta egokia behar dutenei, areagotuz bai alokairu eskuragarrietarako baliabideen eskaintza, bai lehendik eraikia dagoen bizitegi-parkearen bizigarritasuna eta iraunkortasuna hobetzeko. Hona Planaren ezaugarriak: alokairu babestua sustatuz are irmo-ago jarraitzea, hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzeko programak sendotzea, etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzeko bidean aurrera egitea, birgaitze-politika sendotzea eta alokairuko etxebizitzaren eskaintza areagotzen, prezioen kontrola hobetzen eta birgaitzeagatikoen enpleguak optimizatzen dituen fiskalitatea bultzatzea.

Egoeren prebentzioarekin loturarik estuena duten jarduketetatik, hauek dira nagusiak:

- Etxebizitzak sustatu eta erostea, gero errentamendu babestuan jartzeko.
- Erakunde publiko eta pribatuentzako laguntzak bultzatzea, alokairu babestuko etxebizitzaren eskaintza susta dezaten.
- Zuzkidurazko bizitokien eskaintza sustatzea.
- Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa (EEES) garatzea zenbait talde berrireratzat.
- Alokairua ordaintzeko laguntza guztien kudeaketa koordinatua diseinatzea: Lanbideak kudeatzen duen EPOa Etxebizitza Sailak kudeatzen duen EPEaren esku lagatzea.
- Gaztelagun Programa indartzea eta zabaltzea.

³⁵ Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen erreformak ez du jasotzen jada Etxebizitzarako Prestazio Osagarria EAEko diru-sarrerak bermatzeko sistemaren parte gisa, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboarena artikulazioari eta etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen garapena ordezkatzeko duen prestazio osagarriari baitagokio, baina bigarren xedapen iragankorrek bermatu egiten du etxebizitzarako prestazio osagarriaren aitortzeko eta jasotzeko eskubidea harik eta Etxebizitzari buruzko Legea garatzen duten erregelamenduzko xedapenak onetsi arte eta, bidez batez, prestazio batetik besterako trantsizio arrazoizkoa ziurtatzen.

³⁶ 2022an, zortzi milioi euroko aurrekontua izan zuen Gaztelagunek, eta proiektu hori martxan jarri zenetik 9,4 milioi euro ordaindu ditu Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak Sailak gazteak emantzipatzeko programaren bitartez. Lau mila bat gaztek jaso dute laguntza programa martxan jarri zenetik. Egun, 2.694 prestazio aktibo daude: 511 Araban, 1.379 Bizkaian eta 804 Gipuzkoan. Iragan apirilaren 25ean, programa hobetzeko zenbait neurri onartu zituen Eusko Jaurlaritza; besteak beste, areagotu egin zituen laguntza eskuratzeko baldintzak, eta programaren iraupena luzatu. Beste zenbait hobekuntzaren artean, agindu berriak zabaldu egiten du laguntza eska dezaketenen eremua —urteko gehieneko diru-sarrerak gordinen zenbatekoa igo du horretarako—, sendotu egiten du laguntzaren hileko gehieneko zenbatekoa (lehen, 250 euro; orain 275), zeina jada martxan baitago 2022an, aurtengo ekitaldirako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean sartu da eta.



- Esleipen-kupoak ezartzea etxebizitza-premia larrieneko taldeentzat: familia ugariak, herritar bananduak edo dibortziatuak, familia gurasobakar amadunak, genero-indarkeria jasaten dutenak, bazterketaren arriskupean daudenak eta abar.
- Bizitegi-bazterketaren aurkako borrokan, ekimenak bultzatzea etxeak husteko agindu judizialak direla eta.
- Hirugarren Sektorea erakartzea laguntzako etxebizitza sozialen sare bat garatzeko ekimenara (errefuxiatuak, *Housing First*, genero-indarkeria, zahartzea, gizarte-inklusioa eta abar).
- Zaugarritasun-egoeran dauden eta familiarik ez duten adingabeak eta gazteak gizarteratzeko Euskarri Estrategian parte hartzea.
- Bultzada berria ematea Bizigune Programari.
- ASAP Programari eustea. Hona programaren xedea: titulartasun pribatuko etxebizitzak alokairuko etxeen merkatura biltzea, maizterrek prezio eskuragarria ordaintzen dutela.

Etxebizitzaren Plan Gidariaren onespenez landa, kontuan hartzekoak dira etxebizitza-alorrean berrikitan egindako araudi-garapenak ere; besteak beste, ekainaren 8ko 149/2021 Dekretua onartu izana —jenderik gabeko etxebizitzei eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzkoa (2021eko ekainaren 18ko EHAA, 119. zk.)—; halaber, etxebizitzak esleitzeko prozedurak eta haiek lortzeko baldintzak aldatu dira, askotariko gizarte-profileko kolektiboek laguntzeko, batez ere gazteei, 210/2019 Dekretuaren bidez —kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.)—.

Lehenago ere aipatu dugunez, zehazki bizitegi-bazterketa prebenitzeko eta hari aurre egiteko politikiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza amaitzen ari da Etxerik Gabekoentzako Euskal Estrategiaren ebaluazioa, eta 2022ko amaierarako bigarren estrategia bat prestatzekoa da. Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren Ebaluazioak dioenez, aurrerapausoak eman dira Bizitegi-bazterketako egoera larriei aurre hartzeko eta aurre egiteko Euskal Estrategiaren garapenean, jarduketan hauen bidez:

- Etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzen dituen 210/2019 Dekretua onartzea. Dekretu horren arabera, zuzeneko esleipen-neurrien onuradun izango dira etxegabetze batek bereziki kaltetutako pertsonak.
- Hirugarren sektoreko erakundeei sustapen publikoko etxebizitzak lagatzea, esku-hartze sozialeko programetarako.
- Lankidetzak-hitzarmena, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Euskadiko Udalen Elkartarekin (EUDEL) sinatua, familia-etxebizitzatik botatzearen ondoriozko zaugarritasun-kasuak hautemateari buruzkoa.
- EAEn erabiltzen ari diren edo hainbat eraikuntza-fasetan diren 1.600 zuzkidura-apartamentutik gorako parkea, batez ere gazteei zuzendua.
- Pandemia-garaian Aterpeak (etxerik gabeko pertsonentzako aterpea konfinamendu-sasoian) eta Lehen Urratsa (gizarte-laguntzadun ostatu-alternatibak babeslekuetatik ateratzerakoan, 2021ean luzatuak) programak martxan jartzea, Inor Atzean Utzi Gabe Funtsaren barruan.
- Krisiari aurre egiteko ezohiko neurriak aktibatzea etxebizitzaren eremuan, hala nola etxebizitza sozialen alokairua ordaintzetik aldi baterako salbuestea edo kolektibo ahulei berehala bizitegi-irtenbide bat emateko programa.



- Udalei dagokienez, berriz, nabarmentzekoak dira talde zaugarriak udal-etxebizitzetara sartzeko udal-ordenantzak, kaleratze-arriskuaren aurrean udal-neurriak aktibatzea eta epaitegien eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloak egotea.

Aldiz, ez dira garatu Planak aurreikusten zituen EAEko Administrazioaren eta Gizarte Ekintzako Hirugarren sektoreko erakundeen arteko lankidetzak-hitzarmenak, bizitegi-bazterketako eta/edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonekin gizarte-arloko esku-hartze eta bizitegi-programetara bidera daitezkeen sustapen publikoko etxebizitzak lagatzea xede dutenak, etxebizitza-programa sozialak eratu eta gizarteratzeko etxebizitza-sare bat sortzeko.

Halaber, Etxebizitzaren Aldeko itun Soziala 2022-2036 sinatuko da, 2022ko udazkenean, EAEko eragile ekonomiko eta sozialekin. Estrategikoa da agiri hori, EAEko etxebizitza-politikaren printzipioen eta helburuen euskarri izango baita hurrengo 15 urteotan. Hiru helburu kuantitatibo proposatzen ditu Itunak:

- Epe horren amaieran Euskadiko etxebizitza nagusien % 5 izatea alokairu eskuragarriko etxebizitzaren eskaintza publikoa. Hau da, bikoiztu egin behar da egungo portzentajea, 2036rako aurreikusten diren 1.000.000 etxebizitza nagusietatik 50.000 alokairu eskuragarrikoak izan daitezen. Horretarako, bikoiztu egin behar da, 15 urteko epean, 2020an zegoen alokairu eskuragarriko etxebizitzaren parke publikoa (24.000 etxe), eta beste 24.000 mila eskaini.
- 2036an Euskadiko etxebizitza nagusien % 10,8 izatea babes publiko iraunkorren etxebizitzaren parkea (2021ean, % 7,7). Hartara, hurrengo 15 urteotan beste 38.000 etxebizitza izango lituzke esku-hartze publikoko etxebizitza eskuragarrien eskaintza osoak.
- Egungo birgaitze-indizea (eraikin guztien % 1,5) urteko % 3ra igotzea, 2030 eta 2050erako Europako zuzentzarauk eta politikek aurreikusitako helburuak betetzeko.

Azkenik, irisgarritasun unibertsaleko politikei dagokienez, aipatu beharrekoa da EAEko Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategia onetsi izana. Agiri hori oinarri zela onartu zen 2021ean EAEko Irisgarritasun Unibertsaleko Lehenbiziko Ekintza Plana.

b) Hirigintzako eta lurralde-garapeneko politikak

Hirigintzako eta lurralde-garapeneko politikei dagokienez, berriz, 2019ko amaieran onartu zuen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Hiri Agenda-Bultzatu 2050. Bat dator Bultzatu 2050 NBE-Habitat-ek ezarritako helburuekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), eta hau bultzatzen du: hiri-eredu propioa, jasangarria, bizikidetzarako egokia, goi-kalitateko hirigintzan oinarritua, eta koherentzia-esparrua eskaintzen die jarduketa horiek lurraldean duten inpaktua dela eta Eusko Jaurlaritzako sailek dituzten politikei. Hona Euskadi Bultzatu 2050 Hiri Agendaren xede nagusia: hiriaz gozatzeko eskubideaz baliatzeko baldintzak bermatzea³⁷, ekonomia-, gizarte-, ingurumen- eta teknologia-trantsizioeko testuinguru honetan

Euskal hiri-eredu hori sendotzearen, 8 lehentasun estrategiko, 31 esku-hartze ardatz eta 105 jarduketa-lerro dituen agenda bat proposatzen da, erronka globalei eta Euskadin duten inpaktuari aurre egiteko. Zeharkako bost alderdi gehitu zaizkie lehentasun horiei, alor hauei lotuak: agendaren maila anitzeko kudeaketa, genero-ikuspegia, jarduketan osotasuna, lurralde-ikuspegia eta jarraipenaren zein ebaluazioaren aldeko irizpidea.

Inklusiorako Euskal Planaren ikuspegitik aztertuta, hauek dira Hiri Agenda-Bultzatu 2050en lehentasun estrategiko nagusiak:

- Etxebizitza eta oinarrizko ekipamenduak izateko eskubidea sustatzea.

³⁷ Hau guztia izateko eskubideari deritzo «hirirako eskubidea»: etxebizitza duina; auzo osasungarria, oinarrizko zerbitzuez hornitua eta gizarteak balioetsia; hiriarekin konektatuta egotea, eta mugikortasuna izatea haren barruan; ekintzailtza-, enplegu- eta trebakuntza-aukerak eskuragarri izatea, eta biztanle guztien gizarteratzea, partaidetza eta berdintasun politikoa zein juridikoa bermatzea.



- Hauek lehenesten dituen hirigintza antolamendu bat ezartzea: hirien erdialdeen birdentsifikazioa eta berrorenatzea, kalitateko espazio publikoak eta bizikidetzakoak sortzea, eta denontzako irisgarritasuna.
- Hiri-osasungarriak sustatzea, herritarren segurtasuna, ongizate soziala zein pertsonala bermatuko dituen aldaketa demografikoko testuinguru honetan.
- Herri eta hiri askotarikoak eta sozialki kohesionatuak sendotzea.

c) Hornigaien eskuragarritasunari eta energia-pobretasunaren prebentzioari lotutako politikak

Energia-pobretasunaren prebentzioari dagokionez, jarduketa hauek egin dira Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren barruan:

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen araudia eguneratu egin da, energia-pobrezari zuzenean lotutako gastuak sartzeko.
- Bere horretan eutsi zaie uraren, argiaren eta gasaren ordainagiriak pagatzeko laguntzei. Gurutze Gorriaren bidez banatzen dira laguntzak, Eusko Jaurlaritza finantzatuta.
- Etxebizitza sozialetan energia-laguntzarako E-lagun eta energia-eraginkortasunerako N-zero proiektuak aktibatu dira.
- Energia-pobrezari eta esku hartzeko aukerari buruzko ikerketa bat egin da (Eusko Jaurlaritzak sustatua, Kataluniako eta EAeko arkitektura-eskolen laguntzarekin).
- Gizarte Bonu Termikoa aplikatu da, baita zenbait udalek aktibatutako hainbat jarduketa ere: energia-bo-nuak, prestakuntza-programak, aholkularitza-zerbitzuak eta abar.

Bestalde, energia-pobrezari aurre egiteko tresnak sendotu egin ditu Eusko Jaurlaritzak. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez (GLL) egingo da sendotze-lan hori, zenbatekoak prezio berrietara egokituz, bai eta Gurutze Gorriaren bitartez ere. Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu zuen 2015ean erakunde horrekin uraren, argiaren eta gasaren ordainagiriak pagatzen laguntzeko arazo ekonomiko larriak dituzten eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarik jasotzen ez duten familiei.

2022an, 41,5 milioi euro gastatuko ditu Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak GLLetan, eta 800.000 euro gehiago Gurutze Gorriarekiko hitzarmena finantzatzen. Indarrean jarraitu ez ezik, sendotu egingo da hitzarmena. Elektrizitatearen, gasaren eta beste erregai batzuen prezioek gora egin dutela eta, bikoiztu egin da aurten Gurutze Gorriari ematen zaion zenbatekoa; Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, berriz, aldatu egin dira familia bakoitzak urtean jaso ditzakeen gehieneko zenbatekoak: lehen, 900 euro urteko; orain, 1.500. Behar horiek asezteko udalek ematen dituzten zenbatekoak gehitu behar zaizkie laguntza horiei.

d) Etxebizitza-politiken erronka nagusiak, bazterketa-egoeren prebentzioaren ikuspegitik begiratuta

Etxebizitza-politikaren eremuko erronkei dagokienez, gogora dezagun Eusko Jaurlaritzari, lurralde historikoei eta lurralde bakoitzeko toki-erakundeei dagozkiela alor horretako eskumenak, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 10. artikulua xedatzen duenez, eta ezinbestekoa dela erakundeen arteko koordinazioa aurrera egiteko, 2021-2023 Etxebizitzaren Gida Planak jasotzen duen legez.

Aurreko ataletako diagnostikoaren arabera, hauek dira etxebizitzaren eta hiri-garapenaren alorreko hiru erronka nagusiak:

³⁸ Gizarte Bonu Termikoa laguntza-programa bat da, berokuntza-sistema, ur beroa eta ura erabiltzeak kontsumitzaile behartsuenera eragindako energia-gastua konpentsatzeko sortua. 2020an, 49 eta 123 euro bitartekoa izan zen laguntza hori EAEn, familiaren zaurgarritasun-maila eta udalerraren ingurune klimatikoa zein diren; bestalde, bateragarria da xede horretarako ematen den beste edozein laguntzarekin.



- Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa garatzea, alokairuko etxebizitza-parke publikoa handituz, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa garatzea eta Sailak garatutako programak bultzatzea (Gaztelagun, Bizigune, ASAP eta abar).
- Aurrera egitea bizitegi-bazterketa larria prebenitzeko eta hari aurre egiteko jarduketan garapenean, Etxerik Gabeko Pertsonentzako II. Euskal Estrategia onartuz eta Hirugarren Sektorea erakartzea laguntzako etxebizitza sozialen sare bat garatzeko ekimenera (errefuxiatuak, *Housing First*, genero-indarkeria, zahartzea, gizarte-inklusioa eta abar).
- Aurrera egitea zaugarritasun-egoeran dauden herritarrei eta familiei sustapen publikoko etxebizitzak esleitzeko ohiz kanpoko prozeduren hobekuntzan.
- Aurrera egitea etxebizitzak birgaitzeko politikan, batez ere etxebizitza-parkearen irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzeko.
- Mekanismo eraginkorrak garatzea diru-sarrerara urrienerako herritarrei oinarritzako hornigaiak bermatzeko (elektrizitatea, gasa, ura eta erregaia), Gizarte Larrialdietarako Laguntzak areagotuz (GLL) eta energia-pobrezia prebenitzeko eta hari aurre egiteko politika integralak garatuz, besteak beste.
- Hiri-garapenari eta -plangintzari dagokionez, berriz, hauek dira xede nagusiak (Hiri Agenda-Bultzatu 2050): a) hiria berronertzeko proposamenak garatzea, era integralean, auzo eta ingurune zaugarrietan, hiri-bazterkeriako egoerak aldarazteko jarduketa holistikoak baliatuz; b) zuzkidurazko politikak sustatzea, auzoetako zerbitzuak oreka ditzaten, batez ere arazo sozial handienak dituztenetan; c) hirien eta auzoen arteko konexioak hobetzea, norberaren mugikortasun-beharrak asetzeko; d) hiri-irisgarritasun unibertsala bultzatzea (igogailuak eta arrapalak jartzea, oztopoak kentzea eta abar), eta hiri-plangintza lagunkoia adinekoekiko, neska-mutikoekiko eta behar bereziak dituztenekiko.

2.2.6. Osasun-politikak

- a) *Osasun-politikan egin diren aurrerapen nagusiak, gizarte-bazterketaren prebentzioari eta haren aurkako jarduerari dagokienez*

Gizarteratzeko IV. Euskal Planari jarraikiz, hauek dira azken urteotan osasunari lotutako gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko eta haiei ekiteko egin diren jarduketa nagusiak:

- Norgehiagokako erregimeneko dirulaguntzak osasuna sustatzeko ekintzak egiten dituzten erakundeei.
- Suizidioa prebenitzeko estrategia ezartzea Euskadin.
- Osakidetzako langileentzako berariazko prestakuntza-jarduketak, egoera irregularrean dauden atzerritarrei aplikatu dakiekeen osasun-aseguramendua, Osasun Mentalaren eta Lehen Mailako Arretaren arteko koordinazioa eta premia handienak dituzten pertsonei laguntzea barne.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei zuzendutako laguntzak GIB/hiesa, C hepatitis (HC) eta sexu-transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko programetarako.
- GIB test azkarren programa farmazietan.
- Tratamenduari atxikitzeko laguntzen deialdiak (koordinketa)³⁹.

³⁹ Espainiako Gobernuaren koordinketa farmazeutikoaren ordez, Eusko Jaurlaritzak laguntzak ematen ditu tratamendu medikoetarako eta zera bermatzeko, inork ez diezaioela utzi agindutako medikazioa hartzeari arrazoi ekonomikoengatik. Duela bederatzirte hasi ziren ematen laguntza horiek: harrezkeroztik, 715.000 eskabide izapidetu ditu Eusko Jaurlaritzak. Berrogei milioi eurotik gorako kostua izan dute laguntzek. 2021ean —pandemia-garaian, alegia— 2.782.483 euro eman zizkien Eusko Jaurlaritzak 2020ko deialdiaren bigarren epeko eta 2021eko lehen-biziko laguntzen onuradunei. Bestalde, gora egin zuen 2021ean farmazian ordaintzetik salbuetsita dauden taldeen kopuruak.



- Hirugarren Sektoreko erakundeak finantzatzea kontsumo gainbegiratuko aretoen funtzionamenduz ardua daitezen.
- Etxerik ez duten eta buru-nahaste larria duten Bilboko udalerriko pertsonentzako tratamendu asertibo komunitarioko programak (TAK).
- Euskadiko osasun mentaleko sareen plan estrategikoak buruko nahasmendu larriari buruz Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban.
- Arrisku- edo zaurgarritasun-egoeran dauden pertsona eta taldeetan osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko programak egiten dituzten toki-erakundeei eta hirugarren sektoreko erakundeei zuzendutako laguntzen urteko deialdia.
- Hitzarmenak ezartzea bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonentzat kalteak murrizteko baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin (Gizakia, Caritas Bilbao eta Bizkaiko Hiesaren aurkako Herri Batzordea), arreta integrala emateaz gain, laguntza eta oinarritzko premiak asetzen baitituzte.
- Pandemia-garaian, adikzioak dituzten pertsonen arreta emateko Erdu programa aktibatuta dute gizarte-baliabideek, unitate mugikorrek eta online zerbitzuak erabiliz.

Plangintzari dagokionez, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024) da azken urteotan garatu den tresna nagusietako bat. Hona gizarte-bazterketari ekiteko plan horrek proposatzen dituen ekintza nagusiak:

- Eredu partekatu eta egonkor bat prestatzea Euskadiko arreta soziosanitarioa finantzatzeko.
- Euskadiko elkarreragingarritasun soziosanitarioa adostu, prestatu eta onartzeko Dekretua onartzea.
- Osasun-alorreko gizarte-desberdinkeriei eta alborapenei aurre egiteko politikak eta jarduketak koordinatzea, eta ekitatea sustatzea arreta soziosanitarioan.
- Sustapen soziosanitarioko politikak eta jarduketak koordinatzea: zahartze aktiboa, gizarte-inklusioa, berdintasuna, belaunaldien arteko elkartasuna, autonomiaren sustapena, irisgarritasuna, alfabetizazio digitala eta abar.
- Prebentzio soziosanitarioaren arloko politikak eta jarduketak koordinatzea: genero-indarkeria; haurren aurkako tratatu txarrak; adinekoren aurkako tratatu txarrak; nahi gabeko bakardadea eta bakartze soziala; etxegabetasuna eta gizarte-bazterketa; pobrezia eta gizarte-bazterketako arriskua; gaixotasun mentalari eta desgaitasunari lotutako estigma soziala; zaintzaileen gainkarga eta kludikazio-arriskua; gaixotasun neurodegeneratiboei buruzko estrategia, etab.
- Arrisku soziosanitarioaren faktoreak detektatzeko bidea ematen duen tresna bat eraikitzea, faktore prediktiboak definituz eta graduatuz.
- Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa bultzatzea (LMAS), erakundeen arteko koordinazioa hobetzen eta lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeen esku-hartzeak errazten dituzten ekintzak garatuz.
- Gizarte-bazterketako eta -zaurgarritasuneko egoeran dauden pertsonen arreta emateko sistemen arteko koordinazioan aurrera egitea.
- Arreta soziosanitarioaren xede diren beste talde batzuen bizi-kalitatea hobetzen duten jarduketak garatzen laguntzea, hala nola hauenak: osasun mentaleko arazoak eta adikzioak dauzkaten pertsonak, gaixotasun arraroak dauzkatenak, askatasunez gabetuta daudenak edo bizitzaren amaieran daudenak, besteak beste.



Euskadiko arreta soziosanitarioko 2021-2024 estrategia ez ezik, Osasun Sailaren 2021-2024 Esparru Estrategikoa ere aipatu behar da. Desberdinkeriarik gabeko osasun-sistema bat proposatzen du 2021-2024 esparru estrategikoak, hurbilagoa, pertsonen zerbitzura jardungo dena, eta ekitea aldarrikatzen desberdinkeriei aurre egiteko paradigma gisa, osasun-alorreko gizarte- eta genero-arrakalak txikiagotzeko, batez ere egungo osasun- eta ekonomia-krisi honetan. Beste zenbait neurriren artean, hauek proposatzen dira:

- Adinekoei dagokienez, hauek sustatzea: arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat, adinekoen hauskortasuna artatzeko plan bat, eta adikzioak dituzten edo edukitzeko arriskuan dauden adinekoentzako beste bat.
- Erakundeen arteko protokolo bat onartzea haurren aurkako indarkeria garaiz detektatzeko eta hari aurre egiteko, sexu-abusua eta -esplotazioa ere barne direla, kasu guztietan biktimaren babesa eta jaso duen kaltearen ordaina sustatuz.
- Araudi-esparru autonomiko bat garatzeak sendotu egingo du immigranteei jada eskaintzen zaien osasun-arreta publikoa jasotzeko eskubidea, Osasun Sistema Nazionalaren eskuragarritasun unibertsalari buruzko 7/2918 EDaren arabera, Euskadiko gainerako herritar asegurdunei bezalako osasun-txartela emango baitzaie.
- Hiru lurralde historikoetako STIen kontsultetan GIBarekiko aurreesposizioaren prebentzio-kontsultak ezartzea, eta estrategia berri bat bultzatzea GIBa duten paziente egonkor batzuk beren etxean artatzeko programa bat martxan jartzeko.
- 2019an aurkeztutako Suizidioaren Prebentziorako Estrategia aplikatzea, hasieran errealitate horren zain-tza epidemiologikoa, suizidio-arriskuaren kodearen ezarpena eta postbentzio-jarduketak jorratuz. Halaber, erakundeen arteko estrategia bati ekin behar zaio, gaixotasun mentalei lotutako estigma saihesteko.
- Osasun mentaleko arreta-ereduei buruzko gogoeta-prozesu bat hastea, Euskadiko osasun mentaleko sarea eredu horretara egokitzeko modurik onena aztertzearen. Pertsonen ahalik eta arretarik onena nola eskaini izan behar du lehenetsitasun prozesu horrek, eta besteak beste gai hauek aztertu: nola baliatu arreta psikiatrikoa testuinguru komunitario eta integratu batean, eta, bestalde, nola egin ESletako, osasun mentaleko sareetako eta sistema soziosanitarioko programen eta laguntza-baliabideen kudeaketa partekatua. Osasun komunitarioa sustatzea, sareko lan-prozesuak bultzatuz eta garatuz udalerrietan eta autonomia-erkidego osoan, gizarteko erakunde, tokiko eragile eta kideen artean aliantzak eta sinergiak sortuz osasuna hobetzeko, eta Euskadi Aktiboa proiektuak aurrera egitea, pertsona, erakunde eta talde orok bere inguru edo komunitateko osasun-eragileak identifikatu eta gehitu ditzan. Bestalde, Osakidetzako erakunde guztiek esku-hartze komunitarioko plan bat prestatu behar dute, udalerririk guztietan osasunaren sustapen- eta prebentzio-jarduketak egin ditzan, Osasun Publikoko sarearekin, udalekin eta tokian tokiko osasun-eragileekin koordinatuta. «Preskripzio soziala» deritzon tresna eta gisa horretakoak sustatzea, Lehen Mailako Arretan diharduten profesionalen beren udalerririk edo komunitateko jarduerak gomenda diezazkieten kontsultara joaten zaizkien herritarrei, hartara inguruan dituzten baliabideak erabil ditzaten.
- Adikzio-arazoak eta behar espezifikoak dituzten taldeekiko arreta hobetzea, eta areagotzea arazo berriekiko esku-hartzea (esate baterako, substantziarik gabeko adikzioak, substantzia berriak eta substantziak eskuratzeko bide berriak). Halaber, gizartea kontzientziatzen jarraitu behar da adikzioak sortzen dituzten substantziez eta haiek eragiten dituzten jokabideez, komunitate- eta ingurune-prebentzioa erabiliz gehiena kontsumitzen diren substantziekiko (alkohola, kalamua, tabakoa eta nikotina irensteko gailu berriak) eta aisia segurua eta osasungarria sustatuz. Joko patologikoaren prebalentzia gutxitzeko zenbait neurri jarriko dira martxan, beste erakunde eskudun batzuekin elkarlanean.

Azkenik, aipa dezagun Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia berria, 2010eko estrategia eguneratzen duena. Osasun Saila ari da Estrategia berria prestatzen, Osasun Mentalari buruzko Euskal Aholku Batzordea aholkulari duela. Aipatu behar dira, halaber, Suizidioaren Prebentziorako Euskadiko Estrategia, 2019an onartua, eta laster onartzekoa den 2023-2030 Osasun Plana.

2.2.7. Helduen hezkuntza eta etengabeko prestakuntzako politikak

a) *Magnitude nagusiak*

Hauek dira euskal hezkuntza-sistemaren magnitude nagusiak, hezkuntzari lotutako bazterketa- eta desberdinkeria-egoeren prebentzioaren eta haren aurkako jardunaren ikuspegitik begiratuta:

- 2019/2020 ikasturtean, 133.071 herritar zeuden matrikulatuta unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko ikasketetan; horietatik, % 53 titulartasun publikoko ikastetxeetan, eta % 47 titulartasun pribatukoetan.
- Hezkuntzako establezimenduetan egiten den gastu arrunta 3.563 eurokoa da. Titulartasun publikoko establezimenduek jasotzen dute zenbateko horren % 63.
- Unibertsitatez kanpoko hezkuntzan 2.247 milioi euro gastatzen dira. Ikasleko gastua, berriz, 6.720 eurokoa da.
- Derrigorrezko hezkuntza, haur-hezkuntza eta hezkuntza bereziko bekadunen kopurua: 108.864 ikasle. 46 milioi eurotik gora gastatzen dira beka horiek ordaintzen (batez bestekoa zenbatekoa, 426 euro). Jangelarako bekatan gastatzen da zenbateko horren % 76; % 20, berriz, liburutan eta eskola-materialetan.

b) *Hezkuntza-politiketan egin diren aurrerapen nagusiak, gizarte-bazterketaren prebentzioari eta haren aurkako jarduerari dagokienez*

Gizarteratzeko IV. Euskal Planari jarraikiz, hauek dira azken urteotan hezkuntzari lotutako gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko eta haiei ekiteko egin diren jarduketak nagusiak:

- Haurrak artatzeko kalitateko zerbitzuen eskaintza areagotzearen zaurgarritasun handieneko pertsonen artean eta/edo inguruetan, Haurreskolak partzuegoak zero kuota onartu du urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten familientzat (2019tik aurrera), eta % 10eko murrizketa 1. kuotaren tartean 2020tik aurrera). Horrez gain, honako hau proposatu da Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Erronka Demografikorako Estrategian: 0-2 urte bitarteko ikasle guztientzat doakoak izatea ikastetxe horiek.
- Gizarte-desabantailako egoeran dauden ikasleei eskola-ingurune arruntean derrigorrezko irakaskuntzaren helburuak lortzea erraztuko dien hezkuntza-erantzun egokia eta kalitatezkoa eskaintzeko, honako esku-hartze hauek egin dira:
 - o Urtero, honako programa hauek ezarri dira: Bidelaguna, Hamaika Esku, Osagarriak eta Hezkuntza Berariaz Sendotzekoak.
 - o Ikasle etorkinei ematen zaien arretari dagokionez honako hauek dira nabarmentzekoak: ikasle etorkinak onartu eta eskolatzeari buruzko 1/2018 Dekretuaren onarpena; Hizkuntza Indartzeko Irakasleen hornidura, sartu berri diren ikasleen kopuruaren arabera; eskolatzeko lurralde-bulegoen lana; eta bakarrik dauden adingabe etorkinak eskolatzeko lehen harrerako programa.
 - o Lankidetzaren soziosanitarioa eta hezkuntza-arlokoa bultzatu da, Arreta Goiztiarreko protokoloak eta jardunbide egokien gidak garatuta eta Arreta Goiztiarreko Taldeak (AGT) hiru lurraldeetan ezarrita.
 - o Pandemia-garaian, Inor Atzean Utzi gabe Funtzaren barruan, Aukerak Suspertzen programa aktibatu da. Haren helburua eskolaz kanpoko hezkuntza indartzea eta eten digitalaren aurrean laguntzea da, gizarte-desabantailako egoeran dauden eta hezkuntza-prozesuarekin jarraitzeko zailtasunak dituzten Lehen edo Bigarren Hezkuntzako adingabeei.
- DBH uzten duten eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eta laguntza-premia handienak dituzten gainerako kolektiboari, batez ere adimen-desgaitasuna dutenei, lanbide-heziketari lotutako prestakuntza-aukerak eskaintzeko eta enpleguaren mundurako trantsizio arrakastatsua bultzatzeko, honako jarduketak hauek nabarmendu behar dira:



- Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko 4/2018 Legea, ekainaren 28koa, onartzea. Lege horren helburuen artean dago gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten kolektibo eta pertsonen zuzendutako prestakuntza-eskaintza espezifiko bat sustatzea.
 - Desgaitasuna duten pertsonak lanbide-heziketan sartzeko errazteko erreserbatutako plaza-kopurua handitzea.
 - Hamazazpi urtetik gorako pertsonen oinarritzko lanbide-heziketan sartzeko aukera ezartzea.
 - Enpresetan egonaldiak egiteko bekak lanbide-heziketako ikasleentzat, desgaitasuna duten pertsonen lekua gordetzen zaiela.
 - Lkas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko proiektuetarako eta gazteentzako HEZIBI programarako dirulaguntzak.
 - Prestakuntza-deialdia trebakuntza-maila txikia duten gazteentzat.
 - Kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetarako dirulaguntzak.
 - Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu berezien deialdiak, enplegarritasun-arazoak dituzten langile landunentzat eta langabeentzat.
- Azkenik, euskal herritar guztiei bizialdi osoko ikaskuntzarako eta garapen pertsonalerako eta gizarteratzeko behar dituzten oinarritzko gaitasunak eskuratzeko sarbide unibertsala eta berdintasunezkoa bermatzeko, urte hauetan honako neurri hauek jarri dira martxan:
- Uztailaren 23ko 118/2019 Dekretua onartzea, bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko jarduketak egiteko laguntzak arautzen dituena.
 - Bizialdi osoko ikaskuntza-jarduketarako laguntzen urteko deialdia.
 - Agindua, 2021eko maiatzaren 20koa, Helduentzako Oinarritzko Hezkuntzaren berariazko curricula onetsi eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Politika publikoen plangintzari eta diseinuari dagokienez, berriz, hauek dira azken lau urteotan garatutakoetatik bi tresna nagusiak: Eskola inklusibo bat garatzeko esparru-plana (2019-2022) eta «Euskal hezkuntza eraldatzeko oinarri-akordioa», iragan apirilaren 7an onartua. Akordio hori oinarri dela prestatuko da euskal hezkuntzako lege berria⁴⁰. Hauek dira akordioak jasotzen dituen jarduketa nagusiak, hezkuntzari lotutako bazterketa- eta desberdinkeria-egoeren prebentzioari eta haren aurkako jardunari dagokienez:

- Hezkuntza-komunitatearekiko elkarriketa-prozesu aktiboa sustatzea, 2023an eskola-segregazioaren aurkako itun bat lortzeko.
- Ikasleak onartzeko araudia eguneratzea, elkarrekin uztartzeko ikastetxea hautatzeko aukera eta ikastetxeen arteko kohesioa eta eskolatzeko orekatua merkatzen duen esparrua.
- Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI) eta haren osagaiak eta aplikazioak arautzea eta izaera publiko ematea, berdintasunaren alorreko hezkuntza-politikako erabakiak hartzeko.
- Ikastetxeei baliabide ekonomikoak eta pertsonalak bereiz esleitzeko mekanismoak arautzea, haien HKIaren arabera.
- Proiektu integralak sustatzea hezkuntza-konplexutasunaren indize handieneko ikastetxeetan, eta pertsonalez hornitzeko ezartzen diren mekanismo espezifikoak arautzea; besteak beste, irakasle trebatuak, motibatutako eta ikastetxe horietan jarduteko pizgarriak dituztenak, eta haien buru jardun behar duten zuzendaritza-taldeak.
- Hezkuntza Sailburuordetzak ezarritako irizpideen arabera kudeatzea eskolatzeko berantiarreko ikasleen eskolatzeko, ikasle zaurgarrien segregazio-indizeak gora egin ez dezan.

⁴⁰ Iragan irailaren 15ean aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordetzak Euskadiko Hezkuntza Legearen Aurreproiektua, Oinarri Akordioaren funtsezko elementuak jasotzen dituena.



- Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei buruzko indarreko araudia eguneratzea eta aniztasuna artatzeko esparru berriari egokitzea.
- Beka gehiago ematea jarduera osagarrietarako eta eskolaz kanpokoetarako, ikasle bakar bat ere gera ez dadin beka horiek gabe arrazoi ekonomikoengatik.
- Ekitatea eta inklusioa behatzea xede dituen lan-lerro bat txertatzea ISEI-IVEIren Urteko Planean, lurralde bakoitzeko egoerari buruzko datuak jaso ditzan gai hauei dagokienez: emaitzak, ekitatea, segregazioa, kontzentrazioa eta baliabideak.
- Behar diren kontrol-mekanismoak jartzea martxan irakaskuntzaren doakotasuna bermatzeko eta erabat ezabatzeko irakaskuntza-kuotak kobratzea, ezkutuan zein agerian.
- Lanaldi zatitua kontsolidatzea, behar bezala baimendutako salbuespenak alde batera utzita.
- Legebiltzarraren partaidetzaz, onartzea hezkuntza-zerbitzu publikoak ematen dituzten ikastetxeek bete beharreko funtzionamendu publikoko arauen birformulazioa, interes sozialeko irizpideei jarraikiz.
- Haurreskolak Partzuergoa sendotu eta eskaintza unibertsaleko zerbitzu publikoa, kalitatekoa eta doakoa bihurtzea.

2.2.8. Espetxe- eta justizia-politikak

2021eko urrian Euskadiko espetxeak kudeatzeko eskumenaren transferentzia Eusko Jaurlaritzak eskuratu ondoren, Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko 3/2021 Legea, irailaren 30ekoa, onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak 2021ean.

Lege horren arabera, baliabide malgua eta moldakorra da Aukerak, esku-hartze integraleko eredu baten bitartez bigarren aukerak eskaintzen dizkiena askatasunik gabe daudenei, trebakuntza eta lanbideratzea erabiliz. Hauek dira Aukerak eginkizunak:

- Espetxeetako lan produktiboa eta haren ordainketa antolatzea, eta hauen kudeaketaz arduratzea: ekoizpen-lantegiak, nekazaritzako ustiategiak eta esleitzen zaizkion espetxeak zein gizarteratze-zentroak.
- Jarduera industrialak, komertzialak eta antzekoak antolatzea, bai eta, oro har, espetxeko lanarekin lotura duten eragiketak edo administrazio publikoek agintzen dizkietenak, dagozkion xedeak bete ditzaten.
- Presoen artean lanbide-heziketa sustatzea.
- Kondenaren azken fasea betetzen ari diren eta erdi-askatasuneko erregimenean dauden presoen lanbideratzea sustatzea, eta beste erakunde eta entitate batzuekin elkarlanean aritzea pertsona horiek gizarteratzeko eta lanbideratzeko ahaleginean.

Aldez aurretik, 2021eko apirilean, oinarri-agiri bat prestatu zuen Eusko Jaurlaritzak Euskadin espetxe-eredua ezartzeko, hiru ardatz estrategiko hauen arabera:

- Zigorrek ingurune irekian bete daitezen sustatzea.
- Euskal Birgizarteratze Sarea eraikitzea.
- Espetxeratzea birgizarteratzera bideratzea.

Berariazko zenbait jarduketa jasotzen ditu hiru ardatz estrategiko horietako bakoitzak, printzipio berei jarraikiz: lehentasuna pertsonen ematen dien esku-hartzea, baliabide pertsonal eta material egokiak, ikuspegi komunitarioa,

genero-ikuspegia, ikuspegi errestauratiboa eta politika publikoen integrazioa. Gizarte-inklusioko eta -bazterketako prozesuei dagokienez, hauek dira ekintzarik aipagarrienak:

- Zigorrak indibidualizatzea eta ingurune irekirako neurriak ezartzea.
- Espetxe barruan tratamendu indibidualizatuko programa espezifikoak sustatzea.
- Prestakuntza-programa eta -lantegi gehiago antolatzea, eta pertsonal propioak edo Hirugarren Sektorokoak ematea.
- Komunitatearen aldeko lanetarako udal-plazak sustatzea.
- Gakoa Programa zabaltzea, arrakasta izan baitu genero-indarkeriagatik zigortutakoekin ikuspegi feminista batetik jardunda.
- Ezagutza pertsonala eta laguntza indibidualizatua oinarri dituen esku-hartzea egiteko baliabideak bermatzea, ahal dela komunitateko baliabideak erabiliz.
- Gizarteratzeko sare bat sortzea, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunetako, udaletako eta foru-aldundietako hezkuntza-, gizarte-, osasun- eta lan-politikekin koordinatuta, bai presoak kondena betetzen ari direnako, bai behin betiko askatasuna lortzen dutenerako.
- Esku hartzeko baliabide espezifikoak sortzea mendekotasunak gainditzeko tratamenduetarako eta gaixotasun mentaletarako.
- Gizarte-zerbitzuei dagokienez, bazterketa jasateko edo bazterketa-arriskua baloratzeko faktore gisa hartzea presoan «espetxea barneratzea» deritzon fenomenoak, preso ohiek zerbitzu haiek eskuratzeko arazorik izan ez dezaten.
- Esku-hartze sozialeko epe luzeko programa orokor bat ezartzea —kasu honetan etxebizitza, osasuna, lana eta hezkuntza ardatz dituela—, preso ohien gizarteratze-prozesuak errazteko.

Bestalde, prestatze-prozesuan dago Euskadiko 2022-2028 Justizia Plan Estrategikoa.

2.2.9. Genero-berdintasuneko politikak

Aurreko kapituluari ikusi dugunez, gizonen baino gehiago eragiten diete emakumeen pobrezia- eta bazterketa-egoerek. Oro har, gizarte-inklusioko eta -bazterketako prozesuetan eragiten duten politiken eta programen diseinuak ez die erantzun egokirik ematen emakumeen berariazko beharrei, batez ere gizonen beharren, lehentasunen, iguripenen eta erabilera-ereduen arabera egiten baita. Egia da geroz eta gehiago ari direla berenganatzen emakumeen eskubideak bermatzeko ikuspegia gizarte-, enplegu-, hezkuntza- eta etxebizitza-zerbitzuak eta diru-sarrerak bermatzekoak, baina bistakoa da zerbitzu horien diseinua eta hornidura aldatu beharra dagoela, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu eta herritar guztien beharrak ase ditzaten, edozein sexutakoak direla ere.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planaren indarraldia amaitzear den honetan,⁴¹ hau da genero-berdintasuneko politiketan Euskadin egin den aldaketa nagusia, bazterketa-egoeren prebentzioari eta tratamenduari berariaz dagokionez: Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketaren gaineko martxoaren 3ko 1/2002 Legea onartu izana⁴².

⁴¹ VI. Planaren helburuen artean, hauek dira nagusiak: pobrezia-aren feminizazioa gutxitzea; zaintza-lanen antolakuntza sozial berri bat sustatzea, haiek hobeto banatzeko; arreta integrala bermatzea —ahalduntzearen ikuspegitik— emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei, esku-hartzea nazioarteko estandarrekin lerrokatzu, eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan diharduten EAEko erakundearen arteko esku-hartze koordinatua bultzatzea.

⁴² Esta Ley modifica el título de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, que pasa a ser denominarse Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.



Aipatutako 1/2022 Legeak dioenez, «Estatistikek eta errealtateak berak erakusten dute sexuagatiko berdintasun-eza presente dagoela oraindik ere bizitzaren ia alor guztietan, eta, nahiz eta Europar Batasuneko Berdintasun Indizearen arabera Euskadi herrialde aurreratuenen artean egon, oraindik urrun dago benetako berdintasuna lortzetik» (Lehendakaritza, 2022, 2. or.).

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia hobetu egiten du legeak, eta haren aplikazioa bermatzen; besteak beste, berritasun gisa planteatzen du bere printzipio orokorren artean espresuki aipa dadila emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea, emakumeak ahalduntzea eta emakumeek politika publikoetan parte hartzea, politika horietan interseksionalitatea, eta berrikuntza, gardentasuna, kontu-ematea, nazioartekotzea, hizkuntza-eskubideen babesa eta euskararen sustapena. Halaber, aurreikusten da berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomiko, pertsonal eta teknikoak indartzea, berdintasunerako organismo eta zerbitzuei aitorten handiagoa emanez, benetako lidergoa izan dezaten berdintasun-politiken sustatzaile gisa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloko jarduketetan, eta ez bakarrik prebentzio-lanetan, non orain arte lan garrantzitsua gauzatu duten, baizik eta biktimei arreta erreparatzailea emateko irizpideak zedarritzean ere. Hori guztia, generoaren eta giza eskubideen ikuspuntua berma dadin berdintasunaren aldeko lanean eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurka esku hartzeko eremu guztietan.

Gizarte-inklusioko eta -bazterketako prozesuetan eragiten duten politikei dagokienez, hauek dira Legearen xedapen esanguratsuenak:

- Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna erreala eta benetakoa izateko behar diren baldintzak sustatu behar dituzte, hala norbere konturako zein inoren konturako lana lortzean, nola lan-, prestakuntza-, sustapen-, ordainketa- eta kontratuen amaiera-baldintzetan.
- Emakumeek enplegu finkoa eta kalitatekoa lor dezaten sustatzeko eta haien kontratazioaren alde egiteko proiektuak garatuko dituzte, alde batetik kontratazio-modalitate guztietan emakumeen partaidetza handitzeko eta, bestetik, emakumei gizonei baino gehiago eragiten dien enpleguaren prekarietatea eta behin-behinekotasuna ezabatzeko.
- Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Laneko Ikuskaritzaren bidez, plan eta kanpaina espezifikoak egingo ditu ordainsari-diskriminazioaren kontra, behar den jendea eta baliabide ekonomiko eta materialak ipiniz.
- Euskal administrazio publikoek, beren osasun-politikak, -estrategiak eta - programak formulatu, garatu eta ebaluatzean, kontuan hartuko dituzte emakumeek eta gizonek zer behar ezberdin dituzten eta zer neurri behar diren horiei ondo heltzeko, emakumei eta gizonei osasunerako eskubide berbera bermatzeko.
- Euskal administrazio publikoek, behar diren neurriak hartuko dituzte pobrezia eta gizarte-bazterketak emakumeen artean duen eragin handiagoari aurre egiteko; horretarako, estrategia integrala, prebentiboa eta integratua erabiliko du, pertsonen lehentasuna ematen diena, diziplina anitzekoa eta koordinatua. Horretarako, genero-ikuspegia txertatuko dute herritar guztiei oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko sektoreetako programetan; bestalde, berriazko programak diseinatuko dituzte diskriminazioa eragin dezaketen beste faktore batzuk jasaten dituzten emakumeentzat eta emakume-taldeentzat: arraza, azalaren kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina, sexu-joera, sexu-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-eremuko jatorria, gizarte-diskriminazioko egoera, seropositibotasuna, guraso bakarreko familia, familia-egituraketa eta beste zeinahi inguruabar pertsonal, sozial zein administratibo.
- Euskal administrazio publikoek, beren politikak eta programak diseinatu eta ezartzerakoan, kontuan hartuko dituzte guraso bakarreko familiek dituzten behar espezifikoak, eta behar diren neurri juridiko eta ekonomikoak sustatuko dituzte inguruabar horien inguruetatik prekarietate ekonomiko edo sozialean dauden pertsonen baldintzak hobetzeko.



- Euskal herri-administrazioek adineko emakumeen ongizatea eta gizarte-babesa zainduko dute, eta bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte har dezaten sustatuko.
- Autonomia Erkidegoko Administrazioak plan bat prestatuko du prostituzioaren eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren arloan jarduteko, administrazio enparauekin eta eremu horretan lanean ari diren gizarte-taldeekin batera.
- Euskal administrazio publikoek, dagozkien eskumenen eremuan, emakume atzerritarren, migratzaileen, beste nazionalitate batekoen eta ijitoen berdintasun benetakoa eta eraginkorrak sustatuko dituzte — kulturartekotasuna eta giza eskubideak irizpide direla—, eta emakume horiek dituzten oztopo gehigarriak kenduko; besteak beste, parte-hartzeari, baliabideak lortzeari eta esleitutako estereotipo eta rolei dagozkienak.
- Euskal administrazio publikoek, dagozkien eskumenen eremuan, neurriak ezarriko dituzte emakume desgaituen egoera, baldintza eta beharrei erantzuteko, irisgarritasun unibertsala irizpide dela, gizartean aktiboki eta osoki parte har dezaten.
- Euskal administrazio publikoek, dagozkien eskumenen eremuan, neurriak ezarriko dituzte emakume presoaren egoera, baldintza eta beharrei erantzuteko.
- Euskal administrazio publikoek, dagozkien eskumenen eremuan, neurriak ezarriko dituzte etxerik gabeko emakumeen eta gizarte-bazterketa larria jasaten dutenen egoera, baldintza eta beharrei erantzuteko, pertsonari eta etxebizitza bat eskuratzeko eskubideari lehentasuna emanez.

2.2.10. Garraioaren, ingurumenaren eta energia-kontingentziaren inguruko politikak

Arestian adierazi dugunez, energiaren krisiak inpaktu espezifikoak izan du garraioaren eta energiaren eskuragarritasunaren eremuan, erregaiak, gasa eta elektrizitatea garestitu izanaren ondorioz. Atal honetan, euskal erakundeek herritarrei —eta, bereziki, errentarik txikieneko pertsonari eta familiei— garraiorako eta energiarako eskuragarritasuna errazteko hartutako neurri nagusiak laburbilduko ditugu.

a) *Ingurumenaren eta energia-kontingentziaren inguruko politikak Euskadin*

Klimaren eta energiaren krisiaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak hainbat politika jarri ditu abian, herritarrek ingurumen osasuntsua izateko duten eskubidea bul-tzatzeko, besteak beste:

- Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko 2021-2024 aldirako Plana, emisioak murrizteko eta energia berriztagarriak indartzeko helburuak lortzera eta lurraldea klima-aldaketaren inpaktuetara egokitzera bideratua. KLIMA 2050-Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategiaren esparruan, Planak hainbat ekimen biltzen ditu lan-eremu espezifiko batzuetan, hala nola energia berriztagarrietan, hiri-berroneratzean, eraikinen energia-birgaitzean, mugikortasun jasangarrian eta ekonomia zirkularrean. Aurreikusitakoaren arabera, langabezia % 10etik beherako maila batera murriztu ahal izango da Planari esker.
- 2021-2024 aldirako Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa Euskadiko Ekonomia Zirkularraren 2030erako Estrategiaren barruan dago, eta aukera eta erronka ekonomikoak, sozialak eta ingurumen-arlokoak balio-kate luzeagoetan, askotarikoetan, jasangarrietan eta toki-eremukoetan oinarrituta egongo den euskal bioekonomian txertatzea du helburu.

Energiaren krisiaren eremu espezifikoan, Europa energiaren prezioen krisi bat jasaten ari da 2021eko bigarren seihilekoaz geroztik, eta krisi horrek zuzeneko eragina du etxeko ekonomian eta industria- eta enpresa-jardueran. Krisi-egoera hori areagotu egin da Ukrainaren inbasio militarrek eragin duen energiaren krisi larriaren ondorioz. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Euskadiko Energia Kontingentziarako Planaren lehen zirriborroa aurkeztu zuen 2022ko abuztuan, Europako eta Estatuko jarraibideetan oinarrituta. Energia Kontingentziarako Plana kontsumoa murriztera bideratuta dago, eta pertsona eta



familiarik kalteberenei hainbat mekanismoren bidez laguntzeko konpromisoa jasotzen du. Planak, alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean inflazioaren ondorioak arintzeko zerga-neurriei buruz lortutako Akordioa aipatzen du. Bestetik, krisiak familia-ekonomietan duen inpaktua arintzera zuzenduta dauden eta gaur egun Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bideratzen dituen laguntza-lerroen areagotzea azpimarratzen du:

- Gurutze Gorriarentzako dirulaguntza, bazterketa-egoeran dauden familien energia-horniduraren (argiaren, uraren eta gasaren) gastuen zati bati aurre egiteko.
- 2022rako aurreikusitako GLLen aurrekontu orokorra 3.500.000 eurotan gehitzea eta energia-gastuetarako laguntza horiek emateko muga aurreko 900 euroetatik egungo 1.500 euroetara igotzea.

b) Hobaria Euskadiko garraio publikoko sistema guztietan

Gaur egun, garraio publikoko sarea erabiltzeko deskontuak eta hobariak daude EAEn, BAT (Araba), BARIK (Bizkaia) eta MUGI/Lurraldebus (Gipuzkoa) sistemen bidez. Hiru sistemek, abonu orokorreko modalitate batez gain, hobariak aurreikusten dituzte garraio publikoaren erabileran (bakoitzak bere berezitasunekin), hainbat kolektiborentzat: familia ugariak, gazteak, 65 urtetik gorakoak, desgaitasuna duten pertsonak eta diru-sarrera txikiak dituzten pertsonak. Halaber, 6 urtetik beherakoentzat garraio publikoa Autonomia Erkidego osoan doan izatea aurreikusi da.

2022. urtean, Espainiako Gobernuak onartutako ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuak, beste zenbait neurriren artean, % 50eko murrizketa iragankorrak ezartzen ditu garraio-titulu jakin batzuetan. Halaber, zuzenean laguntzen sistema bat ezartzen du irailaren 1etik abenduaren 31ra bitarte garraio-abonuen eta multibidaia-tituluen prezioan % 30eko jaitsiera ezartzeko konpromisoa hartzen duten autonomia-erkidegoentzat eta toki-erakundeentzat, baita deskontu horiek baliabide propioekin handitzeko aukera ere⁴³.

Horren ondorioz, 2022ko uztailan, Euskadiko Garraio Agintaritzaren Osoko Bilkuran, garraioaren hobariaren % 50 beren gain hartzeko borondatea agertu zuten euskal administrazioek, baterako ahalegin batean oinarrituta. Eusko Jaurlaritzak 2022ko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitarte Euskadiko garraio publiko osoaren bonuetan aplikatuko den hobariaren % 40 hartuko du bere gain baliabide propioekin. Era horretan, foru-aldundiek eta toki-erakundeek gainerako % 10a hartu beharko dute beren gain, herritarrek % 50eko hobaria baliatu ahal izan dezaten Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoaren sistema guztietan, 2022ko azken lauhilekoan. Garraio publikoko bonuen deskontuak automatikoak dira, eta bateragarriak eta metagarriak EAEn dagoeneko aktibo dauden hiru sistemek garraio-sare publikoaren erabiltzaileentzat aurreikusten dituzten hobariekin.

⁴³ Geroago, 14/2022 Errege Lege Dekretuak % 100eko jaitsiera ezarri zuen aldirietako guneeetako zerbitzuetan eta zerbitzu publikoko betebehartzat hartutako distantzia ertaineko tren-zerbitzuetan, aldi horretan bertan.

2.2.11. Diru-sarrerak eta inklusioa bermatzeko sistema antolatze politikak

Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren ezaugarri nagusietako bat gizarteratze-sistemaren barne-antolamendura eta sistema horren gobernantzaren hobekuntzara bideratutako prozesu eta mekanismoei emandako garrantzia izan da, hobekuntza-eremu nagusietako bat, hain zuzen ere, eragileen eta garatutako politiken koordinazioa dela kontuan hartuta.

Ildo horretan, IV. Planak aurrerapen garrantzitsuak ekarri ditu:

- Alde batetik, Euskadin pobrezia-eremu eta langabezia-eremu gertatzen diren lurralde-desberdintasunak murriztera bideratutako honako jarduketak hauek garatu dira:
 - o Indartu laguntzen deialdiak, langabezia-tasa handia duten eremuak bultzatzeko inbertsioak egiten dituzten enpresentzat.
 - o Esperientzia pilotuak garatzea Euskadiko Lurralde Inbertsio Integratuko ITI Planaren esparruan.
 - o ZTBP Euskadi 2020ren «hiri-habitata» aukera-nitxoaren helburuak lortzen laguntzen duten proiektu berritzaileetarako dirulaguntzak.
 - o Berpiztu programa, eskualde behartsuei edo lehentasunezko jarduketak-eremuei bultzada berria emateko.
 - o Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu berezietarako deialdiaren esparruan, tokiko sareko lana dinamizatzen bideratutako eskualdeko proiektuak sartzea.
 - o Aurrerapenak Bultzatu 2050 Euskal Hiri Agendan eta Hiri Behatoki Sozioekonomikoan.
- Sistemen arteko koordinazio-tresnak garatu dira auzo-, udal- edo eskualde-mailan, eta esku-hartze prozesuen dimentsio komunitarioa bultzatu da. Ildo horretan, lurralde bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak kontuan hartzen dituzten, eragileak integratzen dituzten eta arreta komunitarioa ahalbidetzen duten esku-hartze prozesuak ahalbidetzeko, honako jarduketak hauek garatu dira:
 - o Auzo pilotuen proiektua, 2017an Txomin Enea (Donostia) eta Txonta (Eibar) auzoetan hasi eta Aramotz (Durango), Basauri Bailara (Lasarte) eta Otxarkoagara (Bilbo) hedatua. 2021ean Amurrio eta Portugaletera zabandu da.
 - o Agorak Bherria ekimena herritartasun berri baterako, parte-hartze sozialeko eta interakzio publiko-sozialeko prozesuak sustatzeari eta sortzeari lotuta (www.bherria.eus).
 - o Gizarteratzeko eta laneratzeko sareen, batzordeen eta/edo mahaien funtzionamendua eskualdeetan eta kuadrilletan.
 - o Gizarteratze-sistemen artean koordinatzeko tokiko mahaiak abian jartzea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzaren kontura.
 - o Gizarteratzeko ibilbide mistoen diseinua bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren (BGDS) eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) onuradunentzat (Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioa, Lanbide, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza).
- Horrez gain, hainbat ekimen garatu dira honako helburu hauekin:
 - o gizarteratzearen eremuan esku hartzeko esparru komun bat sortzea, praktika profesionala pertsonarengan oinarritutako arretaren, indibidualizazioaren, aktibazio inklusiboaren eta bizi-kalitatearen printzipioen inguruan antolatzeko;
 - o pertsona bere bizi-proiektuaren protagonista gisa hartzen duen arreta soziosanitarioko eredu eraginkor, koordinatu eta jasangarri bat garatzea;
 - o berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa erraztea eta gizarteratzeko euskal sistemaren legitimitate soziala bermatzea.

Era berean, aurrerapen garrantzitsuak egin dira Gizarteratzeko Euskal Plana diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren antolamendurako tresna baliagarri bihurtzeko helburuari dagokionez. Ildo horretan, Planaren gauzatzearen jarraipen-prozesua finkatu egin da urteko jarraipen-txostenen eta 2022an egindako azken



ebaluazioaren bidez, baita Planaren jarraipenaz arduratutako Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen funtzionamendua ere.

Hala ere, ez da aurrerapenik egin hirugarren sektoreko erakundeek kasu-erreferentziako eta kasu-koordinazioko funtzioetan duten parte-hartzeari dagokionez, ezta gaur egun gizarteratzeko politiken eremuan egiten diren berrikuntza-, ikerketa- eta ebaluazio-jarduerak antolatzea eta egonkortzea ahalbidetuko duen programa edo plataforma bat finkatzeari dagokionez ere. Era berean, ez da aurrerapenik egin gizarteratzeko politiken zilegitasun soziala bultzatuko duten diskurtso eta mezu inklusiboak zabaltzera bideratutako ekimenak abian jartzeari dagokionez, ezta Gizarteratzeko Euskal Kontseilua abian jartzeari dagokionez ere.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen Proiektuak aurrera jarraitzen du sistemaren gobernantzari eta barne-antolamenduari dagokienez, garrantzi handiko hainbat jarduketaren bidez. Jarduketara nagusiak honako hauek dira:

- Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko lan koordinatua bultzatzea, eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen eta Lanbideren erabiltzaile guztiek diru-sarrerak bermatzeko prestazioez gain behar dituzten laguntzak antolatzeko hainbat tresna eta mekanismo garatzea. Lan koordinatu hori hainbat tresnaren bidez egingo da, eta, haien artean, honako hauek azpimarra daitezke:
 - o onuradunen beharrak detektatzeko eta haien diagnostikoan esku hartu behar duten sistemak identifikatzeko triaje-tresna bat aplikatzea. Tresna horrek gizarte-zerbitzuen zorroko zerbitzuen edota enplegua aktibatze bidezkoa den programaren preskripzioa hartu beharko du barnean.
 - o Lanbide erreferentziako profesional bat esleitzea. Profesional hori Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala bultzatzeaz, negoziatzeaz, izenpetzeaz eta haren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratuko da⁴⁴. Programa hori lantzean gizarte-zerbitzuetan esku hartzeari lehenetsuna emateko beharra agerian jartzen den kasuetan, erreferentziako profesionala sistema horretan kokatuko da.
- Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren gobernantza hobetzea eta administrazioen artean koordinazio handiagoa lortzea, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea indartzearen bidez.
- Gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen parte-hartzea bultzatzea eta, horretarako, besteak beste, Gizarteratzeko Euskal Kontseilua indartzea.
- Ebaluazioa, ikerketa eta berrikuntza indartzea. Legeak hainbat neurri ezartzen ditu Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren ebaluazioari begira, herritarren aurrean agertu beharreko gardentasuna eta kontu-ematea indartzeko. Ildo horretan, Legearen proiektuak Gizarteratzearen arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren sorkuntza ezartzen du, eta, haren bidez, ebaluazioaren kulturen sakondu nahi da, kalitatea hobetzeko baliabiderik onena den heinean. Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa administrazio-organo espezializatu gisa konfiguraturuta dago, eta, bere funtzioak betetzean, objektibotasun eta independentzia funtzional osoz jardungo du. Organo horren eskumen-eremua diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloko berrikuntzaren eta ikerketaren sustapenak eta ebaluazioak osatzen dute.

⁴⁴ Esku-hartze indibidualizatua bideratzeko, diru-sarrerak bermatzeko prestazioaren titularrek eta onuradunek programa hori negoziatu eta izenpetu beharko dute DSBEa jasotzen denetik urtebete betetzen denean. Nolanahi ere, gizarteratzeko tresna hori BGDsaren onuradun guztiei eskaini ahal izango zaie. Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonalak egungo gizarteratze-hitzarmenak ordeztuko ditu, eta, Legearen aurreproiektuari jarraikiz, izenaz haratago pizgarri bat da sistemaren onuradunak gizarteratzeko prozesuari aurre egiteko moduetan.



3. ESPARRU ESTRATEGIKOA

3.1. KONTZEPTUZKO ESPARRUA ETA PRINTZIOPIO GIDARIAK

Inklusiorako V. Euskal Planak, aurrekoek bezalaxe, gizarteratze- eta bazterketa-egoeren definizio dimentsioanitz bat du abiapuntu. Ildo horretan, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, «pertsonak gizarte-bazterkeriako egoeran egongo dira irauan egiten duten gabezia ugariak haien bizi-baldintzei eta bizikidetzeta-baldintzei eragiten dietenean. Gabezia horiek metatzen direnean, gizarte-bazterkeriako egoera bat eragiten dute, zuzenean baliabide pertsonalekin, harremanezko baliabideekin eta baliabide materialekin loturikoa (...). Bazterketa dimentsio askotakoa da, eta, hori horrela, zenbait pertsona edo talde jakin batzuk gizarteratsetik eta, horrenbestez, herritar identitatea osatzen duten truke, praktika eta eskubide sozialetan parte hartzetik kanpo geratzen dira. Gizarte-bazterkeria ez dago soilik finantza-baliabideen gabeziarekin lotuta, eta ez da mugatzen enpleguaren munduan soilik parte hartzera; beste zenbait esparrutan ere nabarmentzen eta agertzen da, hala nola etxebizitza, bizikidetzeta, hezkuntza, osasuna edo zerbitzuak baliatzean».

Gizarteratzearen arloko politika publikoen plangintzaren ikuspegitik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen Proiektuaren 129. artikulua ezartzen du euskal administrazio publikoek koordinatuta planifikatuko dituztela Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren lehentasunezko jarduketaren helburu, tresna eta ardatz komunak, eta, betiere, babes-maila homogeenak gordeko dituztela lurralde osoan. Autonomia Erkidegoaren esparruan, plangintza Gizarteratzeko Euskal Planaren gauzatuko da, eta, lantzen denean, zuzeneko parte-hartzea bermatuko zaie euskal administrazio publiko guztiei, beste erakunde publiko eta pribatu batzuei eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeei. Artikulu horretan bertan gaineratzen denez, foru-aldundiek eta udalek edo udalen elkarteek, Gizarteratzeko Euskal Plana gauzatzean, beren programazio propioa garatuko dute beren jarduteko lurralde-esparruetan.

Era berean, 131. artikulua dio Gizarteratzeko Euskal Planak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dituela esku hartzeko eta jarduteko ildo eta jarraibideak, administrazio eskudunen jarduera gidatuko dutenak bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratzea lortzeko. Artikulu horretan bertan ezartzen denez, euskal administrazio publikoek koordinazioa sustatuko dute Gizarteratzeko Euskal Planaren eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan eragina duten erakunde arteko eta sail arteko beste plan batzuen artean; bereziki, enpleguaren, gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, etxebizitzaren, osasunaren eta arreta soziosanitarioaren arloetako planekin.

Hona hemen Legearen proiektuak Planari esleitzen dizkion printzipioak:

- Gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnen eta helburuen denbora-plangintza eta plangintza geografikoa, hurbiltasun-irizpidea bereziki kontuan hartuta.
- Lurralde-oreka eta lurralde-homogeneotasuna.
- Eskuragarri dauden baliabide guztien aprobetxamendu integrala, malgua, arrazionala eta efizientea.
- Aurrekontu-zuzkidura nahikoa.
- Gardentasunaren printzipioa.
- Plangintza lantzeko beharrezkoa den herritarren parte-hartzearen printzipioa.



Horrez gain, adierazitako Lege Proiektuak ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal politika guztiek honako printzipio hauei jarraitu beharko dietela:

- Eskubide bikoitza.
- Unibertsaltasuna.
- berdintasuna eta ekitatea.
- Elkartasuna.
- Genero-ikuspegiaren integrazioa.
- Haurren babesa.
- Enpleguaren aitorpena.
- Gizarteratzeko politikaren zeharkakotasuna.
- Baliabideen kalitatea eta optimizazioa.
- Euskal administrazio guztien koordinazioa eta inplikazioa.
- Parte-hartzea.
- Ebaluazioa eta gardentasuna.

Aurreko Gizarteratzeko Euskal Planean bezala, eta lurralde historiko batzuetan garatzen ari den lan-ildoari jarraituz⁴⁵, V. Planak eutsi egin dio gizarte-bazterketari aurrea hartzeko eta aurre egiteko politikak pertsonalizatzearen eta politika horietan guztietan aktibazio inklusiboaren paradigma aplikatzearen aldeko apustuari. Ildo horretan, aurreko planean ezarritako jarduketaren printzipioei eutsiko zaie:

- **Aktibazio inklusiboa;** gizarte-bazterketaren fenomenoari lotutako dimentsio guztiak (enplegua, diru-sarrerak, etxebizitza, hezkuntza, gizarte-harremanak eta abar) pertsona bakoitzaren premien arabera lantzeko beharra dakar.
- **Inbertsio soziala eta prebentzioa;** pobrezia- eta bazterketa-egoerak sortu direnean baino abian jartzen ez diren neurri aringarriak ez ezik, egoera horiek saihestea ahalbidetzen duten neurriak eta jarduketak ere indartu daitezten.
- **Bizi-kalitatea, autodeterminazioa eta autonomia.** Plan honen abiapuntua da bazterketari aurre egiteko eta aurrea hartzeko politiken helburu nagusiak erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea (haiek definitzen duten bezala) eta erabiltzaileen autodeterminazioa eta kontrol-gaitasuna bultzatzea izan behar duela. Horretarako, beharrezkoa da programak eta prestazioak ahal den neurrian erabiltzaile bakoitzaren premia, aukera, nahi eta itxaropenetara egokitzea. Esku-hartzeen diseinua eta ebaluazioa, beraz, bizi-kalitateari lotutako hobekuntzak bultzatzera bideratu behar dira, hau da, garapen pertsonalari, autodeterminazioari, pertsonen arteko harremanei, gizarteratzeari, eskubideei, ongizate emozionalari, ongizate fisikoari eta ongizate materialari lotutako hobekuntzak bultzatzera. Esku hartzeko prozesu batek eremu horretan hobekuntzarik ez badakar (nahiz eta beste alderdi batzuetan arretak edo hobekuntzak eskaintzen dituen), nekez har daiteke pertsonalizatutzat.

⁴⁵ Adibide gisa, Gipuzkoan Etorbizuna Eraikiz Think Tank izenekoaren esparruan arretaren pertsonalizazioaren inguruan egiten ari den lana aipa daiteke.



- **Baldintzarik eza.** Arretaren pertsonalizazioak, halaber, baldintzarik gabeko planteamenduak hartzea dakar, erabiltzaileei profesionalen, erakundeen edota gizarte osoaren balio moralik inposatu gabe. Oinarritzko bizikidetzara-arauek betetzeaz gain, arreta pertsonalizatua saihestu egin behar da merezimendurizpideen aplikazioa (portaera edo aukeraketa pertsonalak direla eta pertsona jakin batzuek jasotzen duten laguntza merezi dutela eta beste batzuek ez pentsatzea), eta zerbitzuak oro har onartu ohi direnekin bat ez datozen jokabideak, ohiturak edo balioak izan ditzaketen pertsonari ireki behar zaizkie. Testuinguru horretan, esku-hartzearen baldintzarik ezak eskakizun-irizpide aldakorren aplikazioa eta esku-hartzeen helburuak eta arauak pertsona bakoitzaren egoera zehatzera —eta aukera pertsonaletara— egokitze ahalmena dakartza.
- **Eskubideen ikuspegia;** bi elementu bereizi behar dira: alde batetik, ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonari ukatu ezin zaizkien hainbat zerbitzu eta prestazio (osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren, diru-sarreraren bermearen edo gizarte-zerbitzuen arlokoak) jasotzeko eskubide subjektiboaren finkatzea; bestetik, pertsonen eskubideekiko errespetua kalitateko arreta baterako ezinbesteko baldintza delako ideia. Horrek esan nahi du gizarteratzeko zerbitzuen erabiltzaileek, arestian adierazitako eskubide subjektiboak ez ezik, praktikan kalitateko arreta jasotzeko, duintasunerako, pribatutasun eta intimitaterako, autodeterminazio eta autonomiarako, aukeratzeko edo gogobetetze eta errealizazio pertsonalerako eskubideak baliatzeko aukera izan behar dutela.
- **Arreta komunitarioa.** Planaren oinarritzko helburuetako bat gizarteratzeko politiken dimentsio komunitarioa indartzea da, bazterketa-egoeren (abiarazle indibidualak alde batera utzita) arazoak funtsean egiturazkoak direla, komunitatearen esparruan agertzen direla eta esparru horretan aurre egin behar zaiela abiapuntutzat hartuta. Horrek esan nahi du maila horretan garatzen diren dinamika komunitarioetan esparru horretan diharduten zerbitzuen arteko koordinaziorako mekanismoak sortu behar direla, eta komunitatearen autoantolaketa-erako formulak bultzatu behar direla tokiko elkartasuna eta hurbiltasuna sustatzearen bidez.
- **Herritarren, eraginpean hartutako pertsonen eta hirugarren sektoreko erakundeen parte-hartzea.** Plana diseinatzean zein gauzatzean, gizarteratzeko politikan inplikaturako eragile guztien parte-hartzea bultzatu nahi da, ezaugarri bereizgarri gisa lankidetzara publiko-pribatua izango duen esparru batean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak planteatzen duenari jarraikiz. Horretarako, beharrezkoa izango da erakunde publiko guztiek, hirugarren sektoreko entitateek, enpresek eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen jarduketan diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan parte hartzea.

3.2. INKLUSIORAKO V. EUSKAL PLANA PRESTATZEKO ERABILITAKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Adierazitako arau-esparrutik abiatuta eta aurreko gizarteratzeko planen ebaluazioak ere kontuan hartuta, oinarritzko sei irizpide hartu dira kontuan Inklusiorako V. Euskal Plan hau egiteko:

a) *Erakunde arteko ikuspegia, dimentsioaniztuna eta integratzailea*

Aurreko gizarteratze-planen ebaluazioak agerian utzi ditu gizarteratze-planari esleitu ohi zaien dimentsio anitzeko eta sail arteko izaerari datxezkion zailtasunak eta arriskuak, «gizarte-bazterketa» kontzeptuaren dimentsio-aniztasuna bera dela eta: alde batetik, helburuak eta jarduketak barreiatzeko arriskua eta haien fokalizatorik eza; bestetik, Planaren garapenaren gaineko lidergoa gauzatzeko eta erakunde arteko eta sail arteko plan orok behar duen bultzada politikoa emateko zailtasunak. Bi alderdi horiek funtsezkoak dira, kontuan hartuta sektoreen artean koordinazio-arazoak sortzen direla (maila orokorrean zein esku-hartze indibidualaren mailan) eta bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen arazo nagusiak sistemak eta politikak gurutzatzean gertatzen direla.

Hala ere, indarrean dagoen arau-esparruak eta gizarte-bazterketa dimentsio anitzeko fenomenotzat hartzeak Planaren erakunde arteko izaerari (eta, arestian adierazi dugunez, Plana Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak egin behar du, Autonomia Erkidegoko administrazioaren, foru-administrazioaren eta udal-administrazioaren



parte-hartzearekin) zein dimentsio anitzeko izaerari eustera behartzen dute. Gainera, aurreko Planean adierazi bezala, dimentsio anitzeko eta erakunde arteko izaera hori dela eta ahalik eta lehentasunik handiena eman behar zaie gobernantzarekin, sektore arteko lankidetzarekin, ezagutzaren kudeaketarekin eta, azken batean, gizarteratze-politiken erakunde arteko antolamenduarekin lotutako neurriei.

Erakunde arteko izaerak dakar Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen eta/edo Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren parte diren administrazio publiko guztiek Planean parte hartzea. Zehazkiago, Planak honako hauek hartzen ditu eraginpean:

- EAEko udalerrri guztiak, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartean ordezkatuak.
- Hiru foru-aldundiak eta, zehazkiago:
 - Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saila.
 - Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna Sustatzeko Saila.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila.

Planaren erakunde arteko izaerak, gainera, hirugarren sektoreko entitateek eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen pobrezia- eta bazterketaren aurkako politikak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen parte har dezaten sustatzeko eta gizarte-bazterketaren aurkako politiken koprodukzioan sakontzeko beharra dakar.

b) Izaera orientatzailea eta, aldi berean, operatiboa

Gaur egun indarrean dagoen Legearen antzera, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen Aurreproiektuaren 128. artikulua honako hau ezartzen du: «Gizarteratzeko Euskal Planak era koordinatu eta globalean jasoko ditu administrazio eskudunen jardura orientatu behar duten esku hartzeko eta jarduteko ildo eta jarraibideak, baztertuta daudenak gizarteratzea lor dadin». Gainera, Legean adierazten denez, Planak honako eduki hauek izango ditu gutxienez: a) gizarteratzeko eta laneratzeko beharren diagnostikoa eta haien eboluzioaren pronostikoa; eta b) helburuen, ardatz estrategikoen eta horietako bakoitzeko ekintzen definizioa, garatzeko eta lortzeko epeak eta horretarako erakunde edo organo eskudunak ezarritik.

Horrela, beraz, Gizarteratze Planak, funtsean, orientatzailea izan behar duela ondoriozta daiteke, eta, ildo horretan, arreta-sarea hobetzeko gomendio, jarraibide edo orientabide generikoak ezarri behar ditu, sistemak behar dituen aldaketa estrategikoen zehaztapenetik abiatuta. Gizarteratzeko politiken plangintza egiteko, beharrezkoa da, gainera, plana operatiboa izatea eta, ildo horretan, administrazio bakoitzak adierazitako orientabideak gauzatzeko eta ezarritako helburuak lortzeko egingo dituen jarduketak zehatzen identifikazioa ahalbidetzea.

Planak, beraz, bi helburu osagarri ditu: alde batetik, diagnostiko eguneratu eta partekatu batez gain kontzeptuzko esparru baten eta lehentasun komun batzuen inguruan inplikaturako eragileek ekintza orientatzea ahalbidetuko duten helburu, jarraibide eta gomendioen esparru bat zehaztea; eta, bestetik, izaera eragilea eta eraldatzailea duten konpromisoak, jarduketak eta ekintza-proiektuak identifikatzea.

Horretarako, estrategia orientatzea, konprometitzea eta eraldatzea helburu duten hiru mailatan garatzen da: orientabideak, konpromisoak eta proiektu eragileak, hurrenez hurren.



- Orientabideak identifikatutako erronken eta lehentasunen ondoriozkoak dira, eta, esan bezala, Euskadin gizarteratzearen arloko politika publikoak gidatu behar dituzten jarraibide eta gomendio orokorrak bil-tzen dituzte.
- Konpromisoak, bestalde, Planari lotutako erakunde publikoek Planaren indarraldian beren gain hartu eta egingo dituzten neurri edo ekintza zehatzak dira. Ezarritako konpromisoak erakunde jakin batzuei lotuta egongo dira, eta izaera zehatza eta ebaluagarria izango dute.
- Azkenik, ondorengo atalean azalduko denez, Planak izaera eragilea edo eraldatzailea izango duten proi-ektu berezi batzuk bilduko ditu, eta proiektu horiek Planaren indarraldian gauzatuko dituzte Gizartera-zeko Erakunde arteko Batzordea osatzen duten entitateek.

c) *Planaren arreta ahalmen eragilea edo eraldatzailea duten proiektu eta jardueretan jartzea.*

Planak oro har ezartzen dituen helburu, gomendio edo jarraibideekin eta Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzor-dea eta/edo Gizarteratzeko Euskal Kontseilua osatzen duten entitateek ekintza espezifikoko gisa beren gain hartzen dituzten konpromiso zehatzekin batera, Planaren arreta ahal den neurrian ahalmen eragilea edo eraldatzailea eta izaera bereziki esperimentalak duten proiektu edo jarduketak berezietan jartzeko beharra ere planteatzen da. Ho-rretarako, bazterketa-egoerak prebenitu, hobetu edo gaintzeko erreferentzia bat izan daitezkeen eta inpaktu positiboak dutela frogatuz gero zabaldu daitezkeen hainbat proiektu berritzaile edo esperimental jasoko dira Pla-nean.

Oro har, proiektu eragileak honelakoak izan daitezke:

- Eraldatzaileak, epe luzerako ondorioekin. Esan daiteke proiektu horiek modu esanguratsuan prebenitu edo hobetu ditzaketela bazterketa-egoerak eta/edo gizarteratzeko euskal sistemaren funtzionamendua.
- Bereziak eta berritzaileak, jarduketa tradizionalagoen aldean elementu berriak ekar ditzaketen edota orain arte egindakoaren aldean proiektu nabarmen desberdinak izan daitezkeen heinean.
- Zeharkakoak eta integralak, ondorio eraldatzailea erakunde edo entitate bultzatzailean ez ezik sektore osoan edota «balio-katean» ere maximizatu daitezkeen heinean. Proiektu horietako batzuen bidez, hainbat esku-hartze mota koordinatu nahi izaten dira, proiektuaren «xedearekin» lotutako hainbat arlotan aldaketak eragin ahal izan ditzaten.
- Kooperatiboak edo modu kooperatiboan egindakoak; izan ere, irabazi-asmoko edo irabazi-asmorik ga-beko erakunde publiko edo pribatu batek edo gehiagok bultzatu ditzakete, eta proiektua implementatzen den testuinguru edo jarduketa-eremuko funtsezko hainbat eragile inplika ditzakete.
- Egituratzzaileak; izan ere, proiektu bat komunitate, herri edo lurralde baten egitura-ardatza edo «kantoi-harria» izan daiteke.
- Proiektu eragile horiek ekimen berriak zein garapen-fasean dauden eta zabaldu edo garatu daitezkeen ekimenak izan daitezke.

d) *Izaera dinamikoa eta malgua*

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen Proiektuari jarraikiz, Inklusiorako V. Eus-kal Planaren indarraldia bost urtekoa izango da.

Hala ere, Planak ahalik eta dinamismorik handiena izan behar du, herritarren beharrezanetan eta/edo Planari lotu-tako politiken eta jarduketan irismenean gertatzen diren aldaketan arabera berrorientatzeko eta birformulatzeko gaitasuna izan behar baitu. Ildo horretan, eta IV. Planerako planteatzen zenez, aurreikusitako jarduketak aldatu eta/edo osatu egin daitezkeela eta aldatu eta/edo osatu egin behar direla eta jarduketa berriak gaineratu edo hasieran aurreikusitakoak aldatu egin daitezkeela hartzen da abiapuntutzat.

Dinamismo- eta malgutasun-borondate horrek, aurrerago azalduko dugunez, plana bi urteko (2023/24 eta 2025/26) plan operatiboen inguruan antolatzea dakar.

- e) *Planaren ebaluazio- eta jarraipen-jardueri bultzada berria ematea, eta Euskadiko gizarteratze-politiken gobernantzarako egiturak finkatzea.*

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen Aurreproiektuaren testuak Gizarteratzeko Euskal Planaren edukia definitzean adierazten duenez, Planak honako hauek jasoko ditu:

- Ebaluazio sistematiko eta jarraitua egiteko mekanismoen definizioa.
- Gizarteratzearen inguruko ikerketari eta berrikuntzari eskainitako atal bat.
- Sail eskuduneko Estatistika Organo Espezifikokoaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Kabinete Teknikoaren jarduketak eta euskal unibertsitateekin, ikerketa-zentro espezializatuekin eta Euskadiko hirugarren sektorearekin lankidetzan egiten direnak.

Arestian adierazi dugunez, Proiektu horrek berak, gainera, gizarteratzearen arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren sorkuntza ezartzen du. Administrazio-organo espezializatu berri horren eskumen-eremua Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren berrikuntzaren eta ikerketaren sustapena eta ebaluazioa izango da, bazterketaren prebentzioan eta desagerraraztean esku hartzeko ahalmenak garatzeko eta etengabe hobetzeko tresna gisa. Organo horren funtzioen artean, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren bi urtez behingo ebaluazio bat egitea eta ikerketa, berrikuntza eta prestakuntzaren arloko jarduerak bultzatzea nabarmentzen dira.

Elementu horiek guztiak kontuan hartuta, Planaren ebaluazio- eta jarraipen-jardueri eta Euskadiko gizarteratze-politiken gobernantzarako egiturak finkatzeko lanari bultzada berri bat ematea aurreikusi behar da Inklusiorako V. Planean. Bultzada hori gauzatzeko, gizarteratzearen arloko berrikuntzari, ebaluazioari eta ikerketari zuzenean lotutako helburuak, ardatzak edo jarduerak txertatu behar dira Planean, eta Planaren ebaluazio- eta jarraipen-egiturak⁴⁶ eta gizarteratzeko euskal sistemaren barne-antolamendua bera indartu behar dira, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren jarduerak sendotzearen bidez.

- f) *Memoria eta zuzkidura ekonomiko espezifikokoak egitea.*

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema erregulatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, Gizarteratzeko Euskal Planari memoria ekonomiko bat erantsiko zaio, zeinak esku-hartzeen eta jarduketan kostu ekonomikoaren inguruko aurreikuspenak bilduko baititu.

Plan honetan zuzkidura ekonomikoari dagokionez jarraitutako irizpideak bi dira:

- Planean txertatutako proiektu eragileez gain, urteko aurrekontua zenbatestea ahalbidetuko duen memoria ekonomiko bat izango du lantzen den plan operatibo bakoitzak. Dokumentu honetan, gainera, Plan honen esparruan mobilizatuko diren baliabide ekonomikoaren zenbatespen bat txertatu da.
- Plan operatiboetan aurreikusitako jarduketa gehienak hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren, gizarterbitzuen, enpleguaren eta justiziaren arloan eskumena duten administrazioek beren eskumenak baliatuz finantzatzeko dituzten arren, Lan eta Enplegu Sailak finantzaketa-lerro espezifikoa bat sortuko du Inklusiorako V. Euskal Planaren esparruan proiektu eragileak abian jar daitezela sustatzeko. Edonola ere, beste administrazio batzuek beste proiektu eragile batzuetarako finantzaketa-lerro propioak sortu ahal izango dituzte, eta, nolana ere, ahaleginak egingo dituzte bikoiztasunak eta eraginkortasunak ezak saihesteko.

⁴⁶ Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduerak planifikatzeko garaian, kontuan hartu behar da, nolana ere, sistema osoaren ebaluazio bat dagoela, arestian adierazitako Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak egina.



3.3. BESTE PLAN ETA ESTRATEGIA BATZUEKIN BAT ETORTZEA

Aurreko atalean, bazterketari lotutako eremuetan garatu diren euskal politikak aztertu ditugu, eta Esparru Estrategiko hau lantzeko garaian kontuan hartu diren nazioarteko, Autonomia Erkidegoko eta lurralde-mailako plan eta estrategia sektorialak aipatu dira. Nolanahi ere, Inklusiorako V. Planarekin bat datozen eta edukiak Planean neurri handiagoan edo txikiagoan txertatuta dituzten planak eta strategiak aipatuko ditugu ondoren.

Ikuspegi globaletik abiatuta, bereziki aipatu beharra dago Inklusiorako V. Euskal Plana Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin bat datorrela. Agenda hori ekintza-plan unibertsala, integrala eta eraldatzailea da, giza garapena sustatzera bideratuta dago, eta garapen hori jasangarria izango da gizarte-eremuan, eremu ekonomikoan eta in-urumen-eremuan. Plan honekin espezifikoki lotuta dauden milurtekoko helburuak honako hauek dira:

- 1. helburua. Pobrezia-mota guztiak desagerraraztea mundu osoan.
- 4. helburua. Guztiontzako kalitateko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikas-kuntzarako aukerak bultzatzea.
- 5. helburua. Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.
- 7. helburua. Energia eskuragarria, segurua, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.
- 8. helburua. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegua eta lan duina sustatzea.
- 10. helburua. Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdinkeriak murriztea.
- 11. helburua. Hiriak inklusiboagoak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.

Euskadin, erakunde publikoek bat egin dute agenda global horrekin beren jarduketa-plan propioen eta I. Euskadi Basque Country 2030 Agendaren (Eusko Jaurlaritza) eta erakunde arteko agenda komuna jasotzen duen Euskadi Basque Country 2030 maila anitzeko Agendaren bidez.

Europako esparruan, Plana bat dator Eskubide Sozialen Europako Zutabearekin eta Eskubide Sozialen Europako Zutabearen Ekintza Planarekin. Planak, zehazki, Eskubide Sozialen Europako Zutabearen bildutako honako printzipio hauek txertatzen ditu esplizituki:

- Etengabeko hezkuntza, prestakuntza eta ikaskuntza. Pertsona orok du etengabeko hezkuntza, prestakuntza eta ikaskuntza inklusiboa eta kalitatekoa jasotzeko eskubidea, gizartean bete-betean parte hartzea eta lan-merkatuko trantsizioak arrakastaz kudeatzea ahalbidetuko dioten gaitasunak mantentzeko eta eskuratzeko.
- Genero-berdintasuna. Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna eremu guztietan bermatu eta sustatu behar da, baita lan-merkatuko parte-hartzeari, lan- eta enplegu-baldintzei eta lan-bide-karrerari dagokienez ere.
- Aukera-berdintasuna. Sexua, arraza- edo etnia-jatorria, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa edozein izanik ere, pertsona orok du tratu- eta aukera-berdintasunerako eskubidea enpleguari, gizarte-babesari, hezkuntzari eta jendearen eskura dauden ondasunak eta zerbitzuak baliatzeko aukerari dagokienez.
- Enplegurako laguntza aktiboa. Pertsona orok du laguntza pertsonalizatua eta bidezkoa jasotzeko eskubidea, enpleguaren edo lan autonomoaren inguruan dituen aurreikuspenak hobetzeko. Horren barruan, enplegua bilatzeko, prestakuntzarako eta birziklatzerako laguntza jasotzeko eskubidea dago.



- Enplegu segurua eta moldagarria. Lan-harremanaren iraupena eta mota edozein izanik ere, lan-baldintzen eta gizarte-babesa eta prestakuntza jasotzeko aukeraren arloan bidezko eta ekitatezko tratua jasotzeko eskubidea dute langileek.
- Soldatak. Langileek eskubidea dute bizi-maila duina emango duten bidezko soldatak jasotzeko.
- Gutxieneko errenta. Baliabide nahikorik ez duen pertsona orok eskubidea du bizitzako etapa guztietan bizitza duina eta trebatzeko ondasunak eta zerbitzuak bermatuko dituzten gutxieneko errentako prestazio egoki batzuk jasotzeko. Lan egin dezaketen pertsonen kasuan, gutxieneko errentako prestazioez gain lan-merkatuan berriz txertatzeko pizgarriak eman behar dira.
- Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea. Desgaitasuna duten pertsonak eskubidea dute bizitza duina bermatuko dien errentarako, lan-merkatuan eta gizartean parte hartzea ahalbidetuko dieten zerbitzuetarako eta beren premietara egokitutako lan-inguru baterako laguntza bat jasotzeko.
- Etxerik ez dutenentzako etxebizitza eta laguntza. Premia duten pertsonak etxebizitza sozialak edo kalitate oneko etxebizitzarako laguntzak lortzeko aukera eman behar zaie; pertsona kalteberek nahitaezko utzarazpen baten aurrean laguntza eta babes egokia jasotzeko eskubidea dute; etxerik gabeko pertsonak bizitoki bat eta zerbitzu egokiak eman behar zaizkie, haien gizarteratzea sustatzeko.
- Funtsezko zerbitzuak baliatzeko aukera. Pertsona orok eskubidea du kalitate handiko funtsezko zerbitzuak baliatzeko, hala nola ura, saneamendua, energia, garraioa, finantza-zerbitzuak eta komunikazio digitalak.

Gainera, Plana lantzeko, Autonomia Erkidegoaren esparruan eta, zenbait kasutan, lurralde-esparruan garatutako honako plan sektorial hauek hartu dira kontuan⁴⁷:

- Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050
- Haurren Bermerako Euskal Estrategia (lantzeko fasean)
- Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategia
- Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia (lantzeko fasean)
- Enplegarritasun eta Aktibazio Inklusiborako Estrategia - Elkar Ekin Lanean
- Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia
- Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia 2022-2026
- Haur eta Nerabeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia 2022-2025
- EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoa
- Etxerik gabeko Pertsonen I. Euskal Plana 2018-2021
- Gipuzkoako Gizarte Inklusio II. Plana - Elkar-Ekin
- 2018-2022 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana
- Osasun Sailaren 2021-2024 Esparru Estrategikoa
- Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2026 (lantzeko fasean)
- Migrazioarako Euskal Itun Soziala
- Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Plana
- Euskadiko Energia Kontingentziarako Plana (lantzeko fasean)
- Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren 2021-2024 aldiko Legegintza Plana

⁴⁷ Adierazitako plan eta estrategia gehienak indarrean daude gaur egun. Nolanahi ere, haietako batzuk ebaluatzeko eta eguneratzeko prozesuan daude, eta, aurreikusitakoaren arabera, datozen hilabeteetan onartuko dira.



- Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023
- Enplegu Plan Estrategikoa 2021-2024
- Euskadiko Justizia Plan Estrategikoa 2022-2028 (lantzeko fasean)
- Gizarte Ekonomiaren Sailarteko Plan Estrategikoa 2021-2024
- Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plana 2019-2022
- Etxerik gabeko Pertsonen Euskal Plana 2018-2021
- Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana 2022-2025
- EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana

3.4. LEHENTASUNEZKO ERRONKAK ETA ESPERO DIREN EMAITZAK

3.4.1. Sarrera

Aurreko orrialdeetan egindako premien diagnostikoan oinarrituta, eta haren oinarri den kontzeptuzko esparrua zein harekin bat datozen gainerako plan eta estrategien edukiak kontuan hartuta, Inklusiorako V. Euskal Plan honen bidez erantzun nahi zaien lehentasunezko erronkak zehaztuko ditugu atal honetan, baita epe ertain eta luzean lortu nahi diren emaitzak ere.

Lehentasunezko erronkak –39 guztira– Planaren xede diren politika publikoak diseinatzean eta gauzatzean egin beharreko aldatetara lotuta daude: diru-sarreraren bermea, gizarte-zerbitzuak, enplegua, osasuna, justizia, etxebizitza, hezkuntza eta sistemaren antolamendua. Hurrengo kapituluan, erronka horiek hainbat helburu eta ekintza-lerro espezifiktan islatuta daude. Erronka horiei aurre egiteko lanean egindako aurrerapena ebaluatzeko, adierazitako politiketan aurreikusitako aldatetarako zer neurritan gertatu diren ezartzea ahalbidetuko duten prozesu-adierazleak erabili beharko dira.

Espero diren emaitzak euskal herritarrek pobrezia, bazterketari, langabeziari, hezkuntza- edo osasun-desberdintasunei, etxebizitza lortzeko aukerari eta harreman-integrazioari dagokienez dituzten egoera eta premien inguruan gertatu beharreko aldatetara lotuta daude. Emaitza horiek ebaluatzeko, populazio-eremuko adierazleak erabili behar dira, eta inpaktu-adierazle gisa uler daitezke.

3.4.2. Lehentasunezko erronkak

Diagnostikoan adierazitako elementuetatik abiatuta, Inklusiorako V. Euskal Planak gizarteratzeari lotutako politika publikoen hedapenaren eta egokitzearen ikuspegitik aurrean dituen lehentasunezko erronkak honako hauek dira:

1. Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legea onartu eta hedatzea, eta, ildo horretan, DSBEaren zenbatekoak eguneratzea, prestazioa kudeatzeko prozedurak hobetzea eta pobrezia murrizketari dagokionez eraginkortasun handiagoa izatea.
2. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren (BGDS) kudeaketa Eusko Jaurlaritzari transferitzeko prozesua amaitzea, Lanbidek BGDSa behar bezala kudeatzeko mekanismoak ezartzea eta prestazio hori diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema osoan txertatzea.
3. Pobrezia inguruko iruzurra saihestuko duen eta enplegu pobrezia erantzungo dion enplegurako hobarien egitura-sistema bat finkatzea, DSBEaren esparruan enplegurako pizgarriak indartzearen bidez.
4. Seme-alabak dituzten familiei babes ekonomiko nahikoa bermatzea eta kargurako seme-alabengatik familia-prestazioak bultzatzea, BGDSaren haurrentzako osagarriari dagokionez bereziki.



5. Diru-sarrera txikiak dituzten pertsonen oinarritzko hornigaiak (elektrizitatea, gasa, ura eta erregaiak) eskuartzeko aukera bermatzeko mekanismo eraginkorrak garatzea, eta energia-pobrezari aurrea hartzeko eta aurre egiteko politika integralak garatzea, pertsonarik kalteberenak bereziki kontuan hartuta.
6. Inflazioaren igoerari aurre egitea, bereziki errentarik txikieneko taldeei dagokienez.
7. Lanbideak enpleguan lagundu, prestatu eta orientatzeko egiten dituen prozesuak hobetzea, bereziki enplegua lortzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonen dagokienez, eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko ibilbideen triajea, diagnostikoa eta plangintza egiteko tresnak bultzatzea, kolektibo horiekin lan egiten duten hirugarren sektore sozialeko erakundeekin lankidetzan.
8. Hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetzan, pobrezia-, langabezia- edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen banakako laguntzako formula eraginkorragoak eskaintzea, bai enplegu-zerbitzuek —funtsean lan-arlokoak diren premiak agertzen diren kasuan—, bai gizarte-zerbitzuek —gizarte-premiak edo gizarte-eta hezkuntza-arlokoak agertzen diren kasuan—.
9. Pandemiaren ondorengo aldiaren kalitateko enpleguaren gehikuntza sustatzea, bai sortutako krisian galdutako enpleguak berreskuratzearen bidez, bai egungo enpleguak finkatzearen eta enplegu berriak sortzearen bidez, batez ere ekonomia sozialaren eremuan.
10. Pertsona guztientzako kalitateko lan bat ziurtatzen laguntzea, eta behin-behinekotasuna, nahi gabeko partzialtasuna eta, oro har, lan-baldintza txarreko enplegu ezegonkor guztiak murriztea.
11. Luzaroko langabeziari aurre egitea, eta bereziki kaltetutako kolektiboen (hala nola 45 urtetik gorakoen, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenen eta etorkinen) langabeziaren kronifikazioa saihestea, gizarte-politikarekin lankidetzan estuan.
12. Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala prebenitu eta murriztea.
13. Gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen eremuan, lehen eta bigarren mailako arretaren koordinazioa hobetzea, arretaren jarraitutasuna eta malgutasuna lortze aldera, eta gizarte-zerbitzuen sarea toki-, eskualde- eta lurralde-mailan hedatzeko lanean aurrera egitea, lurralde bakoitzaren premietara eta baliabideetara egokitutako formulen bidez (kudeaketa-gomendioak, partzuergo, mankomunitate edo kuadrillen eraketa eta abar).
14. Ingurune komunitarioan gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen eta bizitegi-ingurunean bazterketa-egoeran dauden pertsonen zuzendutako esku-hartze sozial espezializatuko prozesuak eta, bereziki, gizarte- eta hezkuntza-arretako eta arreta psikosozialeko prestazioak hobetzea.
15. Konplexutasun handiko bazterketa-egoerei (hots, hainbat arreta-sistema edo arreta-azpisisematatik erantzun bateratua, koordinatua edo osagarria behar duten problematika lotuei) aurre egiteko modua hobetzea, lankidetzan jarduteko aukera emango duten sistemen arteko interfazeen eraikuntza hobetzearen bidez.
16. Sistemen arteko eragingarritasuna hobetzea, bazterketa jasateko arriskuan edo egoeran dauden pertsonen ibilbideetan inplikaturako sistema bakoitzerako sarbideei dagokienez.
17. Bizimodu-eredu independentea bultzatzea, eta eskubide hori Autonomia Erkidegoaren esparruan zeharkako ikuspegi batetik zehaztea.
18. Herritar guztien gizarteratzea errazten duten zerbitzu, programa eta ekipamendu guztien eskuragarritasun unibertsala, fisikoa eta kognitiboa bultzatzea.
19. Haurren eskubideak bermatzeko programa bat bultzatzea, haurren pobrezari aurre egiteko estrategia orokor baten funtsezko elementu gisa, Europar Batasunak emandako gomendioen bidetik.



20. Bakarrik dauden haur migratzaileei behar bezalako babes bermatzeko erakunde arteko lankidetzak bultzatzea, gizarteratzeko ibilbideak egin ahal izan ditzaten eta helduarorako trantsizioan babesgabatasuna prebenitu ahal izan dadin.
21. Espetxe-politikak Eusko Jaurlaritzari transferitzeko prozesua amaitzea, espetxe-baliabideak eta espetxe-ekipamenduak euskal gizartearen premietara egokitzea eta Aukerak – Gizarteratzearen Euskal Agentziaren garapenean aurrera egitea.
22. Euskadiko Justiziaren 2022-2028 Plan Estrategikoa onartu eta garatzea.
23. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzak bultzatzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legea garatzea, batez ere emakumeek gizarteratzeko duten eskubideari dagokionez, Lege horren 45. artikulua jasotzen duenari jarraikiz.
24. Minoria etnikoen, nazioarteko migrazioen eta asiloaren eremuan kultura-aniztasuna **sustatzeko** euskal eredu baten eraikuntzan aurrera egitea.
25. EAEko edozein udalerritan bizi diren pertsonen erregularizazio administratiboa eta bizitegi- eta lan-baimenak lortzeko aukera errazteko beharrezkoak diren neurriak bultzatzea.
26. Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa garatzea, eta, horretarako, alokairu-erregimeneko etxebizitzaren parke publikoa handitzea, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa garatzea eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak etxebizitza mobilizatzeko garatutako programak (Gaztelagun, Bizigune, ASAP eta abar) eta/edo etxebizitzaren arloko udal-entitateek garatutakoak (Etxegintza, Bilboko Udala Etxebizitzak eta abar) bultzatzea.
27. Etxebizitzak birgaitzeko politika bultzatzea, etxebizitzaren irisgarritasuna eta energia-efizientzia hobetzeko, besteak beste.
28. Bizitegi-bazterketa larriari aurre hartzeko eta aurre egiteko jarduketan garapenean aurrera egitea, eta, horretarako, Etxerik Gabeko Pertsonen II. Euskal Estrategia onartzea, utzarazpenak prebenitzeko programak mantendu eta indartzea eta, hirugarren sektorearekin batera, laguntza barnean hartzen duten etxebizitza sozialen sare bat garatzea (errefuxiatuak, Housing First, genero-indarkeria, zahartzea, gizarteratzea eta abar).
29. Herritar guztientzako hirirako eskubidea finkatzeko bidean aurrera egitea, Euskadiko Hiri Agenda bultzatzearen bidez. Agenda horren helburuak honako hauek izango dira: a) auzo eta eremu kalteberen hiri-berroneratze integrala; b) auzoetan eskuragarri dauden zerbitzuak orekatuko dituzten zuzkidura-politikak sustatzea, gizarte-zailtasunik handienak dituzten auzoak bereziki kontuan hartuta; c) hiriarteko eta auzoen arteko loturak hobetzea, eta d) irisgarritasun unibertsala bultzatzea.
30. Osasun Sailaren 2021-2024 Esparru Estrategikoa garatzea, bereziki honako hauei dagokienez: a) haurren aurkako indarkeria (sexu-abusua eta sexu-esplotazioa barne) garaiz detektatu eta hari aurre egitea; b) bizitegi irregularreko egoeran dauden etorkinen osasun-laguntza publikorako eskubidea bermatzea; c) Suizidioa Prebenitzeko Estrategia abian jartzea; d) osasun mentaleko laguntza-ereduak hobetzea; e) osasun komunitarioa bultzatzea; f) adikzio-arazoak eta beste premia espezifiko batzuk dituzten kolektiboentzako arreta hobetzea; g) desgaitasuna duten pertsonen errehabilitaziorako eskubidea bermatzea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritako baldintzetan; eta h) gaixotasun mentalari lotutako estigma saihesteko erakunde arteko estrategia sortzea eta abian jartzea.
31. Hezkuntzaren Euskal Lege berria onartzea eta, esparru horretan, eskolatzeko zabala eta berdintasun-baldintzetan bermatzeko, jatorrizko desberdintasunak konpentsatzeko eta eskola-porrota eta eskola-uzte goiztiarra gertatzeko arriskua txikiagotzeko beharrezkoak diren neurriak bultzatzea, ikasle guztien garapen integrala eta eskola-arrakasta bermatuz, eta inklusioaren, ekitatearen eta bikaintasunaren printzipioak gauzatu.



32. Lanbide-heziketa eta bizitza osoko ikaskuntza bultzatzea, batez ere prestakuntza-mailarik txikienak eta enplegua aurkitzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonen kasuan.
33. 0-2 urtekoen eskolatzeko goiztiarrean aurrera egitea, familia edo ingurune ahuletako adingabeen eskolatzeko bereziki kontuan hartuta.
34. Aisialdiaren, kulturaren, kirolaren eta partaidetza komunitarioaren arloetako politikak, baliabideak eta ekipamenduak bultzatzea, herritar guztientzat eta, bereziki, horrelako jarduerak egiteko zailtasunik handienak dituzten eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat irekita egongo direnak.
35. Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren gobernantza hobetzeko beharrezkoak diren egiturak garatzea, eta Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea eta Gizarteratzeko Euskal Kontseilua indartu eta finkatzea.
36. Hirugarren sektoreko entitateek eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen pobrezia eta bazterketaren aurkako politikak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen parte har dezaten sustatzea eta gizarte-bazterketaren aurkako politiken koprodukzioan sakontzea.
37. Gizarteratzearen eremuan esku hartzeko esparru komun bat sortzea, praktika profesionala pertsonarengan ardaztutako arretaren, indibidualizazioaren, autodeterminazioaren, aktibazio inklusiboaren eta bizikaltatearen printzipioen inguruan antolatzeko;
38. Gizarteratzeko euskal sistemak ebaluaziorako, berrikuntzarako, prestakuntzarako, ikerketarako eta eza-gutzaren kudeaketarako dituen ahalmenak indartzea, eta, horretarako, Gizarteratzearen arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa garatzea, pobrezia eta gizarte-bazterketaren arloko estatistika-produkzioarako ahalmena indartzea eta Inklusiorako V. Euskal Plan honen urteko jarraipena egitea.
39. Herritar guztientzako mugikortasun jasangarria eta bidezkoa bermatzea eta garraio-sare publikoaren erabilera sustatzea.



3.4.3. Espero diren emaitzak

Adierazitako erronkei aurre egiteak honako emaitza hauek eman behar ditu:

1. Lehen mailako pobrezia-aren gorakada geldiaraztea: euskal herritar guztien prestazioen aurreko lehen mailako pobrezia-tasak murriztuko dira
2. Prestazio-sistemaren eraginkortasuna areagotzea: diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomiko guztiei lotutako lehen mailako pobrezia murrizteko ahalmena areagotuko da.
3. *Non take up* izeneko murrizte: diru-sarrerak bermatzeko prestazioak lortu ez dituztenen egungo mailak murriztuko dira, eta pobrezia-egoeran egonik DSBE/BGDS sistema baliatzen duten herritarren ehunekoa handituko da.
4. Pobrezia-aren, bazterketaren eta desberdintasunen tasak murriztea: euskal herritar guztien pobrezia-, desberdintasun- eta bazterketa-adierazleek gora egiteko agertzen duten joera aldatuko da.
5. Gabezia materialaren mailak (gaur egun historikoki baxuak direnak) murriztea edo, gutxienez, mantentzea: metatze-pobrezia-aren eta/edo gabezia materialaren tasek ez dute gora egingo.
6. Pobrezia-arrakalak murriztea: gaur egun pobrezia-, langabezia- eta bazterketa-tasei dagokienez adinaren, sexuaren, jatorriaren, desgaitasunaren eta lurraldearen ikuspegitik dauden desberdintasunak murriztuko dira.
7. Lurralde-bateratasuna: errenta pertsonalaren mailarik handienak dituzten lurralde-eremuen (udalerrien eta hiru hiriburuetako auzoen) % 20aren eta errenta-mailarik txikiak dituzten auzoen % 20aren arteko desberdintasunak murriztuko dira.
8. Langabezia-aren murrizketa: emakumeen eta gizonen langabezia-tasak murriztuko dira, batez ere luzaroko langabeziari lotutakoak.
9. Soldata-arrakalaren aurka jardutea: emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murriztuko da.
10. Laneratzea bultzatzea, ekonomia sozialaren eta kontratatzen laguntzeko programen bidez: gizarteratze-enpresetan, enplegu-zentro berezietan eta lagundutako enplegu-programetan kontratatutako pertsonen kopurua eta kontratatzen laguntzeko programen onuradunen kopurua handituko dira.
11. Soldata-igotzea: soldatakoen hileko ordainsari garbia (batez ere lanbide-kategoria baxuetan) eta langile bakoitzeko batez besteko irabazia (batez ere beheko kuartilean) igoko dira.
12. Enpleguari lotutako pobrezia murriztea: emakumeen zein gizonen lan-pobrezia-aren tasa eta DSBEaren esparruan enplegurako pizgarrien sistema baliatzen duten soldata baxuko herritarren ehunekoa murriztuko dira.
13. Prekarietatea murriztea: enpleguaren behin-behinekotasunaren eta nahi gabeko partzialtasunaren adierazleak murriztuko dira, batez ere gazteen eta emakumeen kasuan.
14. Enpleguko parte-hartzea areagotzea: lan-intentsitate txikiko etxeetako herritarren ehunekoa murriztu eta jarduera-tasak igoko dira, gizonen zein emakumeen kasuan.
15. Etxebizitza-ari lotutako neurri kanpoko gastua murriztea: errentaren % 40 baino gehiago etxebizitza-gastuetara bideratu behar duten herritarren ehunekoa murriztuko da.
16. Bizitegi-bazterketa larria murriztea: bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopurua murriztuko da (kalean, aterpetxeetan eta egonaldi laburreko zentroetan bizi diren pertsonena).



17. Etxebizitza eskuratzeko prezioaren igoera geldiaraztea: merkatu libreko alokairuko etxebizitzaren prezioaren igoera-erritmoa geldiaraziko da.
18. Utzarazpenak prebenitzea: utzarazpenen eta etxebizitzatik botatako pertsonen kopurua murriztuko da, jabetza-erregimeneko zein alokairu-erregimeneko etxebizitzaren kasuan.
19. Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa gauzatzea: sustapen publikoko alokairuko etxebizitzetan bizi diren pertsonen kopurua eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonen kopurua igoko da.
20. Etxebizitzaren birgaitzea sustatzea: Euskadin etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ehunekoa murriztuko da.
21. Gizarte-zerbitzuek gizarte-bazterkeriaren eremuan jarduteko duten ahalmena indartzea: gizarte-bazterketari lotutako gizarte-zerbitzuen zorroko zerbitzuen estaldura, hiru lurralde historikoetan, EAEko batez besteko estalduraren % 85era iritsiko da gutxienez.
22. Energia-pobrezia prebenitzea: energia-pobrezia jasaten duten herritarren ehunekoa murriztuko da.
23. Lehen haurtzaroan inbertitzea: haurren eskolatzeko tasa handituko da, batez ere 1-2 urteko haurren kasuan.
24. Hezkuntza-desberdintasuna prebenitzea: matematikarako konpetentzian lortutako puntuazioei dagokien ISEK indize handia eta txikia duten ikastetxeen arteko aldea murriztuko da, baita irakaskuntza-ereduaren arabera DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan gainditutako ehunekoan dauden aldeak ere.
25. Errentarik txikieneko ikasleek hezkuntza jasotzeko aukera sustatzea: unibertsitate-mailetan eta unibertsitatez kanpoetan eskolatzeko beka eta laguntzak jasotzen dituzten ikasleen ehunekoa igoko da, baita beka horietara bideratutako gastua ere.
26. Osasun-arloko desberdintasunak prebenitzea: heriotza-tasari, hautemandako osasunari, gaixotasun kronikoen prebalentziari eta osasun mentaleko egoerari dagokienez errenta-maila desberdinak dituzten lurraldeen artean eta maila sozioekonomiko desberdinetakoak diren pertsonen artean dauden aldeak murriztuko dira.
27. Bazterketa-egoeran dauden pertsonen isolamendua prebenitzea eta harreman-integrazioa hobetzea: harreman pertsonaletan eta familia-harremanetan gizarte-arazo larriak dituzten herritarren ehunekoa murriztuko da, batez ere gabezia ekonomikoko egoeran dauden herritarren kasuan.
28. Minoria etnikoen eta etorkinen gizarteratze-sentimendua areagotzea: oso gizarteratuta sentitzen diren etorkinen ehunekoa igoko da.
29. Parte-hartze politikoa sustatzea: hauteskundeetako parte-hartzeari dagokionez errentarik handieneko lurralde-esparruen eta errentarik txikieneko artean dauden aldeak murriztuko dira.
30. Genero-berdintasunerako bidean aurrera egitea: genero-berdintasunaren indizea igoko da, batez ere denborari, ezagutzari eta botereari dagokienez.
31. Adinkeriagatiko diskriminazio-egoerak prebenitzea, batez ere 50 urtetik gorako pertsonen aurkakoak.
32. Garraio-sare publikoaren erabilera erraztea: garraio kolektiboak mugikortasun osoan duen pisua areagotuko da.



3.5. ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

Inklusiorako V. Euskal Plana bost ardatzetan eta arestian adierazitako lehentasunezko erronken ondoriozko 32 helburu estrategikotan egituratuta dago. Bost ardatzak elkarri hertsiki lotuta daude, eta arestian adierazitako erakunde arteko eta dimentsio anitzeko izaera islatzea dute helburu:

- **1. ardatza. Herriartasun-eskubideak baliatzeko aukera:** enpleguari, diru-sarreraren bermeari, gizarte-zerbitzuei, hezkuntzari, osasunari eta etxebizitzari lotutako politiken irismena zabaltzea eta politika horien diseinua hobetzea, herritar guztiei eta, bereziki, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen erantzun egokia emateko.
- **2. ardatza. Desberdintasunaren murrizketa:** pertsonen sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera gizarte-eskubideak eskuratzeko aukeran agertzen diren mota orotako arrakalak murriztea ahalbidetuko duten konpentsazio-politikak garatzea.
- **3. ardatza. Berrikuntza, koordinazioa, antolamendua eta gobernantza:** zerbitzuen prestazioan eta politiken antolamenduan berrikuntza sustatzea, sektore arteko koordinazioa hobetzea eta gizarteratzeko politiken eremuan esku hartzen duten eragileen antolamendu hobea bermatzea.
- **4. ardatza. Erantzunkidetasuna, parte-hartzea, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa.** Gizarteratzeko politiketan herritar guztien erantzunkidetasuna bultzatzea, bazterketa-egoerarako erantzun komunitarioak indartzea eta herritarrek pobrezia-, bazterketa- eta desberdintasun-egoeren inguruan sentsibilizazioa.
- **5. ardatza. Gizarteratzeko politiken lurralde-antolamendua.** Gizarteratzeko politiken lurralde-antolamendua bultzatzea eta, horretarako, tokiko eta eskualdeko ekintza-sareak garatzea eta premia sozioekonomikorik handienak dituzten udalerrri eta auzoen premietan bereziki ardatzutako politikak aplikatzea.

Bost ardatz horiek honako 32 helburu estrategiko hauen inguruan egituratuta daude:

1. koadroa. Ardatz eta helburu estrategikoak

Ardatzak	Helburu estrategikoak
1. ardatza. Herriartasun-eskubideak baliatzeko aukera	1. Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarte-laguntza emateko prozesuak hobetzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen esparruan.
	2. Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema indartzea, eta sistema hori osatzen duten prestazio guztien egokitasuna, eskuragarritasuna eta eraginkortasuna hobetzea.
	3. Enplegua sortzera eta enpleguaren kalitatea hobetzera bideratutako politika publikoak bultzatzea.
	4. Enplegu-politika aktiboak indartzea eta haien funtzionamendua enplegua lortzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonen (hots, emakumeen, gazteen, etorkinen, desgaitasuna duten pertsonen eta 45 urtetik gorako pertsonen) premia espezifikoei erantzutea.
	5. Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa garatzea eta bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen sustapen publikoko etxebizitza bat eskuratzeko aukera erraztea.
	6. Energia-pobrezia prebenitzea eta errentarik txikieneko pertsonen oinarritzko hornigaiak eskuratzeko aukera erraztea.
	7. Eskolatze zabala eta berdintasun-baldintzetan bermatzeko beharrezkoak diren neurriak bultzatzea, jatorri-desberdintasunak konpentsatzeko eta eskola-porrota eta eskola-uzte goiztiarra gertatzeko arriskua txikiagotzeko.
	8. Lanbide-heziketa eta bitzita osoko ikaskuntza bultzatzea.



	<p>9. Osasun-arloan gizarte- eta genero-desberdintasunak murriztea.</p> <p>10. EAEko espetxeetan zigorra betetzen ari diren pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko politikak indartzea.</p> <p>11. Herritarrek ingurumen osasuntsua izateko duten eskubidea bultzatzea.</p>
2. ardatza. Desberdintasun-arrakalen murrizketa	<p>12. Bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen premiei erantzutea ahalbidetuko duten neurri eta jarduketa espezifikoak ezartzea eta gizarte- eta enplegu-politikak diseinatzean genero-ikuspegia bultzatzea.</p> <p>13. Pobreziaren belaunaldiarteko erreprodukzioa prebenitzeko eta haur eta gazteen pobreziari aurre egiteko neurri espezifikoak antolatzea.</p> <p>14. Konplexutasun handiko bazterketa-egoerak agertzen dituzten pertsonen ematen zaien arreta hobetzea.</p> <p>15. Desgaitasuna, gaixotasun mentala eta/edo mendekotasuna duten pertsonen pobrezia eta bazterketa prebenitzeko neurri espezifikoak bultzatzea.</p> <p>16. Nazioarteko migrazioen eta asiloaren eremuan kultura-aniztasuna kudeatzeko euskal eredu baten eraikuntza aurrera egitea.</p> <p>17. Tutoretzapeko adingabeei eta tutoretzapekoak izan diren gazteei emandako laguntzen hobe-kuntza bultzatzea.</p> <p>18. Adinkeriaren aurkako borroka bultzatzea, batez ere 50 urtetik gorako pertsonen kasuan.</p>
3. ardatza. Berrikuntza, koordinazioa, antolamendua eta gobernantza	<p>19. Sistemaren koordinazio- eta gobernantza-mekanismoak bultzatzea.</p> <p>20. Ebaluatzeko, prestatzeko, berritzeko, behatzeko eta ikertzeko tresnak bultzatzea.</p> <p>21. Gizarte-bazterketari lotutako problematikiei sektore artean aurre egiteko aukera bultzatzea, eta zerbitzuak koordinatu eta bateratzeko formulen sorkuntza erraztea, bai mikro mailan (banakako esku-hartzea), bai meso mailan (erakundeak) eta makro mailan (ongizate-sistemak)</p> <p>22. Administrazio publikoetan gizarte-erantzukizuna eta erosketa sozial arduratsua bultzatzea.</p>
4. ardatza. Erantzunkidetasuna, parte-hartzea, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa	<p>23. Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden eta babes-sistema publikoak eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen estaldura ematera bideratutako jarduketak garatzea.</p> <p>24. Gizarte-bazterketako egoerei aurrea hartzeko eta aurre egiteko aukera erraztuko duten tokiko eta hurbileko ekimen komunitarioak bultzatzea.</p> <p>25. Bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen ingurune komunitarioan kultura, aisia edo astialdiko jarduerak egiteko aukera erraztea.</p> <p>26. Herritar guztiak lurraldeko pobrezia, desberdintasun eta gizarte-bazterketako egoeren inguruan informatu eta sentsibilizatzea ahalbidetuko duten ekintzak bultzatzea.</p> <p>27. Erabiltzaileek zerbitzuen kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzeko aukera sustatzea.</p> <p>28. Herritar guztiei gizarte-politiken diseinuan parte hartzeko aukera erraztea.</p> <p>29. Jarrera diskriminatzaile mota guztiei aurrea hartzea eta aurre egitea (adinkeria, arrazakeria, xenofobia, islamofobia, aporafobia eta abar).</p>
5. ardatza. Gizarteratzeko politiken lurralde-antolamendua.	<p>30. Bazterketaren arloan koordinatzeko eta bazterketari aurrea hartu eta aurre egiteko tokiko eta eskualdeko mekanismoak bultzatzea.</p> <p>31. Herritar guztientzako hirirako eskubidea finkatzeko bidean aurrera egitea, auzo eta eremu kalteberen hirigintza-berroneratze integralerako eta irisgarritasun unibertsalerako Euskadiko Hiri Agenda bultzatzearen bidez.</p> <p>32. Euskadiko garraio-sare publikoa baliatzeko aukera erraztea, batez ere gizarte-kalteberatasuneko egoeran dauden kolektiboen kasuan.</p>

3.6. ORIENTABIDEAK ETA GOMENDIOAK

Arestian adierazi dugunez, Esparru Estrategiko honen helburua da orientabide eta gomendio orokor batzuk planteatzea. Orientabide eta gomendio horiek Inklusiorako V. Euskal Planaren babesean garatuko diren plan operati-boen bidez gauzatu ahal izango dituzte Planari lotutako erakundeek, beren eskumenak baliatuz eta bazterketari lotutako politika publikoei dagokienez jarduteko duten ahalmena kontuan hartuta.

Orientabide eta gomendio horien barruan, Planari lotutako erakunde publikoek, beren eskumenak erabiliz, jardue-ra, konpromiso edo proiektu eragile espezifikoek bidez gara ditzaketen jarduera generiko batzuk daude. Beraz, gehiegizko zehaztasun-maila saihestu da, nahita, orientazio eta gomendio horien formulazioan, plan operati-boan zehaztu beharko baitira.

1. ardatza. Herritartasun-eskubideak eskuratzeko aukera

a) Diru-sarreraren bermea

- Diru-sarrerak bermatzeko prestazioak kudeatzeko barne-prozesuak berriz diseinatzea, prestazioak izapi-detzeko prozesuak hobetzeko eta prestazioen kudeaketa eraginkorrago bat errazteko.
- Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen sisteman sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonak eta uni-tateek prestazio horiek eskuratzen ez dituzten egoerak dimentsionatzea eta prebenitzea ahalbidetuko duten lkerketak eta informazio- eta zabalkunde-kanpainak egitea.
- Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen babes-intentsitateari eusteko beharrezkoak diren neurriak ezar-tzea, eta egungo inflazio-mailek onuradunen erosteko ahalmena era esanguratsuan murrizteko aukera saihestea.
- Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren esparruan aurreikusitako prestazio ekonomikoak eta PFEZa-ren esparruan aplikatutako zerga-tresnak hobeto integratzeko bidean aurrera egitea, soldata txikiak di-tuzten langileei laguntzeko politikak bereziki kontuan hartuta. Eta, ildo horretan, soldata txikiak dituzten langileentzako zerga-kenkari itzulgarri bat aztertzea eta, hala badagokio, ezartzea.
- Zerga-sistemaren eta, bereziki, PFEZaren ahalmena handituko duten neurriak bultzatzea, Euskadin diru-sarreraren arloan dauden desberdintasunen murrizketari dagokionez.
- Enplegurako pizgarrien sistemaren ondorioak ebaluatzea eta haren araudia eguneratzeko bidean aurrera egitea, soldata baxuak dituzten langileak babestuko dituen eta pobrezia-aren inguruko iruzurraren preben-tzioan eraginkorra izango den diru-sarrerak bermatzeko eredu bat sendotzeko.
- Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren egituraren txerta-zeko prozesuan aurrera egiteko neurriak hartzea.
- Hainbat arrazoi direla eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazio arruntak (DSBE, GLL, BGDS eta abar) eskuratu ezin dituzten familia-unitateei premia-azko laguntza ekonomikoa eskaintzera bi-deratutako programa espezifikoek eustea.
- Sistemaren eta haren prestazioen eskuragarritasun kognitiboa hobetzeko neurriak hartzea, eta pertsona guztiei bermatzea (irakurketa erraza, web-lagunkoitasuna, modalitate presentziala eta abar).



b) Enplegua eta laneratzea

- Lan Ikuskaritzak kontratazioari lotutako iruzurraren arloan egiten dituen kanpainekin jarraitzea (% 2ko kuota betetzea barne), 2022ko martxoaren 15eko Elkarrizketa Sozialeko Mahaian gizarte-eragileek parte hartzeko onartu ziren neurriak babestea eta, horretarako, Lan Ikuskaritzaren Aholku Batzordea sortzea, sektore prekarizatuak eta feminizatuak (eta, bereziki, etxeko langileak) bereziki kontuan hartuta.
- Enpresek edo toki-erakundeek gazteak kontratatzeko laguntzak, lehen lan-esperientzia eskuratzeko laguntzak, luzaroko langabeak kontratatzeko laguntzak eta gazteei eta langabeei zuzendutako tokiko aktibazio-ekintzak bultzatzea.
- Laneratzearen bidez gizarteratzeko prestakuntza-, enplegu- eta laguntza-proiektuak bultzatzea.
- Lurralde-egoitza berean Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa eskaintzeko leihatila bakarren sorkuntza sustatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen eta laneratze zailtasun bereziak dituzten beste biztanle talde batzuei zuzendutako lan-merkatu arrunteko lagundutako enplegu-programetan hobekuntzak sustatzea, enplegua sustatzeko neurri gisa, haien gizarteratzea eta laneratzea errazteko.
- Desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa bultzatu eta sustatzea.
- Laneratze laguntza osagarriak ematera bideratutako proiektu pilotuak garatzea (kontingentzia-funttsak), kontziliazioaren eta haurren zaintzaren, garraioaren eta lanpostu batean sartzeko egin beharreko gastu ekonomikoen arloko premiak bereziki kontuan hartuta.
- Aldi berean laneratzearen eta gizarteratzearen arloko premiak agertzen diren egoeretan edo beste egoera batzuetan kasu-erreferentzialtasuna hobeto koordinatzeko formulen garapena bultzatzea.
- Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratze enpresei kontratu jakin batzuk edo haien sorta jakin batzuk esleitzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea gordetzeko gutxieneko ehunekoak finka daitezkeen bultzatzea.
- Lege-betebeharretatik haratago desgaitasuna duten pertsonak edo gizarte-bazterketako egoeran dauden beste pertsona batzuk kontratatzearen alde egiten duten enpresa arrunten aldeko ekintza positiboko neurriak bultzatzea.
- Kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak txertatzea, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean eta kontratazio publikorako ingurumen-irizpideei buruzko euskal araudian xedatutakoari jarraikiz.
- Enplegu babestuko esperientzia berritzaileak bazterketa-egoeran eta/edo bazterketa-arriskuan dauden, luzaroko langabezian dauden eta 3 urte igaro ondoren laneratze-enpresetan moldatzen ez diren edo haietatik irteten diren pertsonengana zabaltea.

c) Gizarte Zerbitzuak

- EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta lurralde-mapak hedatzen jarraitzea, eta bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako Zorroari buruzko Dekretuan ezarritako zentro- eta zerbitzu-zuzkiduren garapena gizarte-zerbitzuen eremu, eskualde eta sektore guztietan amaitzea, Mapan ezartzen diren gomendioei jarraikiz.
- Bazterketa arin, ertain edo larriko egoeran dauden pertsonen zuzenduta dauden eta Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren parte diren zentro eta zerbitzuen baldintza material eta funtzionalen erregulazioa amaitzea.



- Gizarte-zerbitzuen esparruan arreta pertsonalizatuko planen prestaketa eta jarraipena arautzea, batez ere gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri dagokienez.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri zuzendutako ohiko diagnostiko- eta plan-gintza-tresnak berrikusi eta eguneratzea.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzuen eremuko pertsonalizazio-agenda bat garatzeko bidean aurrera egitea.
- Bizitza independenteko programak bultzatu eta finkatzea.
- Gizarte-zerbitzuek gizarte-bazterketako egoerei aurrea hartzeko eta aurre egiteko duten ekintza-ahalmena indartzea.
- Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen hornidura handitzea, batez ere gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeko eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzua (1.3.) eta gizarte-zerbitzuen eremuan parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua (1.5.).
- Gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen eremuan koordinazioa hobetzea ahalbidetuko duten neurriak hartzea eta, horretarako, lehen eta bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak koordinatzeko/integratzeko proiektuak abian jartzea eta toki-eskumeneko eta udalaz gaindiko irismeneko gizarte-zerbitzuak batera ematea (kudeaketa-gomendioak, mankomunizazioa, partzuergoen eraketa eta abar).
- Etxez etxeko edo ingurune irekiko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeko eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzu anbulatorio edo ibiltarien garapena bultzatzea.

d) Osasuna

- Gizarte-kalteberatasunik handieneko kolektiboek osasun-sistema baliatzeko aukera erraztuko duten esku-hartze espezifikoko ezartzea, hirugarren sektoreko entitateek kolektibo jakin batzuetara iristeko birtarteko eragile gisa betetzen duten zeregina sustatuz eta zerbitzuen kudeaketa- eta hornidura-motak herritar horien premia espezifikoetara egokituz.
- Gaixotasun mentala duten eta gizarte-bazterketa eta/edo bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsoneri zuzendutako tratamendu asertibo komunitarioko programak bultzatzea.
- Gaixotasun kroniko bat duten pertsoneri errehabilitazio-zerbitzuak eskaintzea ahalbidetuko duten proiektu esperimentalak sustatzea, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun-egoeren larriagotzea prebenitzeko.
- Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa (LMASS) bultzatzea eta, horretarako, erakundeen arteko koordinazioa ahalbidetuko duten eta lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeek egindako esku-hartzeak erraztuko dituzten ekintzak garatzea.
- Gizarte-bazterketako eta gizarte-kalteberatasuneko egoeran dauden pertsonen arreta soziosanitariorako sistemen arteko koordinazioan aurrera egitea.
- Euskadiko osasun-sistemako langileek agintzen dituzten eta finantzaketa publikoa duten tratamendu medikoekiko atxikidura errazteko laguntzei eustea.
- Osasun mentaleko laguntza-ereduei buruzko gogoeta-prozesu bat hastea.
- Osasunaren eremuko prebentzio eta esku-hartzeko kanpaina espezifikokoak garatzea, osasunaren gizarte-baldintzatzaileak bereziki kontuan hartuta (suizidioa prebenitzeko kanpainak, haurren obesitatea prebenitzeko kanpainak eta abar).



- Osasun-arloko desberdintasunen monitorizazioan aurrera egitea.
- e) Hezkuntza
- Hurrei zuzendutako arreta-zerbitzu eskuragarriak, arrazoizko prezioa dutenak eta kalitatekoak lortzeko aukera errazteko neurriak bultzatzea, batez ere errentarik txikieneko familientzat eta/edo hiri-eremu behartsuenetan.
 - Euskadin eskola-segregazioaren aurkako itun bat garatzeko bidean aurrera egitea.
 - Hezkuntza-konplexutasunik handieneko ikastetxeetan proiektu integralak sustatzea.
 - Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko beken emakida zabaltzea, arrazoi ekonomikoengatik ikasle bakar bat ere gera ez dadin jarduera horietan parte hartu gabe.
 - Irakaskuntzaren doakotasuna bete eta irakaskuntzagatik kuotak kobratzeko ageriko zein ezkutuko jardunbide oro desagerrarazi ahal izateko beharrezkoak diren kontrol-mekanismoak abian jartzea.
 - Irakaskuntzaren kalitatean eta ikasleen banakako arretan sakontzea, eta hezkuntza-sistema errealitate demografiko berrira eta ikastetxeetan gero eta handiagoa den immigrazioa egokitzeko aukera erraztea.
 - Lanbide- eta unibertsitate-heziketako sektore guztietan lanbide-heziketa eta unibertsitate-heziketa duala bultzatzea, enplegarritasuna eta, bereziki, emakumeek industria-sektorean duten parte-hartzea indartzeko helburuarekin, baita gizarte-kohesioa eta gizarteratzea indartzeko helburuarekin ere.
 - Lan-merkatutik urrunden dauden pertsonak enpresa-mundura hurbildu ahal izateko prestakuntza- eta enplegu-ibilbide dualetan oinarritutako proiektuak bultzatzea, pertsona kalteberekin zein enpresekin lan eginez.
 - Prestakuntza- eta lan-ibilbideak bizitegi-prestazioekin eta komunitatean integrazeko laguntzekin uztartuko dituzten proiektuak garatzea.
 - Atzerritar etorkinen prestakuntza-integrazio normalizaturako hezkuntza-baliabideak indartzea.
 - Kalteberatasunik handieneko egoeran dauden gazteei lanbide-heziketan sartzen laguntzea eta haien enplegurako trantsizioa bultzatzea.
 - Enplegarritasun-zailtasunik handienak dituzten pertsonen premiak bereziki kontuan hartuko dituzten bitzita osoko prestakuntzarako jarduerak bultzatzea.
- f) Etxebizitza
- Alokairu babesturako etxebizitzak sustatu eta erostea, eta zuzkidura-bizitokien tokiko eta eskualdeko sareak garatzea.
 - Etxebizitza-premia berezia duten kolektiboek etxebizitza esleitzeko kupoei buruzko araudia eguneratzea.
 - Etxebizitza-merkatu arruntean sartzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonen etxebizitza eskuratzeko aukera sustatzean espezializatuta egongo diren etxebizitza-operadoreen eraketa bultzatzea.
 - Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea lagundutako etxebizitzaren sare baten garapenean sar dadin erraztea, eta hirugarren sektoreko entitateei esku-hartze sozialeko programetan erabiliko diren etxebizitzak lagatzeko aukera sustatzea.



- Etxebizitza hutsen arazo soziala etxebizitza-politikaren zutabe nagusizat hartzea, eta hori gainditzeko hainbat aukera proposatzea, bai jenderik gabeko etxebizitzetarako buruzko 149/2021 Dekretuaren garapenari, bai zerga-neurriei dagokienez.
- Ardatz gisa zainketa-zereginen eta bizitzaren sostengurako zereginen erantzunkidetasun soziala eta kolektiboa izango duten bizikidetzagune komunitarioak sortzera bideratutako etxebizitza-proiektu pilotuak abian jartzea.
- Administrazioaren tutoretzapeko gazteen emantzipazio-prozesuetarako etxebizitza- eta laguntza-baliabiak sustatzea, kalteberatasunik handieneko pertsonen premietara bereziki egokituak.
- Kaleratze judizialen aurrean jarduketak egitea eta utzarazpenak prebenitzea.
- Etxebizitza-arloko gizarteratzeko eta gizarte-bitartekaritzako taldeen sorkuntza sustatzea.
- EAEko Administrazioaren eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorako erakundeen artean lankidetzahitzarmenak sina daitezkeen bultzatzea, bizitegi-bazterketa eta/edo gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonekin bizitoki eta esku-hartze sozialeko programetara bidera daitezkeen sustapen publikoko etxebizitzak lagatzeko, etxebizitzarekin loturiko gizarte-programak ezar daitezkeen eta gizarteratzeko etxebizitzaren sare bat antola dadin.
- Hiri-berroneratzeko programa integralen esparruan etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzeko proiektuen garapena erraztuko duten berme-funtzen ezarpena bultzatzea, errentarik txikiak dituzten familia-unitateek programa horietan parte hartuko dutela berma dadin.
- Energia-kontsumo eraginkorrenekin lotutako prestakuntza- eta aholkularitza-programen garapena bultzatzea, batez ere egoerarik ahulenean dauden lurralde-eremuetan.
- Osasun-krisietan bazterketa-egoera larrian dauden pertsonentzako bizitegi-/etxebizitza-soluzio egokiak garatzeko bidean aurrera egitea (isolamenduak eta berrogeialdiak egitea).

2. ardatza. Desberdintasun-arrakalen murrizketa

- Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala prebenitu eta murrizteko ekintza espezifikokoak egitea.
- Zerbitzuak eta prestazioak emakumeen premia espezifikoetara egokituta daudela bermatuko duten eta diseinatzean eta gauzatzean emakumeak enpleguaren, osasunaren, hezkuntzaren, diru-sarreraren bermearen, etxebizitzaren, harreman sozial eta pertsonalen, parte-hartze politiko eta kulturalaren eta abarren eremuetan eraginpean hartzen dituzten baldintzatzaile espezifikokoak kontuan hartuko dituzten ekintza espezifikokoak garatzea, Planak barnean hartzen dituen eremu guztietan.
- Genero-indarkeriaren arloko baliabideen kudeaketa integratua (ekintza-programa pertsonalizatuak ezartzeko aukera emango duena) bultzatzea, biktimei arreta eta babes hobea emateko.
- Indarkeria matxistaren biktimek diren emakumeentzako eta haien seme-alabentzako laguntza ekonomikoaren programak indartzea, indarkeriarik gabeko bizitza baten hasiera errazteko.
- Enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko eta emakumeen kontratazioa babesteko programak garatzea, batez ere enplegarritasun-zailtasunik handieneko emakumeen kasuan.
- Guraso bakarreko familien egoera hobetzeko neurri espezifikokoak bultzatzea.
- Prostituzioari eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketari aurre egiteko neurriak bultzatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen lan-kontrataziorako pizgarriak eustea eta haien indartzea, lan-merkatu arunteko kontratazioa bereziki kontuan hartuta.



- Desgaitasuna duten pertsonen lanerako eskubidea baliatu ahal izatera berariaz zuzendutako enplegu-programak bultzatzea.
- Administrazio publiko guztiek irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programak idaztea eta eguneratzea.
- Erakunde publikoen, gizarte-eragileen eta herritarren arteko interakzio-eremu guztietan irisgarritasuna eta erabilgarritasuna sustatzea, erabilgarritasunean, hizkuntza argian eta irakurketa errazean oinarrituta.
- Pertsonen arretaren barruan irisgarritasuna garatzen lagunduko duten gizarte-programak bultzatzea.
- Konplexutasunari hobeto aurre egitea ahalbidetuko duten eta askotariko bizi-dimentsioetan premia larriak dituzten eta/edo hainbat kontingentziatan (desgaitasuna, bazterketa, gaixotasun mentala, adikzioak, babesgabetasuna eta abar) premiak dituzten pertsonen zuzenduta egongo diren lan-metodologiak definitzea edo birdefinitzea.
- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako bizitegi-baliabide gehiago (bizitza independentera bideratuak) eskaintzea.
- Askatasunaz gabetutako pertsonen zigorrik modu alternatiboan betetzea erraztuko duten programak sustatzea, adikzioak dituzten edo bazterketa-egoeran dauden presoak bereziki kontuan hartuta.
- Haurren eskubideak bermatzeko programa bat bultzatzea, Europar Batasuneko gomendioen ildotik.
- Kargurako seme-alabengatiko prestazioen euskal sistema bultzatu eta garatzea (BGDSaren haurrentzako osagarria, Eusko Jaurlaritzaren kargurako seme-alabengatiko prestazioak, PFEZaren zerga-kenkariak eta abar), seme-alabak dituzten pertsonen laguntza ekonomiko handiagoa eskaini diezaien eta, aldi berean, haurren pobrezia-egoeraren prebentzioaren ikuspegitik eraginkorra izan dadin.
- Berziki pobrezia-egoeran, bazterketa-egoeran edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden familiei zuzendutako gurasotasun positiboko, aisia eta astialdiko eta hazten laguntzeko programak bultzatzea.
- Gazteen laneratzea hobetzea, talka-plan baten eta kalitateko enplegu egonkorra sustatzera bideratutako politiken bidez, ezinbesteko elementuak baitira bizi-proiektuak eta familia-proiektuak sortu ahal izateko.
- Gazteen emantzipaziora eta helduarorako trantsiziora berariaz bideratuta egongo diren programak bultzatzea. Programa horiek gizarte-bazterkeriako egoeran dauden, familia-laguntzako sarerik ez duten eta/edo babes-saretik atera diren gazteen premiak bereziki hartuko dituzte kontuan.
- Migratzaileak hartzeko eta integratzeko euskal eredu diseinatu eta abian jartzea, migratzaileak gizarteratzera eta laneratzera bideratutako laguntza pertsonalizatuko zerbitzu bat barnean hartuta.
- Bazterketa-egoeran dauden eta zahartzen ari diren pertsonen eta/edo gizarte-bazterketako egoeran dauden adinekoei berariaz zuzendutako neurriak bultzatzea, egonaldi luzeko zentro soziosanitarioetarako deribazioa, besteak beste.
- Bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen zuzendutako zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko administrazio-izapideak sinplifikatzeko neurri espezifikoak hartzea, lurraldean bizi diren eta Biztanleen Erroldan inskribatuta ez dauden pertsonen erroldatzea bereziki kontuan hartuta.



3. ardatza. Berrikuntza, koordinazioa, antolamendua eta gobernantza

- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren esparruan lankidetzaren, koordinazio eta parte-hartzerako ezarritako organoen zeregina bultzatzea.
- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko politikak ikertu, aztertu eta ebaluatzeko tresnak bultzatzea, bai sistema-ikuspegi batetik, bai banakako esku-hartzeen ikuspegitik.
- Gizarte-zerbitzuen, enpleguaren, hezkuntzaren edo osasunaren eremuan erantzukizun publikoko programak garatzeko gizarte-ekintzako hirugarren sektorearekin lankidetzan aritzeko hitzarmen eta esparrukordioen eta itun sozialaren araubidearen erregulazioa eta garapena amaitzea.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretuan eta Gizarte Bazterkeria Balio-esteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan araututako tresna komunak berrikustea, haien erabilera eta hobetzeko eta egokitzeko egon daitezkeen beharrak aztertzeko, eta banakako esku-hartzeen triajea, diagnostikoa, plangintza eta jarraipena egiteko beste tresna gehigarri batzuk garatzea.
- Esku hartzeko gidak, jardunbide egokien eskuliburuak eta gizarteratzearen eremuan lan egiten duten eragileek esku-hartzearen kalitatea bermatzea ahalbidetuko duten beste tresna batzuk egin daitezkeen bultzatzea.
- Gizarte-politiken eta gizarteratzeko esku-hartzearen eremuko graduondoko ikasketak bultzatzea, baita sistematan (enpleguan, osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan eta gizarte-zerbitzuetan) diharduten profesionalak hainbat alderditan (hala nola pertsonarengan oinarritutako arretan eta aktibazio inklusiboan) prestatzeko eta birziklatzeko programak ere.
- Herritarrek pobrezia eta gizarte-bazterketaren arloan dituzten premiei buruzko ikerketak egin daitezkeen bultzatzea.
- Pobrezia eta gizarte-bazterketaren eremuko politika publikoak ebaluatzeko lerro eta tresna espezifikoak bultzatzea.

4. ardatza. Erantzunkidetasuna, parte-hartzea, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa

- Gizarte-bazterketa edo marjinaltasuna jasateko arrisku handia duten eremuetan esku-hartze komunitarioak diseinatzea, nahasmendu mentalen eta adikzioen baldintzatzaileetan jarduteko.
- Kulturaren eta kirolaren bitartez gizarteratzeko programa pilotuen diseinua, abiaraztea eta esperimentazioa bultzatzea.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen parte-hartze politikoa eta soziala sustatzea ahalbidetuko duten neurri eta jarduketak espezifikoak bultzatzea, errentarik txikieneko eremuetan hauteskundeetako parte-hartzea bultzatzea eta bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen autoantolaketa eta parte-hartzea sustatzea.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen oinarrizko premiak (elikagaiak, arropa, bizitokia) betetzera bideratutako ekimenak indartu eta berrantolatzea, batez ere babes-sistema publikoa baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonen kasuan.
- Etorkinak, errefuxiatuak edo asilo-eskatzaileak eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden beste pertsona batzuk hartzean laguntza, mentoretza, babes komunitarioa eta herritarrak inplikatzeke beste formula batzuk eskaintzeko programa espezifikoak garatzea.



- Komunitateetan eta auzoetan kulturartekotasuna sustatzeko programak garatzea, nagusiki auzo- eta kultura-elkarteen bidez.
- Bitartekaritza komunitarioko programak bultzatzea eta aniztasun- eta bizikidetzaren planak lantzea, auzo-edo komunitate-gatazkak prebenitzeko eta haien aurrean esku hartzeko.
- Herritarren autoantolaketarako eta autokudeaketarako sare komunitarioak bultzatzea, hala nola denbora-bankuak, hornigaien kooperatibak eta autokontsumo-kooperatibak, autolaguntza-taldeak eta abar.
- Espazio eta erakunde berezietan pertsonen isolamendua prebenitzera eta saihestera bideratutako neurriak bultzatzea, eta desinstituzionalizazioaren agendan aurrera egitea.
- Harreman-bazterketako eta nahi gabeko bakardadeko egoerak prebenitzera bideratutako neurriak bultzatzea, batez ere gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen kasuan.
- Aisia, kultura, kirol eta astialdiko jarduerak egiteko ekitatezko aukera unibertsala sustatu eta ziurtatzea, eta baliabide gutxien dituzten herritarrek zerbitzu-mota horiek baliatzeko aukera eta zerbitzu horiek kalteberatasun-tasarik handienak dituzten hiri-eremuetan hedatzeko aukera bereziki bultzatzea.
- Eten digitala murriztera bideratutako neurriak bultzatzea, zerbitzu eta prestazioen eskuragarritasunari dagokionez bereziki.
- Komunikabide konbentzionaletan gizarte-bazterketa jasateko arrisku-egoeren inguruko sentsibilizazio-kanpaina espezifikoak egitea, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren legitimitate soziala bultzatzeko, besteak beste.
- Gizarteratzeko politiken legitimitate soziala bultzatuko duten eta aniztasuneko bizikidetzaren eragozten duten zurrumurru eta estereotipo negatiboen hedapena saihestuko duten diskurtso eta mezu inklusiboak zabaltzera bideratutako ekimenak indartzea.
- Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren inguruko kontzientziazio-kanpainak egitea.
- Gorroto-delituak eta gizarte-bazterketa jasateko arriskurik handiena duten kolektiboen (etxerik gabeko pertsonak, gutxiengo etnikoak, etorkinak eta abar) eskubideen urraketa prebenitzeko kanpainak bultzatzea.
- Enpresen jarduketa sozialki arduratsua sustatzea, jasangarritasun ekonomikoari, jasangarritasun sozialari eta ingurumen-jasangarritasunari lotutako irizpideei jarraikiz.

5. ardatza. Gizarteratzeko politiken lurralde-antolamendua: lurralde-ekitatea eta espazio publikoa

- Enplegu-planak eta toki-garapeneko planak egin daitezzen bultzatzea.
- Osasun-arloko esku-hartze komunitarioko planak egin daitezzen bultzatzea.
- Askotariko erabilerak eta belaunaldien arteko eta kulturen arteko elkarbizitza ahalbidetuko dituzten espazio publikoak eta ekipamenduak garatzera bideratutako neurriak bultzatzea.
- Eskualde eta udalerrietan diagnostikoak eta jarduketa-plan espezifikoak garatzea, sareko lana sustatzeko eta tokiko arreta-ekosistemak eraikitzeko.
- Auzoan, udalerrian edo eskualdean pobrezia eta gizarteratzearen esparruan koordinatzeko lurralde-mahaiak sor daitezzen bultzatzea, enpleguaren, osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren, diru-sarreraren bermearen eta gizarte-zerbitzuen arloetako zerbitzu publikoen jarduketak eta hirugarren sektorearen parte-hartzea koordinatu ahal izateko.



- Gizarte-zerbitzuen eremuan parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua (Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusitakoa) gara dadin sustatzea.
- Herritar guztientzako mugikortasun jasangarria eta bidezkoa bermatzera bideratutako neurriak bultzatzea.
- Euskadin garraio-sare publikoaren erabilera sustatuko duten neurriak indartzea, bidezko laguntzak, deskontuak eta hobariak indartzearen bidez.
- Hiru lurraldeetan dauden garraio-tituluen arteko elkarreragingarritasunean aurrera egitea, EAEn txartel bakarra ezartzeari begira.



4. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Plan honetan jasotako jarduketan zehaztasun-mailak zaildu egiten du haien inpaktu ekonomikoa kuantifikatzea: alde batetik, ezin da jakin alde zuretik nolako izango den pobrezia- eta bazterketa-egoeren bilakaera, ezta, beraz, zerbitzu eta prestazioen eskariaren bilakaera ere. Bestalde, Plan hau lantzeko oinarri gisa erabilitako plan eta estrategietako askok ez dute aurreikusitako jarduketan kostua zehaztea ahalbidetuko duen memoria ekonomikorik. Gainera, arestian adierazi dugunez, orientabide eta gomendio generikoak ezartzeko helburua duen esparru estrategiko bat da, eta horrek eragotzi egiten du Planaren babesean egingo diren jarduketan kopuru zehatza ezartzeari.

Nolanahi ere, planteatu daitezke, labur-labur, Plan honetan gizarteratzeko jasota dauden prestazio eta politika nagusiek mobilizatuko duten urteko zenbatekoa (pobrezia- eta bazterketa-egoeren inguruko egonkortasun-egoera baita, eta planetan aurreikusitako eta aurrekontuan sartutako jarduketak kontuan hartuta). Planaren zenbatekoa honako partida hauen batura da:

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta finantzatzeko 325 milioi euroko gastua kalkulatu da urtean.
 - Urteko 173 milioi euroko gastu zenbatetsia, IMV finantzatzeko, haurtzarorako laguntza osagarria barne (CAPI).
- Urtean 46 milioi inguruko gastua Gizarte-larrialdietarako laguntzak GLL kontzeptuan.
- 80 milioi euro inguruko gastua urtean, Etxebizitzako Gastuak Osatzeko Prestazioa eta Etxebizitzako Gastuak Finantzatzeko.
- Enplegu Plan Estrategikoan bildutako enplegua berreskuratu, mantendu eta sortzeko programetarako 260 milioi euro inguruko urteko gastua.
- Etxebizitza eskuratzeko eta hiri-plangintzako Autonomia Erkidegoko politikak finantzatzeko 266 milioi euro inguruko urteko gastua.
- Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan bazterketa-egoeran dauden pertsonentzat aurreikusitako zentro eta zerbitzuetarako 52 milioi euro inguruko urteko gastua.

Adierazitako datuetatik abiatuta, pentsa daitezke urteko zenbatekoa 1.202 milioi euro inguru izango dela (hezkuntza- eta osasun-gastuak kontuan hartu gabe). Hortaz, Planaren indarraldi osoan metatutako gastua 6.010 milioi euro inguru izango litzateke.

Bestalde, arestian adierazi dugunez, Esparru Estrategiko honi buruzko memoria ekonomikoa kalkulatzeko zailtasunak alde batera utzita, egingo diren plan operatibo guztiek, Planean txertatuko diren proiektu eragileez gain, urteko aurrekontua zenbatesteko aukera emango duen memoria ekonomikoa bat izango dutela aurreikusi da.



5. GAUZATZEA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA GOBERNANTZA

5.1. ESPARRU ESTRATEGIKOAREN ONARPENA ETA PLAN OPERATIBOEN GARAPENA

Arestian adierazi dugunez, Inklusiorako V. Euskal Plana garatzeko lehen mugarrria Esparru Estrategiko hau onartzea izan da. Esparruak, diru-sarreraren bermearen eta gizarteratzearen arloan indarrean dagoen araudian ezartzen denari jarraikiz, administrazio publikoek beren eskumenak baliatuz arlo horretako politikak aplikatzeko garaian kontuan hartu behar dituzten orientabideak eta jarraibideak jasotzen ditu.

Esparru Estrategikoa onartu ondoren, lehen Plan Operatiboa lantzeko aldia hasiko da. Plan horretan, Planari lotutako entitateek hartutako konpromisoaren arabera 2023an eta 2024an egingo dituzten jarduketa zehatzak jasoko dira. Adierazi dugunez, entitateak honako hauek dira:

- udalak eta udalerrien mankomunitateak;
- hiru foru-aldundiak eta, zehazkiago, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saila, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentua;
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila;
- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila;
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila;
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila;
- Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila.

Arestian adierazi dugunez, Plan Operatiboak hirugarren sektoreko entitateek zuzenean sustatutako proiektu eragileak ere bildu ahal izango ditu.

Indarrean dagoen araudiaren literaltasuna kontuan hartuta, adierazitako erakundeek jarduketa zehatzak finkatzea borondatezkoa izango dela ulertu behar da.

Plan Operatiboa 2022ko udazkenean landuko da, eta entitateek hartutako konpromisoaren arabera egingo dituzten jarduketa zehatzak bilduko ditu. Jarduketak bi motakoak izan daitezke:

- Konpromisoak, hau da, administrazioek hartutako konpromisoaren arabera ezarritako helburu estrategikoak lortzeko eta/edo dokumentu honetan adierazitako erronketako bati edo batzuei erantzuteko Planaren indarraldian praktikan jarriko dituzten neurri eta jarduketa zehatzak. Jarduketa horiek zehaztasun-maila nahikoarekin jaso behar dira, jarraipen- eta ebaluazio-fasean haien betetze-maila baloratu ahal izateko.
- Proiektu eragileak, hau da, berrikuntza-proiektu aplikatuak eta esperimentalak, ezarritako helburu estrategikoak lortzeko eta/edo dokumentu honetan adierazitako erronketako bati edo batzuei erantzuteko diseinatuak. Berrikuntza aplikatuko proiektutzat hartzen dira zerbitzu berrien prestazio esperimentera eta/edo esku hartzeko metodologia berrien esperimentera bideratutakoak, honako eremu hauetan: diru-sarreraren bermea, laneratzea, etxebizitza eskuratzeko aukera, gizarte- eta hezkuntza-laguntza, esku-hartze soziala, osasun-arreta eta arreta soziosanitarioa, prestakuntza, parte-hartze soziala, politikoa eta harreman-arlokoa, eta/edo gizarte- eta kultura-jarduerak egiteko aukera. Proiektu eragiletzat hartu ahal

izango dira, halaber, gizarteratzearen arloko politika publikoen inguruko prestakuntzara, ikerketara, ebaluaziora eta sektore arteko antolamendu-ereduen sorkuntzara bideratutakoak, betiere izaera berritzailea edo esperimentalak badute.

Jarduketak eta proiektu eragileak zehazteko, haiek era homogeneoan identifikatzea eta deskribatzea ahalbidetuko duen eredu fitxa bat igorriko zaie Planari lotutako entitateei.

Fitxa horietan, jarduketan eta proiektu eragileen gutxi gorabeherako aurrekontua jasoko da, 2023/2024 aldiko Plan Operatiboaren gutxi gorabeherako memoria ekonomikoa egin ahal izateko. Arestian adierazi dugunez, Lan eta Enplegu Sailak laguntza ekonomikoen lerro bat ezarriko du Planean jasotako proiektu eragileak finantzatzeko.

5.2. EBALUAZIOA, JARRAIPENA ETA GOBERNANTZA

Inklusiorako V. Euskal Planaren ebaluazioaz, jarraipenaz eta gobernantzaz arduratutako erakundeak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila eta Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea dira. Esparru horretan, honako tresna hauek planteatzen dira Planaren gobernantza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko:

a) Jarraipen Batzordea

Gizarteratzeko IV. Euskal Planak, Planaren aplikazioan eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren antolaketan lidergoa bultzatzera bideratutako jarduketan artean, Plana bultzatzeaz eta haren jarraipen teknikoa egiteaz arduratuko zen Lantalde Tekniko-Zuzendari bat ezartzea aurreikusten zuen. Lantalde horri Jarraipen Batzorde deituko zaio V. Plan honetan, eta funtsezko elementua izango da Planaren gobernantzarako. Gainera, honako organo hauetako bakoitzeko gutxienez ordezkari batez osatuta egongo da:

- Lan eta Enplegu Saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza.
- Gizarteratzeko Euskal Kontseilua.
- Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea.

Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak Eguía Careaga Fundazioaren Informazio eta Ikerketa Sozialeko Zerbitzua (SIIS) laguntza izango du. Fundazio hori Plana lantzeko eta haren jarraipena egiteko kontratuaren esleipenduna da, eta Idazkaritza Teknikoaren lanak egingo ditu.

Jarraipen Batzordea aldizka bilduko da, honako helburu hauekin:

- Planaren esparruan egiten ari diren ekintzen jarraipena egitea.
- Bi urteko plan operatiboaren garapena gainbegiratzea.
- Garatzen ari ez diren Planaren ekintzak identifikatzea.
- Entitateek igorritako informazioa gainbegiratu eta balidatzea.
- Ekintza berriak proposatzea, batez ere administrazio bat baino gehiago inplikatzeko dituzten eremu edo arloetan, eragileen arteko koordinazioa bultzatzeko.
- Jarraipen- eta ebaluazio-txostenak lantzeko prozesuak gainbegiratzea.



b) Urteko jarraipen-txostenak

2023. urtetik aurrera, Gizarteratzeko Euskal Planaren urteko jarraipen-txostena landu eta argitaratuko da. Bertan, honako hauek zehaztuko dira:

- Planari lotutako entitateek Esparru Estrategiko honetan ezarritako gomendioak eta jarraibideak gauzatzeko egindako jarduketak.
- Plan operatiboetan jasotako jarduketan betetze-maila.
- Plan operatiboetan aurreikusitako proiektu eragileen garapen-maila eta, hala badagokio, emaitzak.
- Gizarteratzeko eta gizarte-bazterketako prozesuetan zuzeneko eragina duten eremuetako premien bila-kaerari buruz eskuragarri dagoen estatistika-informazioa.

Nolanahi ere, jarraipen-azterketa horiek gutxienez honako alderdi hauei buruzko informazioa bilduko dute:

- Betetze-maila, Planean aurreikusitako hiru mailen arabera:
 - o maila estrategikoan, ezarritako jarraibide eta gomendioei zer neurritan erantzun zaien baloratuko da,
 - o esparru operatiboan, inplikaturako administrazio bakoitzaren konpromiso zehatzen garapena aztertuko da,
 - o proiektu eragile zehatzen gauzatze-mailan, inpaktuari eta eskalagarritasunari dagokienez izan duten bilakaera aztertuko da.
- Planaren hedapenean eta emaitzetan eragina izan dezaketen testuinguru-adierazle eta/edo inpaktu-adierazle nagusien bilakaera.
- Jarraipenaren emaitzen ondorioak eta emaitzen ondoriozko orientabideak.

Txosten horiek arestian adierazitako Jarraipen Batzordearen, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren eta Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen barruan azertu eta eztabaidatuko dira.

c) Amaierako ebaluazioaren txostena

2026. urtean Plana amaitzen denean, ebaluazio-txosten bat egingo da. Txosten horretan, honako elementu hauek jasoko dira:

- 2023., 2024., 2025. eta 2026. urteetako jarraipen-prozesuetan bildutako informazioaren zeharkako interpretazioa eta azterketa. Azterketa hori kualitatiboa izango da, eskuragarri dagoen informazio guztia laburbiltzeko eta elementurik esanguratsuenak azpimarratzeko, garapen-maila handia duten jarduketei zein geldi egon direnei dagokienez.
- Planean aurreikusitako (eta 2026ko jarraipen-prozesuan jasotako) gauzatze-adierazleen bilakaeraren laburpena. Ahal bada, ikuspuntu espezifiko bat emango da, generoaren eta haur eta nerabeen egoeraren ikuspegitik.
- V. Planaren hedapenaren eta inpaktuaren eta Planaren indarraldian bazterketa-egoerek duten bilakaeraren inguruan jasotako informazio kualitatiboaren interpretazioa eta laburpena.
- Eskuragarri dauden estatistika-iturrien azterketa, helburu bikoitzarekin:



- Euskal herritarrek Planean kontuan hartutako eremuetan (enpleguan, diru-sarreretan, hezkuntzan, etxebizitzan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan eta abar) duten egoerari dagokionez Planean ezartzen diren eta gizarteratze- eta bazterketa-egoeretan eragina duten testuinguru-adierazleak eguneratzea. Horretarako, Adierazleen Aginte Taula diseinatu eta aplikatuko da, eta eskuragarri dauden daturik berrienak sartuko dira bertan, adierazle nagusiek 2022tik, hots, abiapuntuko egoeratik 2026ra, hots, Planaren indarraldia amaitzen den urtera bitarte (edo aurreko urtera bitarte, eskuragarri dagoen informaziorik berrienaren arabera) izan duten aldakuntza baloratu ahal izateko.
- Gizarteratzeko Euskal Planaren helburu kuantitatiboen betetzeari buruzko balorazioa, Planean bertan ezarritakoaren arabera espero diren emaitzetan oinarrituta. Azterketa kuantitatiboa izango bada ere, emaitza horien lorpen-mailan eragina izan duten faktoreei buruzko azterketa kualitatibo bat ere egingo da, aurreko faseetan jasotako informazioan oinarrituta.

Bestalde, jarduketan eta programen jarraipenari eta ebaluazioari buruzko datuak sexuaren arabera bereiziko dira ahal bada, genero-ikuspegian oinarritutako azterketa egin ahal izateko.

d) Erabiltzaileek parte hartzeko mekanismoak

Plana lantzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko prozesuetan bermatuko den parte-hartze izaera gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonengana eta/edo Planean aurreikusitako zerbitzu edo prestazioen erabiltzaileengana zabaldu behar da ezinbestez.

Hori dela eta, jarraipen-txostenek zein amaierako ebaluazioaren txostenak pertsona horiek euskal gizarteratze-politiken inguruan duten ikuspegia jasoko duen atal espezifiko bat izango dute. Informazio hori pertsona horien ikuspegia modu egituratuan jasotzea ahalbidetuko duten metodologia kualitatiboen eta parte-hartzean oinarritutakoen bidez bilduko da nagusiki.

e) Pobrezia-, bazterketa- eta desberdintasun-egoeren jarraipen-adierazleen aginte-aula

Planaren jarraipenaz arduratutako Idazkaritza Teknikoak bazterketari, pobrezari eta desberdintasunari buruzko adierazleen aginte-aula bat izango du, behar bezala eguneratua, herritarren premien bilakaera eta bazterketari lotutako politiken irismena aztertu ahal izateko. Gizarteratzeko Euskal Planaren jarraipen-adierazleen aginte-aula osatzen duten adierazleak honako irizpide hauetan oinarrituta hautatu dira:

- Erabilgarritasuna: batez ere, estatistika-iturrietako datu publikoak edo erakundeen memoriak erabiliko dira; informazio hori herritar guztien eskura dago erakundeon webguneetan.
- Aldizkakotasuna: maiz samar eguneratzen diren iturriak hartuko dira kontuan, eta azterketa puntualak baztertu egingo dira, adierazle horien jarraipen erregularra egin ahal izateko.
- Jadanekotasuna: eguneratutako datuak dituzten iturriak erabiliko dira (2022. urtetik aurrerako informazioa dutenak).
- Genero-ikuspegia: datuak ateratzean, sexuaren arabera bereizitako datuak ahal den guztietan txertatuko direla sistematikoki bermatuko duen genero-ikuspegi bat aplikatuko da.
- Egokitasuna: euskal biztanleriaren egoera orokorra islatuko duten adierazleak erabiliko dira, Inklusiorako V. Euskal Planaren inpaktua zuzenean edo zeharka neurtzen duten alderdiak kontuan hartuta. Halaber, informazio hori osatzeko, gizarte-bazterketako egoeren prebentzioarekin zerikusia duten hainbat zerbitzu eta prestazio ekonomikoren erabilerari buruzko datuak emango dira. Ildo horretan, prozesu-adierazletzat har daitezkeen adierazleak zein inpaktu-adierazletzat har daitezkeenak sartuko dira aginte-aula horretan. Bestalde, adierazle horiek guztiak Planean espero diren emaitzekin lotuko dira, 3.3.3 atalean zehaztu diren moduan.

Honako txosten eta estatistika-iturri hauek erabiliko dira:



- Osasun Saila. EAeko Osasun Inkesta.
- Osasun Saila. Euskadiko Adikzioei buruzko inkesta
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. EAEn bizitegi-bazterketako egoera larrian dauden pertsonen egoerari buruzko azterketa.
- EUSTAT. Eskola Jarduerari buruzko Estatistika
- EUSTAT. Errenta Pertsonalari eta Familiarrari buruzko Estatistika.
- Estatistika Institutu Nazionala (EIN). Soldata Egiturari buruzko Inkesta
- Estatistika Institutu Nazionala (EIN). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI).
- Osasun Saila. Haurdunaldiaren borondatezko etenen EAeko erregistroaren txostena.
- ISEI-IVEI. PISA Euskadi txostena.
- ISEI-IVEI. Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistema.
- Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzei buruzko Estatistika.
- Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioa. Hezkuntzaren zifrak Espainian.
- MITRAMISS. Langabezia-prestazioen estatistikak.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organoa. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika / Gizarte Premiei buruzko Inkesta.
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko estatistika-organoa. Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika.
- Osasun Saila. Hiesaren eta Sexu Transmisioko Infekzioen Plana.

Planaren jarraipenaren aginte-taula osatzen duten adierazleak honako hauek dira:

- Jarduera-tasa (%), sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera.
- Jarduera ekintzailearen tasa (%), sexuaren arabera.
- Okupazio-tasa (%), sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera.
- Laneko behin-behinekotasunaren tasa (%), sexuaren arabera.
- Lanaldi partzialean enplegatutako pertsonen tasa (%), sexuaren arabera.
- Kontratazioarekin lotutako adierazleak, sexuaren arabera:
 - o Erregistratu diren kontratuen kopurua
 - o Kontratutako pertsonen kopurua
 - o Laneko errotazio-indizea (kontratu-kopurua kontratatutako pertsona bakoitzeko)
 - o Kontratuen batez besteko iraupena (egunetan)
- Soldatekin lotutako adierazleak, sexuaren arabera:
 - o Irabazia lanordu arrunteko
 - o Langileko urteko batez besteko irabazia
- Langabezia-tasa (%), sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera.
- Iraupen luzeko langabezia-tasa (%), sexuaren arabera.
- Lan-pobreziaren tasa (%), sexuaren arabera.



- DSBEa enplegurako pizgarrien modalitatean jasotzen duten pertsonen tasa (1.000 biztanleko), sexuaren arabera.
- Langabezia-prestazioei buruzko adierazleak.
 - o Langabezia-prestazioen onuradunen kopurua.
 - o Erregistratuta dauden langabeen kopurua.
 - o Langabezia-prestazioaren estaldura (%).
- Pertsonen batez besteko errenta (eurotan), sexuaren arabera.
- Pertsonen batez besteko errenta (eurotan).
- Pertsonen batez besteko errentaren eskualde-hedadura tasa (%).
- AROPE tasa osatzen duten adierazleak (%), sexuaren, nazionalitatearen eta etxean adingabeak egotearen arabera.
- Desberdintasun-adierazleak (lehen mailako errentarekin eta errenta erabilgarriarekin).
 - o Gini koefizientea.
 - o S80/S20 ratioa.
 - o % 10 pobreenaren parte-hartzea (guztizko diru-sarrerren gaineko ehunekoa).
- Pobrezia errealaren tasa, lehen mailako errentarekin eta errenta erabilgarriarekin (%).
- Pobrezia errealaren eskualde-hedadura tasa (%).
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren estaldura (1.000 biztanleko), sexuaren, adin-taldearen eta nazionalitatearen arabera.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin lotutako urteko adierazleak.
 - o Guztizko gastua (milako eurotan)
 - o Pertsona hartzaileen kopurua
 - o Batez beste jasotako zenbatekoa (eurotan)
- Gizarte Larrialdiko Laguntzekin lotutako urteko adierazleak.
 - o Emandako laguntzen kopurua
 - o Bizikidetzta-unitate hartzaileen kopurua
 - o Guztizko gastua (milako eurotan)
 - o Laguntzako batez besteko zenbatekoa (eurotan)
 - o Gizarte Larrialdiko Laguntzen finantzaketaren banaketa (%), finantzaketa-motaren eta lurralde historikoaren arabera.
- Diru-sarrerak bermatzeko sistemak pobrezia errealaren prebentzioan duen inpaktua.
- Diru-sarrerak bermatzeko sistema izateak pobreziaren murrizketan izan duen eragina.
- Seme-alabak kargura dituzten familientzako laguntza ekonomikoei buruzko adierazleak.
 - o Jasotako eskaeren kopurua.
 - o Dirulaguntza jaso duten eskaeren kopurua.
 - o Dirulaguntza jaso duten eskaeren ehunekoa (guztizkoarekiko).
- Biztanle bakoitzeko gastua gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan, lurralde historikoaren arabera.
- Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako zentroetako plaza-kopurua eta estaldura (1.000 biztanleko), lurralde historikoaren arabera.



- Hautemandako osasun txarraren prebalentzia (%), sexuaren eta gizarte-mailaren arabera.
- Gehiegizko pisua edo obesitatea duten pertsonen tasa (%), sexuaren eta gizarte-mailaren arabera.
- Osasun mentalaren indizea (MHI-5), sexuaren eta gizarte-mailaren arabera.
- Bizitzan inoiz bere buruaz beste egitea pentsatu duten pertsonen tasa (%), sexuaren eta gizarte-mailaren arabera.
- Eguneroko alkohol-kontsumoaren tasa (%), sexuaren eta gizarte-mailaren arabera.
- Eguneroko tabako-kontsumoaren tasa (%), sexuaren eta gizarte-mailaren arabera.
- Psikofarmakoien kontsumoa (mediku-errezetarekin edo gabe) azen 12 hilabeteetan, sexuaren eta adin-taldearen arabera.
- Haurdunaldiaren borondatezko etenen tasa (1.000 emakumeko), adinaren eta nazionalitatearen arabera.
- Genero-indarkeriaren bidez biktimizatutako emakumeen tasa (1.000 emakumeko), indarkeria-motaren arabera.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen kopurua eta tasa (1.000 emakumeko), indarkeria-motaren arabera.
- GIB eta Hies kasuen diagnostiko berrien kopuruaren bilakaera.
- GIB infekzioen diagnostiko berantiarraren tasa (%).
- Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen kopurua eta tasa, lurraldearen arabera.
- Etxebizitza-premiak dituzten etxeen tasa (etxe guztien gaineko ehunekoa), lurralde historikoaren arabera.
- Etxebizitzarako Prestazio Osagarria hartzen duten pertsonen tasaren bilakaera (1.000 biztanleko), lurralde historikoaren arabera.
- Etxearen mantenu-arazoekin erlazionatutako adierazleak, lurralde historikoaren arabera.
 - o Temperatura egokia mantentzeko ezintasuna.
 - o Hornidura-etenak (ura, argia, telefonoa).
- Energia-gastuetarako emandako Gizarte Larrialdiko Laguntzei buruzko adierazleak, lurralde historikoaren arabera.
 - o Emandako laguntzen kopurua, laguntzen guztizkoaren gaineko ehunekoa.
 - o Laguntzako batez besteko zenbatekoa (eurotan).
- 0-3 urte bitarteko biztanleen eskolatzeko tasa (%), sexuaren arabera.
- Haurreskolak Partzuergoko zentroen estaldura (plaza-kopurua 0-3 urte bitarteko 100 umeko).
- Helduen Hezkuntza matrikulatutako pertsonen tasa, sexuaren arabera.
- Hainbat gaitasunen emaitzak, maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren arabera.
- Hainbat gaitasunen emaitzen desberdintasun sozioekonomiko eta kulturalak.
 - o Zientzia-gaitasuna.
 - o Irakurketa-gaitasuna.
 - o Matematika-gaitasuna.
- Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan errepikatzen duten ikasle matrikulatuak, sexuaren arabera (ikasle guztien %).
- Eskola-uzte goiztiarraren tasa lurraldez lurralde (%).
- Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak.
 - o Hezkuntza-premia bereziak.



- Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak.
- Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak izanik ikastetxe arruntetan integratu diren ikasleak, hezkuntza-mailaren arabera (ikasle guztien gaineko ehunekoa).
- Eskola jazarpena, tratu txarra edo arbuioa jasan duten ikasleak.
- Eskolan tratu txarra jasan dutela adierazi duten Lehen Hezkuntzako ikasleak.
- Eskolan tratu txarra jasan dutela adierazi duten Bigarren Hezkuntzako ikasleak.



6. BIBLIOGRAFIA

De la Rica, S. eta Gorjón, L. (2018). El Impacto de la Renta de Garantía de Ingresos en Euskadi, *Papeles de Economía Española*, 156. <https://bit.ly/3NDM9uU>

Ekonomia eta Ogasun Saila (2022). Koiuntura di-da batean. <https://bit.ly/3AfuSVT>

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (2013). 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioes-
teko Tresna onartzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2013-08-7, 149. <https://bit.ly/3a65U0I>

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (2021). EAeko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebalu-
azioa. *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema*. <https://bit.ly/3OC4ERW>

Domínguez-Olabide, P. (2022). ¿A qué nos referimos cuando hablamos de pobreza laboral? Una aproximación
conceptual. *Zerbitzuan*, 76, 75-85. <https://bit.ly/3nriMBt>

FOESSA Fundazioa (2022). Informe sobre exclusión y desarrollo social en Euskadi. Resultados de la encuesta sobre
integración y necesidades sociales 2021. <https://bit.ly/3I38O2F>

Eusko Jaurlaritza (2018). Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021. Euskadi, lurralde inklusiboa.
<https://bit.ly/3Ae8fBc>

Eusko Jaurlaritza. (2022). Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen Proiektua.
<https://bit.ly/3ud1lbw>

Gómez, B. (2020ko urriaren 11). ¿A quién le importa la desigualdad política? *Gara*. <https://bit.ly/3OTyWiG>

González-Rábago, Y. eta Martín, U. (2019a). Existen desigualdades sociales en la salud dental de la población vasca,
siendo peor cuanto más baja sea su posición en la jerarquía social. <https://bit.ly/3bJnDm>

González-Rábago, Y. eta Martín, U. (2019b). La salud de las personas que viven en Euskadi se resiente a medida
que desciende su posición socioeconómica. <https://bit.ly/3Ae8Bb0>

González-Rábago, Y., Martín, U. eta Cabezas, A. (2019). Las desigualdades sociales en salud se heredan incluso
antes del nacimiento. <https://bit.ly/3I2RRW2>

González-Rábago, Y., Martín, U. eta Cabezas, A. (2021). Las desigualdades sociales en salud están presentes desde
la infancia. <https://bit.ly/3I39FjT>

Gortazar, L. (2022). Igualdad de oportunidades en educación tras la covid-19. In: *Servicios Sociales y vulnerabilidad
frente a la pandemia* (211-226. orr.). Eguía Careaga Fundazioa. <https://bit.ly/3I1JGcA>

Ikuspegi (2018). El proceso de integración del colectivo inmigrante en Euskadi. Análisis de la Encuesta de la Población
Inmigrante Extranjera en la CAE (EPIE 2014). <https://bit.ly/3ufKRjb>

Ikuspegi, (2020). Barometroa 2020. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarre-
rak. <https://bit.ly/3y6ko8H>

Lehendakaritza (2022). 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bi-
garren aldaketa egitekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2022-03-17, 55. <https://bit.ly/3y9g1tL>

Montoya I, Calvo M, Audicana C, Garmendia I eta Aldasoro E. (2021). Desigualdades socioeconómicas en la mor-
talidad por áreas pequeñas en Euskadi, 2013-2017. <https://bit.ly/3nqh5V9>



Morteruel, M. eta Martín, U. (2019a). En Euskadi, el acceso a la atención especializada y a los servicios sanitarios no cubiertos totalmente por el sistema público depende del nivel socioeconómico de la población. Sin embargo, la atención primaria, la urgente y la hospitalización no muestran desigualdades sociales de acceso. <https://bit.ly/3OSUKER>

Morteruel, M. eta Martín, U. (2019b). La discapacidad de las personas que viven en Euskadi aumenta a medida que desciende su posición socioeconómica. <https://bit.ly/3y5IEbd>

Morteruel, M. eta Martín, U. (2019c). La salud mental en Euskadi empeora a medida que lo hace la posición socioeconómica, sobre todo entre las mujeres. <https://bit.ly/3AfloZG>

Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2021). Etxegabetzeen bilakaera autonomia-erkidegoaren arabera. <https://bit.ly/3y43EyU>

Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa (2019). Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika. Gizarte Premiei buruzko inkesta 2018. Modulu Orokorra. <https://bit.ly/3OTC5iu>

Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa (2019). Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta 2018. <https://bit.ly/3ucVoeO>

Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa (2019). Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). <https://bit.ly/3l8aiZu>

Sánchez, R. (2022). La inflación sí entiende de clases. <https://bit.ly/3Rc40MT>

Sanzo, L. (2022). Estructura demográfica, pobreza y desigualdad en Euskadi: tendencias recientes y perspectivas de futuro. In: Servicios Sociales y vulnerabilidad frente a la pandemia (11-29. orr.). Eguía Careaga Fundazioa. <https://bit.ly/3y630kv>

SIIS (2021). Gipuzkoan Gizarte Zerbitzuak pertsonalizatzeko Gida. Zerbitzu pertsonalizatuagoetarantz jotzeko elementu eta gomendioak. Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://bit.ly/3P72RnK>

SIIS (2022). EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko V. Azterketa 2020. <https://bit.ly/3nqPnHN>

Suárez-Varela, M. (2022). Cuidar a los más vulnerables para que la transición no descarrile. Agenda Pública, <https://bit.ly/3lh111p>

Zalakain, J. (2022). Crecimiento económico y políticas para la inclusión social en Euskadi, *Ekonomiaz*, 101.